


Mikel Zarate

HAURGINTZA MINETAN

Sarrera:
Jesus Etxezarraga



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Mikel Zarate idazle oparoa izan zan, urte gitxian era askotako lanak egin ebazan: hizkuntzalaritzan, literatura sorkuntzan, azterlanak... Idazle gisa ipuinak idatzi ebazan gehien, baina olerkiak eta nobela bat be bai.

Hil zanetik 25 urte bete diran honetan, haren nobela bakarra, *Haurgintza minetan*, dakargu SUTONDO-AN sortara. 1972an Txomin Agirre saria irabazi eta 1973an argitaratu zan lehenengoz.

Nobelan egileak orduko gizartegi-roiara erakusten dau, alegoria antzera, umea laster izateko dagoan pertsonaiaren bitartez. Hari nagusi horren inguruan, ganera, Bilbo, Lezama, euskeraren ganeko eztabaidak, pertsonen jokabiderik ohikoenak eta orduko giroko beste adierazle asko dagoz.

Mikel Zarate idazle bizkorra da, bizia, inguruan gauzak harrapetan dakiena, eta hori dana bete-betean jasota dago bere nobelan.

MIKEL ZARATE
Haurgintza minetan

MIKEL ZARATE

Hurgintza minetan

Sarrera: Jesus Etxezarraga

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2004

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Obrarena*: Mikel Zarateren oinordekoak
© *Sarrera-azterketarena*: Jesus Etxezarraga
© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Gestingraf S.A.L.

Lege Gordailua: BI-930-04
ISBN: 84-89816-40-9

Eskubide guztiak jabearen dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beratu transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

Munduko beste mundu batean. <i>Jesus Etxezarraga</i>	9
Gure edizioa	24

HAURGINTZA MINETAN

Hitzaurrea ala hitzatzea?	29
I	31
II	45
III	53
IV	63
V	75
VI	81
VII	87
VIII	97
IX	103
X	113
XI	121
XII	131
XIII	141
XIV	151

MUNDUKO BESTE MUNDU BATEAN

Bizhokadaz, eta bihotza betean, bizi eta idatzi zuen Mikel Zarate euskal idazlea hil zeneko 25. urtemugaren inguruan dator-kigu *Haurgintza minetan* nobelaren berrargitalpen hau. Abade, idazle, irakasle, eta euskaltzain izan zen Lezamako seme euskaltzale honek bere aldikoengandiko itzal zabala jaso zuen, eta ordukoek erakutsi zioten estimazioa ahozko esanetan kabitu ezinekoa egiten zaigu gaur ere. Bere aldiak eta herriak maitetasunez ikusi zuen gizona izan genuen Mikel Zarate. Hurbileko eragin pertsonal ahaztezin hartaz honantzago, haren prosa lanak formalki gehien eta zehatzen aztertu dituen Jon Kortazarrek etorkizunerako irekita utzi zuen erronkak hor dirau: “Ez dakigu oraindikan ezer Mikel Zarateren literaturgintzak utzi duen influentziaz.” (*Mikel Zarateren prosa*, Bilbo, 1981). Bere aldikoen lanetara zabal genezakeen jakin-mina.

Maria Jose Olaziregik, UNEDerako idatzi zuen “Un siglo de novela en euskera” artikuluan finkatu zuenez (Madril, 2000), 70eko hamarkadan, batzuek egiten zuten nobela sozialaren eta Saizarbitoria eta beste batzuek egiten zuten nobela esperimenta-lagoaren artean, alegorikoa dei genezakeen beste nobela molde bat ere sortu zen. Garai hartako euskal egoera larria islatu nahi zuen, baina, era berean, sasoiko zentsura gainditzeko ihesbide bat zen alegoriarena. Ahalegin horretan jartzen ditu *Haurgintza*

minetan (1973) eta Anjel Lertxundiren lehen nobela, *Ajea du Urturik* (1971). Esku arteko *Haurgintza minetan* honetan Lezamako semeak isuri zigun munduaren ikuspuntu alegoriko hura hurreratu nahi lioke berrargitalpen honek egungo irakurleari.

Mikel Zaratek idatzietan bildu zuen orduko sasoiko munduaren ikuspegia, eta idaztean bere kautan zerabilen asmoa, ezinbestez, denboraren iragazkiak eskaintzen dizkigun argi-iluntasunetatik dakusagu. Argimutil moduan hortxe dugu Luis Haranbiuru Altuna editoreari hil aurretioxan Mikelek esan ziona, eta hark hilondoko poesia liburu bateko hitzaurrean bildu zuena: “Nik ez diat utopia konkreto batez idazten. Euskal herriak utopiaz duen beharretaz baino.” (*Utopiaren fantasian*, 1979). Barne arnas horren osagarri, *Euskal Literatura* (1977) azterlanean euskara “gutziz maite den emazte bat bezala” zuela idatzi zuen, eta “nik ez dakit zelan eta zergatik baina, txotxolotu egin nintzen euskara eta Euskalerriaz” erantsi. Eta halaxe zen izan ere, horrenbestera-inokoa baitzitzaion maitetasun hori, haren hurbilekoek ondotxo zekitenez. Larregizkoa. Hortik abiatu zen Mikel Zarateren euskalgintza.

Bere belaumaldiko gehienak legez, unibertsitateko ikasketak eta guzti, ez zen euskal kulturaren mundura modu arautu batez hurbildu. Horregatik beharbada, berrogeita sei urteko sasoiko gizon hil zen Mikel Zaratek, idatzizko bere produkzio ia osoa bizitzaren azken hamarretan argitu zuen. Hogei urte zituela sentitu ei zuen euskararen aldeko lehen bihotz eztenkada zuzena, “Laukarizen, 1953.ko uztailaren 25an, arratsaldeko zazpiretan, gutxi gora-behera”, Eutiki Zulueta apaiz bermeotarrarekin izaniko elkarrizketa bati esker. Horregatik eskaini zion Eutikiri *Euskal Literatura* saiakera liburu. Anjel Zelaietak ezagutarazi didanez, Eutiki Zulueta abadeak gerraondoan jasan zuen eliza barruko errepresioa Jon Gotzõn. Etxebarria euskaltzaleak bildu zuen lantinez *Excerpta* aldizkarian (15-16. zenbakiak Agorrila – Iraila, 1987). *De vita exemplarium Presbyterorum Vasconum: (III) ZULUETA, IRASUEGI, GORRIÑO* sive τὰ τινός ἐπίσκοπου

ᾠγραφα idatzitxoan, erbestera joan barik herrian geratu ziren apaizek jasan zuten pertsekuzioaz hauxe zioen: *“Bello civili hispanorum confecto, non solum presbyteri qui in exilium profugere, sed etiam multi qui in patria mansere, persecutionem ac contumelias passi sunt. Ex omnibus casibus tres tantum nunc narrabo: Seminarii Derio Magistri, Morcillo episcopo rogante, nomina ei nota fecerunt sacerdotum quos ad moderatores spirituales aptos censebant. Intre primos Eutikio Zulueta, homo sapiens ac prudens. Sed ubi Morcillo cognovit illum linguam vasconum colere ad munus praedicandi melius implendum ex albo abstulit eum”*. Hau da, euskara lantzen zuela eta predikazioan euskara erabiltzen zuela jakin bezain laster Seminarioko arduradunak izendatzeko zerrendatik erauzi egin zuela Morcillo gotzainak Eutiki Zulueta jakintsu eta trebatua. Nork igarriko eta, justu alderantzizko arrazoiengatik izan zen hain ederretsia Mikel Zarate gero Derioko Seminarioan.

Zuluetaren eztenkadak eragindako ibilbidearen laburpen antzera hauxe zioen Mikelek hil aurreko urtean, euskara batua eta euskalkiak zirela-eta, Arantzazuko erabakien azterketarako eraturiko elkarrizketa batean: *“...Eta konturatzen naiz, ohartu gabe idatzi ditudala zazpi liburu, bizkaieraz, eta zazpi batuan edo nire batuan edo baturantzako ahaleginean”*. Idazten berandu hasi zelako agian, arin eta urrun heldu nahiaren presiopean idazten zuela zirudien: Hil aurreko egunetan, amarenean zegoenean, bere gogo makalaldi eta guzti, idazteko eta argitaratzeko zeukan sukarraren erremin harekin, honelaxe ziotson gaur egun Bilboko gotzain den Karmelo Etxenagusari : *“Lau liburu daukadaz ia amaituta, ta beste hogeiren bat, bai, erdi egosita buruan”*. Cogo gori horrek bazeukan kezka sakon baten ifrentzua ere. Udaberri etorri berria, bisitan joan gintzaizkion Adolfo Arejita eta biok ere martxoaren akabera partean. Behin gogoratu nuenez (*“Mikel Zarate: Hiru atzera jauzi”*, *Idatz & Mintz* 20, 1990), urtaroak pertsonen aldiekin konparatuz, udatik udagoieneko pasabidean aurkitzen zela esan zigun. Heldutasunaren atarian. Eta bazioskun beldur

zela igarotzeko gai izango ote zen ala ez, igarotze hori beti ondo burutzen ez den krisialdi bat zela-eta. Sorkuntzarako ahalmenaz ari zela ulertu genion guk orduan, eta ez besterik.

Euskaltzaindiko *Txomin Agirre* nobela saria 1972an irabazi zuen *Haurgintza minetan* eleberri honek eta, 1970eko hamarkadaren hasieran euskal gizarteak bizi zuen politika, kultura eta hizkuntza alorretako aldaketa edo krisialdi egoerak egileari sortzen zizkion kezkek biltzen ditu. Aldaketa trantzean –erdiminetan– zegoen Euskal Herria, nobelan zehar atoan antzeman daitekeenez. Euskara batuaren oinarriak 1968an jarrita Arantzazun, alfabetatze prozesuak martxan jarri berriak ziren, Derioko Udako Euskal Ikastaroa barne (1970). Urte berean Burgoseko Prozesua. Francopeko diktadura aldia hondarretan zegoen. Hainbat geroago ekarriko zituzten Espainiako Konstituzioa (1978), Euskal Erkidegoko Autonomia Estatutua (1979), eta Nafarroarako Foru Hobekuntza (1982) esate baterako. Nobela hau ulertzeko, egin kontu Mikel Zaretek ez zuela ezagutu ez hezkuntzako A, B eta D hizkuntza eredurik, ez Euskal Irrati Telebista publikorik, ezta bera hil eta justu hamar egun geroago Espainiako Hezkuntza Ministerioak, euskara euskal irakaskuntza sisteman sartzea arautuz, publikatu zuen Elebitasun Dekretua ere. Hau da, kultura, politika eta gizartearen arlo askotan normaltzat jotzen ditugun eguneroko hainbat askatasun, arau eta erakunde ez ziren ezer. Euskaldun oso legez, bizi, hezi eta burua iragartzeko garai zailak ziren Espainiako telebista bakar eta arrotzak koroatzen zituen aldaketaren aldi haiek.

Mundu zaharra gainditu, eta egiteko zegoen mundu amestua heldu bitarteko egonezin edo krisialdiaren berri ematen digu nobela honek modu sinbolikoan. Jesus Maria Lasagabaster irakasleak *Las literaturas de los vascos* (Donostia, 2002) idazlan bilduman azpimarratzen duenez, García Márquez idazle hegoamerikarraren loiratzetik aitzina joanaz, Anjel Lertxundik *Ajea de Urturik* nobelarekin geureganatu zuen interpretazio mitiko-sozialaren kontabide hori. Lehen edizioko kontrazaleko testuan honela

zioen Lertxundik berak: “Urturi Euskal Herria da, mitiko bihurtzen ari zaigun, ari zaizkigun gure herria” Karlos Otegi *Pertsonaia euskal nobelagintzan* saioan (1976) berehala aztertu zuen Euskal Herri osoa sinbolizatu nahi duen Urturi *personaia kolektibua* zela, eta gaineratu zuen: “Mikel Zarateren *Haurgintza minetan* nobelan ere pertsonaia literarioaren tratamendu hau bera dakusagu”. Errealismo magiko lertxundiar horren aztarna zuzena nabari daiteke Zarateren nobelaren azken aparretan, *Ekidazu* ia osoa, ustekabeko ekaitz baten ondorioz, uholde sinbolikopean deskribatzen duenean. Sarritan esan denez, Txomin Agirrerren *Arranondo*, Lertxundiren *Urturi*, Atxagaren *Obaba*, Joan Mari Irigoien *Ollaran* eta Zarateren *Ekidazu* (hau da, *Euzkadi*) hor geratuko dira euskal literaturak sorturiko mundu sinbolikoen eredu legez. Oinatzok zapalduz, *Ekidazu*. *Lehoiek ez dakite biolina jotzen* izeneko ikuskizuna taularatu zuten Larrabetzuko Kukubiltxo txotxongilo taldekoek euren 25. urteurrenean Mikelen *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuiko “Ekidazuko astasendia” alegiarri Kirmen Uribekin eginiko moldaketan oinarrituz.

Garai bakoitzeko haizeak, itxura bateko azaleko harreman zuzenik gabe, antzerako fruitu aleak urrun sakabanatzen dituzenez, *Ajea du Urturik* publikatu zen urtean ere, Xosé Luís Méndez Ferrín idazle gailegoak *Retorno a Tagen Ata* nobela atera zuen. Méndez Ferrín sortzaileak beste literatur esparru autonomo batzuk ere asmatu zituen (*Terra Ancha*, *A Nosa Terra*, *A raia...*). Baina *Tagen* herriaren hau, Galiziaren transposiziotzat har dezakegu: “...á maneira do que fixeron Faulkner criando o seu condado de Yoknapatawpha ou García Márquez con Macondo”, diosku Manuel Amor Coutok *A Historia da Literatura Galega*-ko (1999) *A obra de Xosé Luís Méndez Ferrín* artikuluan. Egungo literatur kritikaren esparrutik osterera bakan bat eginaz, Xabier Kaltzakortak, Atxagaren *Obabakoak* liburuaz idatzi zuen ikerketan (*Idatz & Mintz* 18-19, 1989), Amor Coutok garandutako geografia mitikoen zerrenda horri Juan Beneten *Región*ekoa gehitzen dio. Ferrínengana gatozelarik, Andres Urrutiak paraturiko euskal itzulpena

duen nobela honek bestenaz (*Tagen Atarako itzulera*, 2000), las-ter hariak ekarriko digun Xabier Kintanaren *Ukronia* ipuina garamatza Amor Coutoren eskutik: “Como outros espazos ficticios situados á marxe das convencións realistas, Tagen Ata, configúrase como un mundo ucrónico...”.

Geureagora itzuliz, *Ekidazu* mundu mitiko horrek, abertzale eta ez abertzaleek aldaketa guztiak posible zirela uste zuten utopien atariko aro malenkoniatsu hura du oinarritzat. Mundu berria erditze aurreko egoeraren pertzepzioa ez baitzen beti baikorra aldiko idazle askoren artean: “Dena apurtu eta ezin ezer berririk aurkitu. Jainkoa ukatu eta jaunkotxoak (sic) aukeratu. Itxaropena ito eta eztabaidak, zalantzak, beldurrak eragin. Mundu autsi eta eten hark etzuen itxaropenezko zulorik; gau ilunean ere, zure imajinazioak eraginda edo ikusten duzu argi izpiren bat” irakur daiteke, adibidez, Lertxundiren boza artezean biltzen duen *Ajea du Urturik* nobelaren aitzinsolas modukoan. Zarateren abiapuntuko ikuspegia, ez horren iluna beharbada, abertzale eta euskaltzalearena zen.

70eko hamarkada horren hasieran Xabier Kintanak argitaratu zituen bi zientzia-fikziozko lanen iruzkina egin du oraintsu Ana Urkizak (*Beste izakia* eleberria, 1969, eta *Behin batean* bildumako “Ukronia” ipuina, 1972). Eta hor, (*Hegats* aldizkaria, 32), *Haurgintza minetan* idatzi zen une hartako herri kontraesankorra aipatzen du, eta “errealitateak eta amets irudikatuek elkarren kontra talka” egiten zutela diosku. Urkizak, Zarateren *Utopiaren fantasian* “saiakera-liburuan”, Luis Haranburu Altunak, sarre-ran, idatziriko pasarte bat Derioko irakasleari egozten dio, haren iritziz, *Behin batean* ipuin bilduma “desutopia bat” eta “amets gaizto bat” zela bilduz. Kintanarena baino urtebete beranduago argitaratu zen *Haurgintza minetan* eleberrian badago, nire ustez, *Ukroniari* buruzko zeharkako aipamen bat. IX. kapituluko “Hitz sinonimoen sariketa” pasartearen amaieran “mutil bizartsu ezezagun” bat eta “sasoiko gizon” bat euskararen aberastasun penagarri eta tamalgarriaren gainean eztabaidan jartzen ditu, eta *sasoi-*

ko-aren ezpainetan nik bere aldian Mikeli *Ukronia*-ri buruz entzun nion sententzia bera jartzen du: "nik ez diet parrerik egiten gerrate bat galdu dutenei". Mikelek *Txomin Agirre* saria 1972an irabazi zuen, *Behin batean* publikatu zen urtean, eta 1973an argitaratu. IV. kapituluan, *aurtengo* Txomin Agirre nobela sariaren irabazlea *Lejarreneko Mikelena* zela txertatzean egin zuen auto-aipamen berankorraren kasuan legetxe, baliteke, *Ukronia*-ri buruzko zita hau ere, ediziorako azken orduan egin zituen orrazketa edo eransketa horietako bat izatea. Izpiritua bederen bera zen.

Trantsizio aurreko -zentzu zabal batean- giro politiko hartako adierazpen askatasunaren faltan ulergarriagoa egiten da symbolismorako jite hori, eta maiz, gatazkak modu estilizatu eta mehetu batean agertzen ditu Zaratek. Zein aldi eta noizko giroaz ari garen ahaztu gabe, *txifa txakur* eta herritarren arteko borrokaren karatulapean, borroka armatuaren gaur egunean nahiko bigun iruditzen zaigun aipamena egiten du. Aldi hark ez zuen, antza denez, ez baterako ez besterako juzgu hain zorrotzik eskatzen. Antzerako beste horrenbeste, sarekada, atxiloketa, tortura eta hilketen sujerentzia leunduetan. *Haurgintza minetan* baino hiru bat urte beranduago argitaratu zen Ramon Saizarbitoriaren *100 Metro* (1976) nobelan hasi, eta Lertxundiren *Zorion perfektua* (2002) nobelan, itxi ez baina, borobildu egin den deskripzio errealistagoen ziklotik kanpo dago Mikelen kontamoldea.

"Apaiztegi izugarria, hiruehun metro zabal eta berrogei altuko bloke inerteia. Urrundik begiraturik leiho batailoi bat zirudien. Bostehun leihoetarik bat Jonen gelakoa zen". Horrela deskribatu zuen Derioko Seminarioa Xabier Amuriza idazleak, *Larraun* izengoitiz, *Hil ala bizi* nobelan (1973). Biak abade, -Amuriza, Zamorako konkordatuzko kartzelan preso, eta Zarate, Derioko Apaiztegiko hezitzaile zen heinean, gela eta leiho baten jabe- biek nobela bana atera zuten urte hartan. Errealitate berberera hurbiltzeko tonu eta emaitza arras desberdinekin. Mikelen alegiarik mingotse-na baino herri alegoria mikatzagoa idatzi zuen Amurizak. Sarrio-

nandiak zioenez ostera, euskal idazleak, ez du alegoriarik egiterik nahi, unibertsaltasuna bilatu baino. Alabaina, nazio eta hizkuntzari dagokionez hauxe zioen: “Eta hogeigarren mendeko gure literatura erreparatzen baduzu, liburu guztiak irakur daitezke alegoria nazionalaren zentzu horrekin” (*Bost Idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Alberdania, 2002). Gerorantz, nobela hartan *panfletari gisako pegotea* ezartzeagatik damu zen sano Amuriza: “Literatura egitean literatura egin behar da eta literaturan iraultza egiteko modurik onena literatura egitea da, ez literatura aitzakiz odolkiak sartzea”. Adierazgarria da, adibidez, zelan hurreratzten den bata, eta zelan bestea, mitologia munduraino narrazio-rako makulu bila. Amurizak, VII. kapituluaren Rosa Bustintza mañariarraren oihartzuna ekartzen digun *Mari Urrika* Anbotokorearen aipamen nahiko lirikoa egin ondoren, XIV. atalean esaterako, “Lezondon Haitzarno zeritzan koba bat, xit lewendatsu eta misteriotsu” bat zela aipatzen du. Eta leize mitikoaren parean, *koartela*, eta infernua jartzen ditu: “Anbotoko atsoaren biktimak betiere guztian kateatzarrak arrastatzera kondenaturik dauden antroan ote zegoen pentsatu zuen”. Zarateren nobelan ostera, kontalaria, iratxoa, Mariren semea da, eta Barandiaranen Mitologia Hiztegiaren azalpenak gogoratzen dituen kapitulua eskaintzen dio *Maju*, *Sugaar*, edo *Sugoi*-ren emazteari. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca* (1972) argitaratu berria zegoen, eta Ander Manterolak adierazi digunez, Mikelek ale bat erosi zuen. Noizbait, Herman Melvillek *Moby Dick* nobelan zetologiaz tartekatzen zituen dibagazio entziklopedikoen antzera, Mikelek ere, didaktismo etnografikora jotzeko afanaren afanez, narrazioaren mugak gainditu egiten ditu. Hala ere, Zaraterenean narratzailearen *altzoa* dena, bukolismoaren zantzurik ez duen *antroa* da Amurizarenean.

Hain maite zuen holako *excursus* etnografiko baten bidez bada, VIII. kapituluaren, *Mari* pertsonaia mitologikoari buruzko azalpen bat dakarkigu Mikelek. Dama haren bizileku eta bisita lekuen zerrenda zehatza eskaintzen digu: “Gipuzkoan bakarrik

ditu hamazazpi". Horien artean Txindoki mendikoa. *Haurgintza minetan* idatzi justu aurretik, 1971. urteko azaroan, *Ez Dok Amairu* taldearen ikuskizun bat bitarteko (*Baga, biga, higa... sentikaria*) jaialdi bat egin zuten Txindoki magaleko Larraitzen. Nafarroako *El Pensamiento Navarrok* "La noche negra de Larraitz" tituluko erreportaje batean deskribatu zuen happening edo gaupasa zeresantsua. Hala bildu zuen Pako Aristik *Euskal Kantagintza Berria 1961-1985* argitalpenean (1985). Gorbeia-eko espaldako Mairulegorretako koban 70eko hamarraldian egin ziren beste Euskal Jai baketsuago haien antzera, Txindoki azpiko *Larraitzeko akelarre* hark ere, aldeko eta kontrako ugari batu zituen bazterretan. Aldekoen artean, Balendiñe Albizu idazle zumaiarra (1914-2002) bere bizitza eta lanaz behin baino gehiagotan arduratu den Elixabete Garmendiak gogorazi digunez. Jaialdi berritzaile hura errebindikatuz, Balendiñek "Akelarre bihurtu ote?, Larraitz, 1971" poema idatzi zuen eta *Agiriak, Euskal poetak eta artistak G. Aresti-ren omenez* bilduman publikatu (1978). Mikel Zatek ere parte hartu zuen Arestiren omenezko argitalpen horretan "Euskal Literaturaren Arrokeria" olerkitxoarekin. Jazoera hura bizi-bizian, idazle lezamarrak, gogoan zeukan ore hori duda barik nobelaren II. kapitulua egosi zuenean, *Ekidazuko Sorgin-koban* jartzen duen gazte taldearen akelarrea deskribatu zuenean. Akelarrearen ke sunda hori dario *Ekidazuko* sasiapaizek *Txitxirri* baserrian prestatzen duten meza beltzari ere. Atal honetan bestalde, Platonek bere *Dialogoetako Sinposion* edo *Banketea* liburuan biltzen duen Aristofanesen jardunean oinarrituz, *androgino*, *gizandre* edo *ema-gizonen* kontakizuna bereganatzen du Mikel Zatek erotismoaren grinaren etorria azaltzeko.

Gustuko zuenez, aldiko kantu ezagun bat txatalka tartekatzen du akelarrearen deskripzioan zehar: Lourdes Iriondok belau-naldi baten inkonformismoaren bandera legez abesten zuen "Gazte gera gazte, ta ez gaude conforme": Ez dago oso argi oster, zein den idazlearen iritzia gertaera hauen aurrean, ezta akelarrean *sasoiko morrosko batek* ematen duen hitzaldiarekin ere. *Sasoiko*

gizon edo morroskoak, nobelan zehar, Zarate beraren transposizioa dirudi. Egilearen abadetasanaren oihartzuna du behintzat, bere arrazoiketa erretorikoan Itun Zaharreko *Eklesiastes* liburutik (3, 1-8) zuzen edanez, bizitzako aldi kontrajarrien zerrenda eskaintzen duenean: “Eguzkipean dena egiten da bere aldian. Jaiotzeko eta hiltzeko aldia dagoz...” bilakatzen da. Ez da berriz, Bibliako zita bakarra. Azken kapituluan, adibidez, iturria argitu gabe ohi legez, Jeremias igarlearen berset ezagun batzuk bereganatzen ditu komatxo artean aipamena eskainiaz: “...madarikatua bedi jaiio nintzen eguna!”.

Mikel Zaratek euskal mitologiatik hartzen du bada nobelaren hezurdura eratzeko kontalaria: iratxoa. Giroz eta lekuz askatasun handiz mugitzeko ikuspegia ematen dio baina, sarritan, sinesgarritasuna kentzen ere. Nobelaren akzioa *Ekidazuko* hogeita lau ordu irauten duen aldi mugatu baten artifizioaz baliatzen da. Testuak berak zehazten duenez, 1968ko Gabon Zahar eguneko gabeko hamabietan hasi eta ondorengo 24 orduetan burutzen den kontakizuna. “Nobela bat hogeita lau orduan baietz idatzi” dio iratxoak, eta ikastolarik ez duten iratxorik gehienen antzera, “...ni autodidakta bat naiz” esango du bere buruaz. Ekarri-ahaleko material oso desberdinen irazte eta metatze sakabanatua eratzea du zeregintzat denbora ordenatzeko modu honek. Mikelen borborkako konta-grina, ekarri aberatsaren esangura, taiutzeko era. Iratxoari erasaten dionez, gai aldetik ikusten eta sentitzen duena kontatuz eta, idazkera aldetik, idazle zaharrak eta herria maisutzat hartuz harildu zuen kontakizunaren mamia.

Mikelek, nobelan bertan, zein saria irabazi osteko prentsa adierazpenetan, behin baino gehiagotan aipatu zuen, hilabeteko epe labur batean eta “gabekoen” goizaldeko orduetan, apustu baten eraginez sariketa bat irabazteko idatzi zuela *Haurgintza minetan*. Ez ahaztu bestalde, unibertsitatean ikasten zituenak bere kreaizio lanetara eramaten ahalegintzen zela orduan Mikel Zarate. Hala ere, Jon Kortazarrek dioenez, ba ei zuen nobela honek argitaratu gabeko aurreko bat. Mikel Zarate apustuzale

—eta ondorenez sariketa zale— amorratua izateaz gain, bazen berriz holako joko borobilen zalea ere. Sariz koroaturik argitaratu zen *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1975) liburuaren sarreraren ere antzera egin zuen: “Berrogei urteren bueltan eta berrogei egunean egin ditut ipuin antzeko berrogei alegi mozorrotu mingotsok”.

Eraketa aldetik, nobelak berak aitortzen du *zorro* bat dela, kontakizun, gertaera, ipuin, olerki, kantu eta hausnarketez betea. Egileak bazekien idazkera horrek sortarazten zion desoreka nondik zetorkion. Hara bestela nobela oso aurreratua, XII. kapitulu hasieran, iratxo-idazleak, zelan azaleratzen dituen bere kezkek: “Ba, hemen nebilek nobela edo ipui luze hau idazten” (...) “Baina, egia esan, mozorrodun nobela bat duk hau, logikagabetasunaren logikaz sortua eta idatzia” (...) “Mozorroak, irudiak, sinboloak irakurtzen dakienarentzat, mozorroen barruan nor edo zer dagoen ikusten ahalegintzen denarentzat, ulerterreza izango dela uste diat”. Osagai tartekatu eta justifikazio handi gabeko hauen-gatik, nobelaren azken kapituluan, ijitoen pasartean sarturiko hausnarketa baten ostean, honela zuritzen du bere burua: “Barka iezadazu, baina asaskaldi on baten premina haundian egon naiz”.

Nobelan zehar aipatzen den trenak, Mikelek sarri erabili zuen *Lezamako Trenak*, Bilbora heltzean, gaur egun *Miguel Unamuno plaza* legez ezagutzen den bazterraren goienaldean zeukan aldi hartan abiaburuko estazio printzipala. Haren aurrean dago Miguel de Unamunoren familiak, idazle bilbotarra urtebeteko zela, bizilekutzat hartu zuen Gurutze kaleko etxea. Handik bertara, Erronda kaleko Unamunoren jaiolekua. V. kapituluaren amaieran, etorri-ahaleko loturak eginaz, *Botxoara*, hau da Bilbora, heltzean, iratxo narratzaileak, Unamuno eta Lizardi, “bi gizon edo bi gorpuhezur haiek” musean jartzen ditu, karten ordez liburuak erabiliz. Salvatore Mitxelenaren *Unamuno ta abendats* (1958) saiakeraren eragin zuzena ematen du. Lizardi eta Mitxelena Zarautzeko auzo berean jaiok ziren. Horregatik hartu zuen *Inurritza* izenordea liburu horretarako Salvatorek, eta saiakera

argitaratu ere, Lizardi hil zeneko zilar ezteietan egin zuen gorazarre moduan, *Zillar-eztaiak* hitz-atzean Lizardiri ziotsonenez. Saia-keraren 20. ataletik aurrera Unamuno eta Abendats elkarrizketan jarri orduko Salvatore Mitxelenak egiten duen lehen inbokazioa –etengabea gero– Lizardirena da.

Mikel Zarateren *Botxoa* eta Unamunoren *Mi bochito* hain aipatuaren arteko elkarlotura ez da, seguruenik, horren ustekabe-koa. Jakina denez, *Mi bochito* artikulua 1900. urtean argitaratu zuen Bilboko *El Centenario* errebistan. Titulu beragaz, 1965ean, Bilbo, bilbotarrak, eta Bilbori buruzko Unamunoren oroitzapenak gaitzat harturik artikulua bilduma bat atera zuten “El Cofre del bilbaíno” kolekzioan. Oraintsuago, edizio hari beste hemezortzi saiakera gehituz, Angel Ortiz Alfau zenaren ardurapean ikusi du argia berriro (1998). Bilduma horretako “Mi bochito” artikulua Unamunoren ohar luze bat biltzen du, Bilboko euskara eta gazte-laniaren arteko harremanen gainean. Besteak beste, bere “El dialecto bilbaino” artikulua (1886) eta Emiliano de Arriagak beranduago aterako zuen *El Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto* (1896) aipatzen ditu. Mikel Zaretek azterbide hau sakondu zuen ia mende bat geroago lizentziatura memoriarako eginiko *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri-Gran Bilbao* ikerlanean (1976).

Aipaturiko buhameei buruzko leku berean, Mikel Zaretek, iratxo narratzailearen lekuan jarritz, idazle legez, errealitatea eta kontakizuna zelako harremanetan ikusten dituen adierazten digu: Mundu erreal, eta mundu amestu edo asmatuaren arteko bikoiztasun horretan. Nork nor amestu edo asmatu, nor amesgilea eta nor amestua, Jorge Luis Borges edo Julio Cortázar idazleek hain gogoko zuten Xuan Tzu eta tximeletaren ametsari buruzko joko haren antzera. Nork amestu zuen nor? Xuan Tzuk tximeleta, ala tximeletak Xuan Tzu. Ijitoak eta iratxoak ere “munduko beste mundu batean” bizi direla dio. “Benetako munduan? Ameskeriazko munduan? Lehenagoko munduan? Gizonen munduan?”.

Kontsumoko gizarte modernotik urrun zegokeen ijitoen askatasuneko bizimodu idealizatuan, Mikel Zaratek, euskaldunek galdu eta baloretzat errebindikatu egiten duen mundu kontrajarria ikusten du: “Ekidazuarren munduko beste mundu batean bizi dira ijitoak, *ijito zikinak*”. Eta “ijitoen munduko beste mundu batean bizi dira ekidazuarrak”. Mundu amestu, desiratu, horretatik idazten du Mikelek bere kontakizuna asmatuz, sortuz.

Munduko beste mundu batean jartzen da, literaturaren jarlekuan. Idazlearen zeregin moral aldetik, Mikelek, oso zentzu zehaztugabea baldin bada ere, lozorroan dagoen herriarenganako arduran kokatzen du bere eginkizuna: “Herria lozorroan, / lozorroan dakusgu, / erdiak eta gehiago / lotan, / erdiak eta gehiago.../ Ail Guk gutxiok ezin, inolaz ezin dugu, erdizka besterik / asko, / gauza asko esan”. Xabier Azurmendiren “Hustu gaituzte” poema moralizatzailea jarri ondoren (“...Eta poetak uste du ezerk ez duela ezer balio...”), egileak —bera ere tartekatzen jartzen delarik— “herriaren barne lokartua esnatu eta indartzeko”, hustu gabeko “poeta jator eta bete batzuk” badaudela oraindino diosku. Gogoeta moralak ikuspegi aberkoi eta didaktikoz eskaintzen dituen testua dugu berea.

Edorta Jiménez idazle mundakarrak, nobela honi 1991ean egin zion hitzaurrean, “Mikel Zarate. Klasiko hurbila”, honela zioskun: “Bereak barik inorenak diren testu multzo polita” tartekaturik ageri dela, eta *intertextualitateaz* mintzatzea zilegi dela. “Nola bestela hilabetean idatzi halako lanik?”. Bereak eta inorenak, poemak, abesti modernoak, nahiz herri kantak, hirurogeitik gora ditu liburuan zehar. Mikel Zarate, aldi hartan, literatura ikasten zegoen unibertsitatean, eta mundu zabaleko eredu eta ikasgaiekin bitsetan zegoen. Ez du inoiz autorerik aipatzen, irakurleari ezagunak egingo bazitzaizkion ere gehienok. Euretari hainbat *Ez Dok Amañru* taldekoenak, Julen Lekuona hil berriarenak bereziki: Batzuetan, esan lei kantuen funtzioa irakurlearen konplizitatea lortzea dela, funtzio ia liturgikoa, korala. Beste batzuetan, ahozkotasunetik dakartzan kantu, esaera, hitz joko,

nahiz literatur testu, edo-eta abesti ezagunen kasuan, euskaraz ez oso alfabetatua, eta irakurtzeko ohiturarik ez zeukan irakurlegoari identifikazio puntuak eskaintzeko jarriak dirudite.

Ahokotasunaren baliabideak idatzira ekartzen maisu zen Mikel. Duela hogeita bost urte helduen alfabetatze kanpainak hasiberriak ziren, eta Mikel bera ere hantxe izan zen, 1970ean, Deriokoan. Beranduago, 1974an, sorturiko lema izan arren, "Dakigunetik ez dakigunera" izenburuko izpirituz eta metodologiaz eratu zen lehen "Udako Euskal Ikastaroa"n, euskal hizkuntza eta literatura irakasle izan zen. Gaur egunean euskalkien landare mendrea jagon nahi luketen hainbatek, orduan, fede berriaren argitan, ozenki arbuiatu zuten bidea. Uniformea ez zen Derioko eskola hartan, Mikel beti izan zen aurreratuen batuzko pausuen erritmoetan, eta bizkaieraz publikatetik bizkaierazko oinarridun batuaz idaztera jo zuen urte gutxiren buruan. Jarrera legez, bizkaieraz idaztean, eta herrikoaren artean hitz egitean ere, lokalismoetatik ihes eginaz, osotasunera jotzen zuen. Eta batuaren ekarrira bizkaierarena eramaten zuen. Historikoki, eboluzio horren behin-behineko lekuko dugu *Haurgintza minetan*. Nobelan zehar nabaria den herri literatura eta herri mitologiarekiko hurbiltasuna, Derio inguruan zebilen sentsibiltatea zen berriz. Adiskidetasun keinuz, eta *Zeanuritzxiko Bizkonde* graduz, zeharka aipatzen duen Ander Manterola eta On Jose Migel Barandiaranen itzalpean, aurreragoko harremanak zehaztuz, *Bizkaiko Etniker* taldea 1973an eraiki baitzen Derion. Dena, hamarkada hasieratik lanean ari zen *Labayru Ikastegia* eta bere eraginpean eginaz zihoan *Euskal Biblioteka* aberats baten inguruan.

"Gaueko hamabiak dira telebisioko erlojuan". Lehen kapitulu-luko hasiera horretatik akaberaraino, ikus-entzunezko komunikabideei buruzko iritzi ezkorra nagusi da nobelan zehar. *Utopiaren fantasian* lanean ere kezka berbera agertu zuen orduko telebistaren inguruan, eta "Umeen zentzuna..." testuan adibidez, "Nire utopiako euskal telebistan ikusiriko komedia barregarri eta negargarria" amesten du. Nobelan, alienaziorako tresna legez

azaltzen ditu sarri: “Ez dut nahi holako droga berririk, holako alienaziorik, herria jendetu, masatu egiten duen tramankulu ganorabakorik”. Eta, askotan, euskal mundu zaharreko ahozko-tasun aberatsari kontrajarriak. Ijitoen paradisuko inozentziazko mundu idealizatuan, horregatik, “Ijitoek ez dute telebisorik. Sua, ipuiak, eta elkarrizketak dira haien telebisioa”. Transistore bidezko irratiak ere erdal lokuzioari, aldi hartako joan-etorriko *euskarakazo* eta *erdarakazoei*, lotuak jartzen ditu: “... saca de la puerta Atzapar. Lanza el balón...”. Noizbait, klandestinitate aldiko erreferentziak ere badakartza: “Paris-ek zer dioen entzuten”.

Krisialdian, aldatu aginean, eta usnatu egiten zen mundu berri baten atarian zegoen Euskal Herriaz idatzi zuen Mikel Zaratek. *Haurgintza minetan* zegoela ikusten zuen berak. Ez zuen igarketarik aurreratu baina, eta itxura batez nobelako ustezko pertsonaia nagusia, Amaia, azkenean, ez dakigu non dagoen, eta ez dugu jakingo erditzeko zeraman haurra jaio egin zen ala galdu egin baldin bazuen ere: “...geroko geroaren geroak esango dit” idatzi zuen azken lerroetan. Maratila irekitzea etorkizuneko irakurleon esku utzi zuen. Hartu konbitea eta sartu Mikel Zarateren *munduko beste munduan*.

Jesus Etvezarraga

GURE EDIZIOA

Haurgintza minetan nobela behin baino gehiagotan argitaratu da eta argitalpen batetik bestera aldeak daude. Gure edizioaren oinarritzat lehenengoa erabili dugu, Etor argitaletxeak 1973an kaleratutakoa. Testu horri, hobetu guran beti ere, ukitu batzuk egin dizkiogu, hala eta guzti ere, idazlearen idazkera credua eta berak batasunerako lan honen bidez aurkeztu gura izan zuen proposamena aintzat hartuta. Honako aldaketak egin ditugu:

Grafia gaurko arauetara ekarri:

Hostatu>ostatu, ostalari>ostalari, aize>haize, hauzo>auzo, otz>hotz, serbitzari>zerbitzari, ohostu>ostu, peseta>pezeta, parre>barre, pake>bake, ahal>al, hoiek>horiek, Hala Jainkoa>alajainkoa, hogeit ta hamar>hogeita hamar, zai>zain, ipui>ipuín, usai>usain.

Loturak egin:

Bai>bait-: bai daki>baitaki, bai gara>baikara.

-e- lotura hizkia: diralako-direlako>direlako, dala-dela>dela.

Deklinabide atzizkiak gaurkotu:

Ergatiboko formak bereiztu: -ak/-ek banandu egin ditugu; batzuek dira>batzuk dira.

Formak egokitu: transistoren antzera>transistoreen antzera.

Aditzetan forma batzuk zuzendu eta egokitu egin behar izan dira, kontestuak hala aginduta:

Dariotela>dariela

Dakitxit>dakizkit

Diote>die

Daramatzite>daramatzate.

'Egon'aditzaren joko soila bizkaierazko moduan darabil, batuazko 'daude' barik 'dagoz' adibidez. Joko horren forma batzuk gaur egun baztertu samar daude, baina berak erabilitako moduan utzi ditugu, adibidez: zegozen (zeuden, egozan), zagozte (zaudete, zagoze).

Marra jarri diegu honakoei:

-la ta>-la-ta

Konposizioaren bigarren osagaia 'hotsa' dutenak: berba-hotsa, pausu-hotsa, txapligu-hotsa...

Beste hainbat berba eta esapide, idazleak berezkoa zuen bizkaieraren sustarraren adierazgarritzat, dauden daudenean utzi ditugu:

Zazpirak (zazpiak)

Errez (erraz)

-gaitik (-gatik)

fraile (fraide)

mihin (mihi)

danak (denak)

jaioparri (jaioberri).

HAURGINTZA MINETAN

HITZAURREA ALA HITZATZEA?

Neuk baneki...!

Izan hitzaurrea da, baina hitzatzearen ordeazko hitzaurrea.

Nobela hau irakurri ta gero ala aurretik irakurtzekoa...?

Dena dela, hitz egin beharra dut. Bai. Irabazi egin dut postura (gero jakingo duzu zein den), eta ehun mahats aihen eta hogei-ta bost musker kolkoratu, ta hamar botila ardo indartsu sabeleratu ditudanez gero, hitz egin beharra dut, aurretik edo atzetik. Kantatu beharra ere bai.

*«Pipa hartu ta txoratzen naiz,
ardo edan ta mozkortzen naiz,
mozkortu eta erortzen naiz...
Nola demontre biziko naiz?
Tra le ra le ra...»*

Oraintxe lehentxoago, postura irabazi ondoren, Urde ta Urruxa ta beste iratxo lagun batzuk, Erdikaleko ostatuan egon gara, nire poztasuna ospatzen. Janari ta edari mahaian ugari, ta gero jakina, danak kantari, danak dantzari. Eta nik:

*«Hamar botilla txankraturik,
azken basua klikaturik,
azken txirrista irentsirik,
boltsa deraukat turrindurik.
Tra le ra le ra...»*

Halako batean, eta bat-batean, jo egin naute nonbaitetik agertu diren bik, edo hiruk. Nire iratxo lagunek, ikaraturik, alde egin dute berehalaxe. Eta bakar-bakarrrik utzi naute. Ostalariak hurreratu zaizkit orduan.

*«Urrundu zaizkit aixkideak,
eta hurbildu hostalerak...»*

Egia esan, ez didate min haundirik egin ni jotzera etorri direnek, erdi mozkorturik edo erdi zoraturik egon direlako, nire antzera.

Baina zer dela-ta etorri ote dira nire aurka txakur amorratuak bezala? Era askotariko mozkorrak dagoz baina...

Kanpora atera naizenean, ostatu aurrean aurkitu ditut, berriz ere, mozkortiok. Eta izugarrizko burrukaldi bat egin dugu mozkorti guztiok. Eta negar ta barre, adiskide ta haserre, errebesatzen, gonbitatzen, goitika, goraka, okeka, hondatu hondatu egin dugu elkar.

Azkenean, zorionez, burrukaldia besarkaldi bihurtu da. Eta, kanta kantari, etxerantz jo dugu. Zein etxetarantz? Ez dakit.

*«Bazter guztiak inguruka,
bideak ere inarroska.
Munduak zer du? Hau da hinka?
Goazen etxerantz andarkoka...»*

Mutiko gazte bat ikusi dugu bidean (bat ala bi izan dira?), eta ez du barrerik egin gu ikusi gaituenean. Harriturik gelditu da. Hauxe abestu diot, nik, orduan, hari:

*«Mutiko gazte ta leiala:
konseju onak har zaitzula;
otoi, bizian ez zaitela
sekulan mozkor ni bezala.»*

Ekidazuko iratxoak

I

Gaueko hamabiak dira telebisioko erlojuan.

Gabonzahar eguna da ta, bestetan ez lako erlojua ikusten da: Madrilgo Eguzkiaren Ateko erlojua.

«... y suenan ya, señoras y señores, las doce campanadas del reloj de la Puerta del Sol de Madrid...»

Eguzkiaren Ate aurrean, mila eguzkitxoren argitan, gizatalde ikaragarria ageri da. Goraka, txaloka, dantzan, kantuka... jolasean ari dira.

Nire herrian ere, Ekidazun, aupadaka, dantzan eta kantuka ari dira, jaioparri dagoen urteari agurka.

Kantuka dabilta ekidazuarrak, eta oraingo haurtxoen abesti berriak kantatzen dituzte, telebision ikasitako abesti berriak.

*«Juventud, alegría,
con el champán Hordía.»
«Ropas interiores Gerripe,
en Confecciones Felipe.»*

*«Mantas Logura:
Qué hermosura!»
«Flan Goso:
Delicioso!»*

Bost minutu daramatzate horretan. Izan ere, bost minutu lehenago jaiotzen da urte berria Ekidazun. Lanera, trenera, elizara,

jolaserara... edonora garaiz heltzeko, bost minutu aurrerago ibiltzen dira hemengo erlojurik gehienak. Nirea ez, ez baitut erlojurik. Erlojua? Zertarako? Ekidazuko argiaren argitan eta ilunaren ilunetan bizi naiz ni, izadiaren erloju huts-ezinen argitan eta ilunetan.

Ekidazu irakiten dago gaur. Janariaren eta edariaren eta adiskidetasunaren eta poztasunaren suak piztu egin ditu ekidazuaren bihotzak.

Ekidazu irakiten dago gaur, pozaren pozez. Baina kezkek, tristurak, elkar ikusi-ezinak, gorrotoak eta era askotariko erdiminak ere hantxe dagoz, pozaren borbor biziaren muinean, bigundu barik, egosi barik oraindino.

Olazaharko Koldoren oinetan dagoen katarrak, ostera, ez du erdiminik, ez gorrotorik, ez...; katuen zeruan dago, erdi lotan, adimen gabeko askatasunezko zeruan.

Erdi lotan dago Olazaharko familia ere, sukaldean, telebisioa ikusten. Ez du jolaserako gogorik, antza.

—¡Viva 1968!— irakurtzen du Klaudiok telebisioan, ezpain erorian zintzilik duen txokor mutxikinari dantzan eraginez.

Ekidazuko familiarik zaharrenetakoa da Olazaharkoa. Eta olazahartar asko dago oraindino Ekidazun baina, Olabarrira ezkondu direlako batzuk, Gaztelara joan direlako beste batzuk, eta hil egin direlako beste asko, olazahartarren familia eskastu, murritztu egin da aspaldiko urteotan. Olazaharko baserrian ere hogeiren bat lagun bizi izaten ziren lehenago; baina orain zortzi bakarrik bizi dira: sei neba-arreba ta hauen aita ta amona: Klaudio, Kelemente, Kosme, Kaxinto, Koldo, Amaia, Juan era Esko-lastika: bost mutilzahar, neskazahar bat, gizon zahar bat, era andra zahar-zahar bat.

Aita ta amona kantatzen hasi dira.

*«Urte berri,
txerri belarri
daukanak eztaukanari;
nik eztaukat eta niri...»*

Auto baten bozina-hotsa da kanpoan. Koldoren lagunak dira. Botxoako jolastoki batera doaz.

Koldo gazteena da Olazaharko familian, etxeko seina, kutuna. Hogeita hamar urte ditu, baina eman berrogei ematen ditu. Ezkaratzeko horma batean dagoen egutegiko Jesukristoren antza du Koldok, bere ile ta bizar luzearekin. Odolgorria dugu, azkarra lanerako; baina etxean dago aspaldion lanik gabe.

Abrigu urdin eder bar jantzi, karatula bat besapean hartu, ta alde egiten du Olazaharko mutil mardo beltzeranak.

—Haundia da, gero, gaurko gazteen kontua! Hau da egonezina...! Gure denboran a... —dio amona zaharrak, Eskolastikak, bere iloba gazteena alde egiten ikustean—. Gu, Gabonzahar arratsaldeetan, herriko plazan biltzen ginen, neska ta mutil, eta aurreku ta dantzak egiten genituen... Bai, haiek ziren Gabonzaharrak haiek! Urteberriz, agilandoa ematen ziguten gizonak; Erregenez, berriz, geuk ematen genien. Ez al duzue entzun inoiz orduan kantatzen genuen kantua? Ez? hara:

*«Agilando de montaña,
hiru intxaur ta lau gaztaiña;
haren gainean lau sagar
nik bai altzoa zabal-zabal.»*

Bere bizkar okertuaren gainean laurogeita hamabost urte dituelarik, bazter batean dago amona, ximel-ximel eginda, hezur ta azal, hilotz bizi. Bazter batean dago amona, baztertuta, sorgin irudi, lehenaren kronista. Eta errekatxo bateko ura bezala, etengabeko jardunean, murmurrean ari da, bakar bakarrik.

«Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zahi, zohi, bele, arma, xixpa, tiro, punp...!»

—Egon isilik apur batean, amona, telebisioa entzuteko. Bestelan... —esaten dio Kaxintok.

Baina isilik egon Eskolastika? Bai zera! Bakarrik dagoenean ere ez, hagin barik egon arren eta eztarria guztiz motelduta euki arren.

«Bat, Patxi Parrat; bi, Patxi ipurdi; hiru, Patxi badu diru; lau, atsoa agurea nahi du; bost, klosk eta klosk; sei, etxe bete behi; zazpi, etxea bete zapi; zortzi, etxea bete zorri; bederatzi, etxea bete baratxuri; hamar, txakurrak marmar; hamaika, txakur zaharrak lukainka; hamabi, bota itzak platerera begi bi».

—Isilik egoteko, ba! —Klaudiok.

—Bazara, gero, zu ere...! —Kelementek.

—Isilik egongo ez dena jakinik, zertan ekin, ba? —Amaiak.

—Hori, ba —Juanek.

«Bat eta biga, ihauterietan gira; hiru eta laur, ni alegere gaur; laur eta bortz, ni zutaz agradoz; sei eta zazpi, zu ere bai naski; zortzi ta bederatzi, etzaitzula gaizki; hamar hameka, ohera lasterka; hamabi hamahiru, haurño bat baginu; hamalau hamabortz, adios aurtengotz; hamasei hamazazpi, atsoa dugu eri gaizki, hemezortzi hemeretzi, eta hil behar naski; hogoi hogoi ta... bat..., atsoa... ton... ba...lat.»

Magnetofonoa isildu da. Loak hartu du, eta momia bihurtu da.

—Dena doa gorantz, baina andren lotsa beherantz —dio bere artean Juanek, telebisioan agertu den emakume bat ikusirik.

«Herioren dantza» egiten ari da Hartza ta Gurbitxaren Baleta. Dantza zoragarria eta negargarria, benetan!

Olazaharkoak ezeze, Enekonekoak eta Agarrekoak ere, telebisioaren aurrean dagoz orain. Baita Goikoetxekoak, Ibarakoak, Bolukoak, Dendarinekoak, Markonekoak eta Errotabarrikoak ere. Nortzuk ez? Kaletarrak eta baserritarrak, zaharrak eta gazteak, haundiak eta txikiak..., telebisioa ikusten dagoz orain gehienak. Ni ez.

Nik ez dut nahi holako telebisorik, holako denbora eramangarririk. Ez dut nahi holako droga berririk, holako alienazioirik, herria jendetu, masatu egiten duen tramankulu ganorabakorik.

Ni idazten ari naiz, idazten jo ta ke. (Funtsgabeko nobela bat? Ipuin barregarri bat? Olerki ta kantu txorta bat? Herri baten

gorabeherak? Neure gorabeherak? Benetakoak? Asmatutakoak...? Laster ikusiko duzu.)

Apustu bat egin dut eta nobela bat idatzi nahi nuke, zorro bat bete. Hain zuzen ere, zorro bat da nobela, edozer gauza edozein eratarata hartzen duen zorroa.

Nor naizen? Ekidazuko iratxo bat. Bai. Ekidazuko iratxo bat naiz; Ekidazun jaio nintzen orain dela... ez dakit zenbat urte; Ekidazun hazi ta hezi ninduten; eta Ekidazun hazi ta hezi nintzen. Ekidazukoa eta ekidazuarra naiz. Ezagutuko nauzu..., baina goazen harira.

Hamabiak eta hogeita dirira Olazaharko ezkaratzeko erlojuan. Urteberria negarrez dago.

Lo kuluxka bat egin ondoren, ohera doa Eskolastika. Juan ez da konturatu bere ama oherantz joan denik, lo baitago. Igarri gabe, telebisioko kantu ta dantzen kulunkaz loak hartu du.

*«O zein haizen eder loa:
heriotzaren anaitzakoa,
bizitzazko urloa...!»*

Txapela okertu egin zaio Juani, eta honen buru zabaleko ile batzuek ezkutatu egiten diote ximurrez josita duen kopeta. Juanen begi txiki ta bizkor ta urdinek ez dute orain deus ere ikusten. Sudurra ta okotza, luzengak biak, elkarriz mun eman nahirik ditu. Gaurko periodikua du bere esku troskoetan. Lo zurrunga batzuk egiten ditu noizbehinka.

Zahar egin da Juan ere; gaixorik dabil, gainera, aspaldion. Lehenago izan balitz..., lo Juan Gabonzaharrez? Ez horixe. Izan ere, erne, bizkor egotekoa dugu Juan. Lehenago izan balitz..., dantzan, bertsotan, kartetan, kantatzen edo ipuin kontatzen ibiliko zen. Bai horixe.

Lehenagoko gizon ospetsua da Juan; aipagarria, famatua. Nork ez du ezagutzen Ekidazun Juan errementaria? Gizon xeblebreagorik...! Bere ateraldi zorrotz ta barregarriak ipuin bihurtu dira.

Kasildak, bere emazte izan zenak, beregandu nahi izan zuen senarra, «onbideratu»; baina alperrik (alperrik da Juan makilatua, berez ez bada bedeinkatua). Ekinaren ekinaz, horraitio (ekina okerra da ta, andrazkoena batez ere), beregandu zuen apur bat (zelakoa Mari, halakoa Peru), eta hitzak neurtu ta landu egiten zituen Juanek Kasildaren aurrean, ta ateraldi gordinak ta usain txarrekoak egokitu. Baina, hala ere (ekina okerra da baina, ezina okerrago), hain etorri haundia zuenez, batzuetan, konturatuta edo konturatu barik, nahiz ta Kasilda haserretu, oso-osorik botatzen zituen.

—Ipurdian eta mihinean duzue indarra zuok androk, eta ipurdikoa galtzen duzuenean, beldurgarria izaten da zuen mihina.

—Jesus, Maria eta Jose! Juan, Juan...! —esaten zion Kasildak— Bazara, gero! Gordinkeriaren bat esan gabe ezin egon.

Juanen ateraldi zorrotz ta barregarriak ipuin bihurtu dira Ekidazun, bai.

Behin batean, asto gainean zihoan Juan. Belar pixka bat ekartzera zihoan. Halako batean, adar-jotzaile bat topatu zuen Olazahar barreneko bidegurutzean.

—Egunon, Juan! Nora zoazte biok?

—Hirurontzat belarretan.

Beste behin...

Itzartu egin da Juan. Bere praka barrenetan buztana garbitu duen katuak iratzarri du.

Klaudio, Kelemente, Kosme ta Kaxinto telebisiara begira dagoz. Hau dute emaztegai berri.

Kantatzen ari den emakume gazte ta ederra irentsi egin du Kaxintok begiz. Lehenago, aberastu aurretik, jantzi zahar nabarmenez jantzita, protesta-kantuak kantatzen zituen mundu guztian entzute haundia duen abeslari horrek; orain ez du holakorik kantatzen.

Pailaso batzuk ikusi nahi lituzke Kosmek. Kelementek mala-baristak. Klaudiok ohea, ia lo dago ta.

Hamabi t'erdia jo dute egongelako erloju zaharrean. Bost minutu aurrerago dabil, jakina.

*«Siempre a su disposición:
Camisería Egunon.»
«Gurdi, Gurdi, Gurdi: Este es su coche.
Gurdi, Gurdi, Gurdi:
El coche que le hará feliz.
Gurdi, Gurdi, Gurdi, Gurdi, Gurdi...»*

Mutilzahar taldeak zigarroak biztu ditu. Amaia ere eskeini dio Kaxintok.

—Badakizu ez dudana erretzen.

—Erre bat gaur. Bategaitik...

—Ez, hola nagoelarik bat ere ez.

Izan ere, haurdun dago Amaia. Ezkondu gabe egon arren, haurdun dago. Eta inork ere ez omen daki laster jaiotzeko duen haur horren aita edo sortzailea nor den. Jakina, Amaiak berak badaki, baina ez du nahi agertzerik.

Joanak joan ta gero gerokoak, lasai dago orain Amaia, erdi lotan. Baina estu ta larri ibili zen orain lau hilabete, ta estu ta larri ibili ziren etxeko guztiak ere, goiak jo ta beheak jo, haserrez.

—Holako lotsagarririk...!

—Gazte bat izan balitz ere...!

—Baina...

Etzetik kanpora bota nahi zuten mutilzaharrok. Azkenean aitak baretu zituen.

Olazaharkoak estu ta larri ibili ziren Amaiaarena jakin zenean. Ekidazuarrak, ordea, txutxumutxuka, eztabaidaka; pozik batzuk, poztasun maltzurrez; tristeturik beste batzuk, tristetasun saminez. Lehendarrak eta oraindarrak, eskuitarrak eta ezkertarrak, atzelariak eta aurrelariak, zuriak eta gorriak, aberatsak eta pobreak, zaharrak eta gazteak, haundiak eta txikiak, txutxumutxuka eta eztabaidaka ibili ziren ekidazuarrak Amaia izorra zegoela entzun zutenean; baina gutxi joan ziren Olazaharrera honi laguntzera; jakina: inoren ardura pago adarrean.

«Giputxa» esaten diote Amaiari ekidazuarrek, han, Gipuzkoan, jaio zelako gerrate denboretan; han, bere osaba baten etxean bizi izan zelako urte askotan, eta emeki-emeki hitz egiten duela-ko.

Ezkontzeko era asko izan ditu Amaiak baina, gurasoekaitik edo beragaitik, honegaitik edo horregaitik, dena dela, ezkondu gabe geratu zen, ta honezkero... Izan ere hogeita hemeretzi urte ditu.

Odol-zurbila da. Bihotz oneko neska, baina hotza eta isila; zentzunduna, gibel eta arte haundikoa, baina xoxonga samarra. Amatara eman duela esaten zuten ekidazuarrek lehen; orain, seindun gelditu ondoren, aitatar a ere eman duela esaten dute.

Lehenagoko gorputz bihurkorra, aukerako gorputz lerdena, neurrigabetu egin zaio, eta edertasun berri bat hartu du: ama izateko dagoenaren edertasun ederra. Ile gorri ugaria txori urdin batekin lotu du. Ixur banaka batzuk agertu dira bere bekoki zabal leunean. Begi ilun ederrak itsu ta estalita ditu orain. Bere aitaren antzera, sudur luzenga du. Oreinez bete zaizkio masaila kolorgak. Kukuka eta dizdizka ari da urrezko hagin bat ezpain eder arrakalduen bitartetik.

Sabelean saltoka dabilkion haurrak eraginik, dardarakada batzuk egiten ditu, noizean behin, lo dagoen bitartean. Ametsetan ari da.

«Batzar batean dago, Aitzarteko fraileen komentuko egongela haundi batean. Zahar ta gazte, gizonezko eta andrazko, ekidazuar mordoa bildu da bere ondoan.

Elkarrizketan ari dira ekidazuarrok, elkarrizketan garraxika, deiadarka, oihuka, orroaka, irrintzika, arrantzaka...

Halako batean, burrukan hasten dira, ukabilka. Eta belarriondokoa doa, belarriondokoa dator; iraina doa, iraina dator.

—Gora!

—Behera!

—Harantza zu!

—Honantza ni!

—Ni, zu, gu...!

—Gu, zu, ni...!

—Barrura!

—Kanpora!

—Hatxe!

—Atxe!

—Bai!

—Ez!

—Atzera!

—Aurrera!

—Ez!

—Bai!

Danen erdian hartu, ta estutu egiten dute Amaia. Izerdi patsetan dago, sasi artean, biloizik, eztulka, usinga, arnasoska... Haur jaioparri bat du bere besartean. Zazpiki bat dirudi. Odoletan dago, ta odolez zikintzen ditu inguru guztikoak. Hil nahi dute, antza, batzuek.

—Kanpora bota! Hil sasiko hori!

Karlistada gerrateko burrukaldi bihurtu da batzarra, biltzarra, bilgunea, bilkorra, bilkuntza, bilera, batzakuntza..., ba... bil... ba... bil... ba... Trapu zahar bat bezala darabilkite umea. Ene! Zazpi hanka ditu...!

Gizon bizartsu koxkor batek hartzen du bere besartean, ta apa goxo bat ematen dio. Haurra bizirik dago, negarrez baitago...»

—Zertan zagozte hor lo? Zoazte ohera! —esaten die Klaudiok Juani ta Amaiori.

Auto baten hotsa da.

Bizkor, Olazaharko txakurra, zaunka hasi da, etxe aurreko bere txabolatxoan.

Hotz dago ta oso ilun kanpoan. Euria da, zarra-zarra. Ordu bata izan arren, argi asko dagoz biztuta oraindino Ekidazun. Gaur ez dira logura ekidazuarrak. Umore txarrik ere ez dute. Noi-zik behin, pilak gastatuta dituzten transistoreen antzera, kantahots indarga batzuk heltzen dira Olazaharrera.

*«Ez, ez dut nahi
horrelako zibilizaziorik...»
«Agur; agur; agur;
ilargira noa.»*

Bizkor zaunka ari da, etengabe, katea apurtu aginean. Katu-
ren bat edo arratoiren bat edo ikusiko du, nonbait eta... Ez; pau-
su-hotsa da. Norbait dator.

Itzarrik eta erne dagoz orain Olazaharkoak.

—Nor ote da? —galdetzen du Amaiak.

—Gazte talderen bat? —Juanek.

—Zoaz, Kosme, nor den ikustera —Klaudiok.

Etxe aurreko argia biztu, ta atea zabaltzera doa Kosme.

Sei gizon datoz Olazaharrera. Ekidazuko txakur granjako
Don Trifonen zerbitzariak dira.

Bizkorrek ez ditu adiskide, antza.

Kosme harrituta gelditzen da haiek ikustean.

—Su tu le depupa Coldo pedeladi de le di de le loa poletu?
—galdetzen dio batek.

—O lo de bodo Coldo, Coldo so pomo to lo no? —galdetzen
dio beste batek.

Kosmek ez die ezer ulertzen. Ez erantzuten. Estatua bizi mutu
bat da.

Orduan, baimenik eskatu gabe, barrura sartzen dira gizonok,
arrapaladan. Etxea arakutzen hasten dira hiru. Beste hirurek gal-
dera asko egiten diete Olazaharkoei.

—Lupulu le de ti tu ke do?

—Esacademosu solodemion?

—Seesquesavadetrosvono?

—Notuquiesaladonesavacademusolodemion?

Ez dakite zer erantzun Olazaharkoek. Zurbilduta dagoz
danak, geldi-geldi.

Itaxurà, osterà, txalaparta jotzen ari da; trumoia eta haizea
eresi bat kantatzen; eta tximistak, han, hor eta hemen, «Argazka-
rien-dantza» egiten.

Dirudienez, norbaiten edo zerbaiten bila dabilta Don Trifonen zerbitzariok gora ta behera, batera eta bestera behaztopaka, eztabaidaka, biraoaka...

—Zer? Nor da? Nor dabil hor? Amaia! Amaia...! —dio Eskolastikak ohetik, abots gozakaitzez, gizon ezezagun bi bere gelara sartzen ikustean.

—Tran la tros de trava mecauen si es de prin la golue.

—Tella caja vie!

—Zer gertatu da? Nortzuk dira gizonok, Amaia? Zer nahi dute?

—Ezer ere ez, amona. Egin lo lasai...

—Baina...

—Ixxxxi!

—E...! Nortzuk zarete zuok, bada? Noren bila edo zeren bila zabiltzate, bada...?

—Raqueque taes!

—Se no.

—Amona.! Ixxxxxxx...i!

—Baina...

Etxe guztia errekestatu ta gero, alarauka hasten dira Don Trifonen zerbitzariok. Ez omen dute aurkitu nahi izan dutenik. Beste etxeren batean egongo da, beharbada. Berehalaxe ateratzen dira, arineketan; Olazahar ta olazaharkoak dardaraz gelditzen dira.

—Zer gertatu ote da? —dio Juanek, hortzak, bihotza ta belaunak dardarakadaka dituelarik.

—Nork jakin? Ez baitiegu ezer konprenitu —egiten du bere baitan Kelementek.

—Koldo aipatu du batek —dio Amaiak.

—Bai —Klaudiok.

—Bai —Kaxintok.

—Koldoren bila etorri ote dira, bada? —galdetzen du Kosmek.

—Baliteke —Amaiak.

—Zer dela-ta orain? —Klaudiok.
—Badakizu: Don Trifonek... —Amaiak.
—Don Trifonek zer? —Kelementek.
—Zer egin dio hari Koldok, ba? —Kaxintok.
—Zertarako etorri dira, orduan, gizonok...? —Kosmek.
Galderen erantzuna mututasunean ito da.

Haize gorri zakar bihurria marrumaka dabil orain Olazahar-ko leiho ta ateetako irrikitueta, barrura sartu nahirik; eta euria zurrunbiloka haren kolkoan. Trumoa ere orroaka dabil orain, zauritutako basurdearen antzera. Tximistek ez dute bukatu orain-dino «Argazkarien-dantza», eta, txitean-pitean, gaua egun bihurtzen dute.

Halako batean, ustegabeko hodei-garraska durundiotsu bat entzuten da, eta Olazahar ilun-ilunetan gelditzen da bat-batean; ilun-ilunetan kanpotik eta barrutik, argia joan egin da ta.

Otoitz bat murduskatzen du Amaiak.

*«Santa Barbara, santa Kruz!
Jauna, balia zakiguz.
Inozenteen ogia:
Jauna, miseriordia.»*

—Itzali telebisioa, Kaxinto, ta ekarri, Klaudio, poxpoloak, kandela bedeinkatu bat ekarri ta irazegi dezadan.

Auzoko Tomasek ez du holakorik egingo. Ostosketan ari denean, kartak aidean bota behar direla esaten du, ostotsak infernukoaren astruziak direlako.

Don Julian medikuak, ordea, ez du izaten infernukoaren astruzien beldurrik, tximistorratza duelako bere etxeko teilatuan.

Bizkorrek badu beldurra. Isilik eta dardarakadaka egon da apur batean bere txabolatxoan sakon sartuta. Baina zaunka hasi da berriz ere. *Txau!* eta *txau!*, higuina ematen dit. Haren ondoan ari naiz idazten eta, ahausika diharduen bitartean, ezin dut ezer ganoraz idatzi. Euriak eta haizeak ez naute nekarazten. Izan ere,

eskuetan ditudan orriak ahate lumazkoak dira ta ez ditu bustitzen euriak, ezta haizeak eraman ere arbel orrietan josi ditudalako. Ezten bat da nire luma, ta ez dut tintarik erabiltzen.

Isilik egoteko esaten diot Bizkorri. Baina alperrik. Lehen baino gogotsuago ari da orain zaunka.

Enekoneko Pedro dator Olazaharrera. Zertan ote dator ordu honetan? Urduri ta arnasoska dator. Afrontuagatik, guardasolari esku biekini hobeki eusteko, ahoan dakar esku-argia. Atzerantz datorren ipurtargi bat dirudi. Bizkor zoratu egin da.

Guardasola hertsia, ate ondoan utzi, ta ate-joka hasten da Pedro. Berehalaxe irekitzen du atea Kosmek.

—Gabon, Kosme!

—Gabon, Pedro!

—Ohean egongo zinetela uste izan dut baina...

—Oraintxe egon gara joatekotan. Zer? Bakez zatoz?

—Bakez edo...

—Sar zaite barrura. Argia joan zaigu ta erdi ilunetan gagoz.

Pafaka ari da Pedro. Arnasa bete ezinik dago, ta izerditan. Toteldu egin da gainera.

—Gabon guztioi! Ba..., zera..., ni ohean egon naiz, eta... Gure Paulin... Ikusi ditut Don Trifonen zerbitzariak. Ba..., zera... Koldo zuena ta... berarekin egon diren lagunak atxilotu egin dituzte...

—Atxilotu?

—Bai. Don Trifonen zerbitzariak...

—Baina atxilotu zer dela-ta egin dituzte, bada?

—Ez dakit. Gure Paulin etorri zaigu oraintxe bertan, ta hark esan digu. Bera ere estu ta larri ibili omen da.

Mintzo ezina du Pedrok, baina egin egiten du hitz. Olazahar-koen mihinak, ostera, lotu egin dira.

Amaiak negarrari ematen dio, eta sabelean daraman umeak salto batzuk egiten ditu. Bat-batean, Juanen bihotza karraskada-ka hasten da, makina zahar baten antzera. Ibili badabil baina... Gelditu egin da apur batean...

Aratinik jausten da Juan eta Kaxintok eta Kosmek hartzen dute besartean. Eta ohera daramate berehalaxe.

Konortetik gabe dago Olazaharko etxaguna, eta alboko horma baino zuriago du arpegia. Oztaz-oztaz hartzen du arnasa ere. Bere bihotzaren taupadak oso motelak dira.

—Aita! Aita! Aita! —deika dabilkio Amaia.

Aitak ez dio ezer erantzuten.

—Zoaz, Pedro, mesedez, medikuarengana —eskatzen dio Klaudiok.

—Apaizari ere, badaezpada, abisatu beharko zaio —dio Amaiak.

II

Ordubietarantz doa.

Enekoneko Pedro ere badoa, medikuari ta apaizari abisatzera.

Azkenengo sorgin banakak ere oraintxe doaz akelarrrera ari-
neketan, berandu doaz ta.

Ekidazuko *Sorgin-koban* elkartu dira gaur sorginak. Baina hemen ez dira elkartzen beti. Zugarramurdiko leizetan, Larrun mendian, Ataungo Mandobitako zubipean, Orozkoko Garaigortako haitzean, Dimako Petralanda zelaian, Aezkoako Petiberren, eta beste toki askotan biltzen dira.

Ostiraletan biltzen dira, hau omen da akelarreak egiteko egunik egokiena ta, ostiraletik larunbatera bitarteko gaua. «*Ilunezkilan atera ta argiezkilan sartu.*»

Akelarreetara joan aurretik, gantzu bereziz gantzutzen dira sorginak, sorginkeria hau sorginkiro esanez: «*Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik.*»

Sorgin talde haundia bildu da gaur Ekidazuko *Sorgin-koban*. «*Ez garela ta bagarela, mila ta bostehun hemen garela.*»

Oraintxe heldu dira kobara azkenengo sorginak.

*«Ekidazuko sorgin-koban,
aker bat dago erdian.
Atso herrenak dabilz
bere aurrean dantzan.*

*Goazen, goazen, goazen
haiei laguntzen,
mendi ta harkaitz artean
ujuju egiten.»*

Bakarleku batean dago Ekidazuko *Sorgin-koba*, Olazahartik kilometro batera edo hola, Aitzmendiko artadian. Sarrerako ate hutsa estu samarra du; baina barrura sartutakoan, mila lagun lasai egoteko lekua du. Santuz beterik dagoen eliza bat dirudi barrutik. Izan ere, urak eta kareak eta haizeak landutako sorgin-imagjaz beterik ditu alboetako hormak, eta haitz-negarrak egingako orratzez apainduta goia, sabaia; ur bedeinkatu ontzi itzal baten antzeko haitz mokor bat ageri da bazter batean, eta ur beltz hotz zikin geldia lo dago haren altzoan. Toki iluna eta ituna da, benetan, eta larria hemengo bakea.

Akerbeltz gurtzen ari dira orain sorginak. Eta, banan-banan, bata bestearen ondoren, hari ipurdian mun egitera doaz. Hormetako sorginak ere, Akerbeltzengana joan nahirik edo, atzera-aurreraka dabilta, kriseiluen argitan.

Sorginen buru den Akerbeltz, haien erdian dago haundi eta beltz, jainkotxo edo erregetxo bat balitz bezala.

—Eperrapan zapadapan zaper dupun opor? —galdetzen dio Akerbeltzek sorgin gazte bati ahuntz-erdaraz.

—Hapari honpedaperrak zupiri ipopurpedipoa garpubipuztepuke —ihardesten dio apalki sorgin gazteak.

Antzina, gazte ginelarik, maiz joaten ginen Urde (Gezalako iratxo lagun bat) eta ni sorginen akelarreak ikustera. Eta, behin batean (gazte egon ere ta), Akerbeltzi ipurdian mun egitera joan zen Urde ere, zapatarien ezten bat eskuan hartuta. Eta mun egitean, ipurditik sartu zion eztena Akerbeltzi.

—Sorgin berri honek muturreko bizarrak zorrotzak ditik —esan zuen Akerbeltzek.

Leher egin genuen barrez Urdek eta nik.

Bukatu dute sorginek mun egite hori, eta dantza zoroak egiten hasi dira mozorro nabarmenez jantzita. (Mozorroz ala zomorroz? Ala bietara? Ahaztu egin ote zait idazten ere, ba...?).

Dantzan eta kantatzen ari dira sorginak.

*«Sarian zun zun,
sarian zun zun,
sarian zun zun zena,
laun kirinkun,
laun kirinkun,
laun kirinkun lena.»*

Isildu eta gelditu egin dira. Izan ere, turuta eta txapligu-hotsa da kanpoan; kantu-hotsa ere bai.

*«Gazte gera gazte,
ta ez gaude konforme;
mundu garbiago bat
bizi nahi genduke...»*

Gazte talde bat dator sorgin-kobarantz, eskuzuzien argitan.

Akerbeltzek eta sorginak (oso izutiak baitira) ihesari ematen diote, eta ilunetan galtzen dira.

Heldu da gazte taldea kobara. Berrogeita hamarren bat izango dira, neska ta mutil. Kolore bizi ta nabardun arropa zaharrez jantzita dagoz gehienak. Sasoiko batzuk ere ageri dira haien artean.

Kobara sartu, ta lehenengo ta behin su haundi bat egiten dute; gero, haren inguruan eseri; eta berehalaxe, ukabilak jasorik, herri-eresi zahar berritu bat abesten dute ozenki.

*«Jarri dezagun / erdi-minetan / gure mende;
ikus dezagun / kultura baten / bir-jaiotze.*

Urtarrila hotza / neguaren bihotza.
Pobrearen oinean / beti arantza.
Lehen hala / orain hola / gero ez jakin nola.
Azerikumea / azeri.
Erroiaren arrautzak / usakumerik ez.
Betiko itoginak / harriari zuloa.

Jarri dezagun...
Usteak / alde erdia ustel.
Balizko olak / burdinarik ez.
Onak on direla / hobeak hobe.
Etorkizuna / kontakizuna.

Jarri dezagun...»

Berehalaxe, zutitu egiten da gazte bat, hogeita hiru urte alde-
ra izango dituen mutil bat, buruhaundi txatxar bat, eta, hitzaldi
bat egiten hasten da.

—Eguzkiaren jaiotze egun honetan hemen bildu zareten adis-
kideok: Gora gu ta gutarrak!

—Gora! —erantzuten diote danak.

—Burusagiek, haundikiek, jauntxoek, ugazabek, jabeek,
nagusiek, aberatsek eta gainerako boteretsu guztiek zorabiatu,
azpiratu, zapaldu, alienatu, esplotatu, ezereztu egin gaituzte beren
aginpidez, indarrez, diruz, jakituriaz, erlijioz...

Txaloak. Bitartean, ardo pixka bat edaten du hizlariak zaha-
to haundi batetik. Gero, aurrera jarraitzen du hitzaldia egiten.

—Adiskideok: marioneta batzuk bezala erabiltzen gaituzte.
Ez al zarete konturatu? Begira: obediencia, apaltasuna, eroape-
na, otoiiza, lana, lana, lana eskatzen edo esijitzen digute eta,
horren orde, geroko bizitza zorionsua, zerua, zerua, zerua
eskaintzen digute. Bai: Jaungoikoa guretzat, jaunbehekoak
berentzat. Erlijioa herriaren opioa da, lo-erazle bat. Ez gaitezen,
bada, gizajo beldurti kokolo batzuk izan.

Txalo-hots itzela, esku-zarta etengabea.

Isiltzeko, mesedez, eskatzen die bizartsu batek. Eta isildu egiten dira. Orduan, zutitu egiten da betaurreko beltzdun bat eta bertso batekin erantzuten dio hizlariari.

*«Paradisua mundu honetan
egiteko ahalegina:
konsolagarri liteke, hizlari,
gizasemeak ez bagina.
Zer da bizitza? Zer da gizona?
Ez al da alperreko grina...?
Ezti izango dugulakotan
beti edaten ospina...
Nortzuk gara gu? Zertzuk gara gu?
Ez al gara amets ezina?»*

Bertsolari eskolatua hauxe! Buruz ikasitako bertsoren bat izango da, Ekidazuko esistentzialistaren batek asmatutakoa edo. Dena dela, eztabaida sortu du. Hizlaria eta bertsolaria ari dira eztabaidaka. Ez, biak bakarrik ez; entzuleek ere parte hartzen dute orain, eta geroago ta biziago, beroago, gogorrago, zarata-tsuago egiten da eztabaida.

—Baina zer dela-ta hori...?

—Ez duzu arrazoirik!

—Gezurra da hori!

—Egia da!

—Zera da!

—Bada!

—Ez da!

—Zerak dio...

Halako batean, isiltzeko agintzen die sasoiko morrosko batek. Eta jabeak isiltzeko agindu dion txakur zaunkalaria bezala, isildu egiten dira. Eta hitzaldi bat egiten hasten da morrosko hau ere.

—Baina zergaitik ari gara eztabaidaka alperrik? Ez, al daki-zue zuok hau: sena haundi, buruhausteak haundi? Edo beste hau:

jakintza asko, atsekabea ere ugari? Eguzkipean egiten den guztia aztertu dut, eta hara: dena huts eta gogoaren dordoa; okerra ezin zuzendu eta hutsa ezin zenbatu. Zer izan zen? Izango dena bera. Zer egin zen? Egingo dena bera. Eguzkipean herririk ezer ere ez da...

—Zu, ondo dago hori ta egia izango da; baina lehen ere sermoirik asko entzunak gara —ihardesten dio entzule batek eta eten egiten dio hitzaldia.

—Parkatu. Baina entzun, mesedez. Zapaltzaileen eskuetan dago indarra, ahalmena, eta zapalduak poztu ditzakeenik gabe, zer egin eta zertarako urduritu, estutu? Eguzkipean dena egiten da bere aldian. Jaiotzeko eta hiltzeko aldia dagoz. Landatzeko aroa eta landareak biltzeko eguna. Erailtzeko ordua eta sendatzeko aldia. Iraultzeko garaia eta eraikitzeko aukera. Negar eguna eta barre eguna. Erosta aldia eta dantza aldia. Laztan giroa eta laztanak uztekoa. Bila ibiltzeko mugona eta galtzeko zoritxarra. Zaintzeko denbora eta jaurtikitzeko denbora; urratzeko eta josteko, isilik egoteko eta mintzatzeko, maite izateko eta gorrotatzeko. Gudarako aldia eta bakerako aldia... Eta orain, Urteberri egun honetan, jateko eta edateko aldia. Hitz bitan esanda, jolaserako aldia. Jan ta edan dezagun, bada, bihar hilgo gara ta. Gora gu ta gutarrak!

—Gora!

—Gora gure eskubideak!

—Gora!

*«...gizonak daduzkan
eskubide horiek
kunplitu ditezen,
bihotzez abestu.
Ez noa inoren kontra,
egia maite dut,
egia maite dut.»*

Bukatu ziren eztabaidak. Motxilak zabaldu, ta janariak eta edariak ateratzen dituzte haietatik: mahats-pasak, intxaurrak, urrak, turroiak, koinaka, «whisky», eta ez dakit nik zer, gauza asko, drogaren batzuk ere bai agian.

Berehalaxe, mutil ta neska, bikoteka jartzen dira, eta jaten, edaten ta maitekiro ta laztankiro txerak egiten dihardue.

Beharbada ez nuen ongi ulertuko baina (hain zuzen ere, hizkuntza asko ditut buruan baina, bat bihotzean), greziatarren liburu batean irakurri nuen behinola hasieran ez zegoela munduan gizonezkorik ez andrazkorik, bien izatea batean zuten zer batzuk edo nor batzuk baizik. Lur eta Eguzkiren *seme-alabak* ziren *gizandreok*, eta ahal haundikoak omen ziren. Behin batean (zergaitik ez dut uste zekarrenik liburuak), arpegi eman eta aurka egin zieten Zeus eta beronen menpeko jainkotxoei, gogor egin ere. Baina behingo batean azpiratu zituen Zeusek. Eta, orduan, haserrez eta beldurrez, gizandreok erdibitzeko agindu zien Zeus indartsuak bere zerbitzari zintzoei, eta erdibitu ondoren, nahastu ta sakabanatzeko. Eta, esan ta egin, laster bete zuten jainkotxoek nagusiaren esana. Haatik, harrezkero, erdi bakoitza berari dagokion beste erdiaren bila dabil. Ipuin polita benetan.

Ekidazuko sorgin-koban ere, erdi bakoitza berari dagokion beste erdiaren bila dabil. Batzuek aurkitu dute falta izan zaien erdia. Edaria hartu dute beste batzuek erditzat. Bazter batean kantatzen ari den «*Sanyo*» ederrak ez du maitasun irritsik, baina maitasun giroa sortzen ari da.

*«Gazte geralako
maitasun batean
bizi nahi genduke...»*

Herio sartu da. Zer nahi ote du hemen? Begira-begira pixka batean egon ondoren, maitekeriaren munduan dagoen gazte talde honi jaramonik egin gabe, badoa bere bidean, nonbaitera. Ea nora doan...

Saltoka ta barre algaraka doa, arin joan ere. Olazaharrera ote doa? Bai, haraxe doa, zuzen-zuzen.

Gauontza uluka ari da etxe osteko arboladian. Olazaharko katua arpegia garbitzen sukaldean.

Don Jose apaiza ta Don Julian medikua Olazaharren dagoz. Juan errementaria bizirik dago oraindino, baina oso txarto.

Sudurrean hazkura dute Kelementek eta Kaxintok. Heriok, ostera, ez du hazkurarik.

Hirurak hogeita bost gutxiago dira Don Julianen eskumuturreko erlojuan. Don Joserren poltsikoko erlojuan hirurak hogeit gutxiago dira.

III

Basabilbeitiko etxejaunak Luis du izena; baina *Begioker* esaten diote ekidazuarrek (eta haserrez jartzen da Luis horregaitik). Goikoetxeko etxeoandreak Baldomera du izena; baina *Txepetxa* esaten diote (eta ez da haserretzen). Agarreko Agustini *Santuerdi* esaten diote (bere emazteak ere bai); Hormetxeko Mariari *Maripurtzil* (ongi ezarrirako ezizena, benetan); Denda-berriko Juani *Lukurreru*; Don Julian medikuari *Matasanos*; Don Jose zaharrari, apaizari, *Finisita*; Don German alkateari *Sasiendore...*

Izenak ezeze, abizenak ere aldatu egiten dituzte ekidazuarrek. Felix Larrauriri *Felix Asto* esaten diote (astakirten galanta da izan ere ta); Santi Meaberi *Santi Indianoa* (Ameriketan urte asko egin zituelako); Martzelino Gabilondori *Martzel Isko* (isko motelagoak egongo dira, batean bestean, bat baino gehiago); Alejandro Mantrolari *Alejandro Satorra*; Enrike Duori *Enrike Piper*; Pedro Zabalondori *Pedro Talo...*

Areago: etxeen izenak ere aldatu egiten dituzte ekidazuarrek. Usategiri *Lejarrene* esaten diote (*Lejarra Errementaria* bizi izan zelako han lehenago); «Gure kabi» herriko taberna zaharrari, *Batzoki* (bizkaitarren batzartokia izan zelako lehenago); «Peluquería Chomin»-i *Zorritzone* (jabearen ezizena *Zorritzto* delako). Eta abar eta abar.

Haatik, Botxoako «Alaska Club» zoragarriari ere *Zirritoki* esaten diote ekidazuarrek.

Botxoaren bihotzean dago Zirritoki jolastokia, kalerik zabalenaren eta ederrenaren erdian. Argi eta poster nabarmenez beterik izaten ditu kanpoko aldeko paretak, eta argi gorri, zuri ta berdez idatzi dute jolastokiaren izena: *Alaska Club*. Eta igande ta jaiegunetan, oraingo dantza bat egiten ibiltzen da izen hori, musikaririk gabe.

Gazte asko joaten da Ekidazutik ere Botxoako jolastoki horretara. Izan ere, ordu laurenean egiten da autoz, Ekidazutik Botxora hamar kilometro baitagoz, gutxi gorabehera.

Ekidazuarra da, gainera, Zirritokiren ugazaba: Don Gregorio.

Hamazortzi urte zituelarik, bere aitaren adiskide baten jolastokira joan zen Don Gregorio kamareru (Gergorio zen aldi hartan). Hantxe ibili zen hamar urte inguruan (Gregorio zen orduan). Gero, bere aitaren pinudiak egindako diruaz ta berak aurreratu zuenaz, Zirritoki erosi zuen, ta aberastu egin zen (harrezkero Don Gregorio da).

Zorri hil biztua da Don Gregorio (lehen bezala, *Harro* esaten diote orain ere ekidazuarrek). Eta zorri hil biztua baino piztia txarragorik ez dago, nire adiskide batek esaten duenez. Aberats berria, herri-filosofo zakarra ta harroa, sasi-jakituna dugu, eta mundu haundiko gizona dela esaten du berak, Frantziatik, Italiatik, Alemaniatik eta Alaskatik ere ibilia delako (eskoletan egoten dira batzuetan mandeuliak ere, baina ez dute ezer ikasten). Politikaz liberala dela esaten du, baina bere antzeko beste askoren antzera, gerritik behera bakarrik da liberala; haren politika: eguzkia nora, zapiak hara. Erljioz, jakina, katolikoa da izenez (Ekidazuko Don Jose zaharrak bataiatu zuen eta); baina izanez katilukoa. Haren ustez, mundu hau tripak eta tripapekoak darabilte.

Ezkontzeko era asko izan ditu baina, ez du nahi ezkontzarik. Mutilzahartzen hasita zegoela-ta, ea zergaitik ez zen ezkontzen galdetu zion lehengo batean bere adiskide batek.

—Ezkondu? Taxiak dagozen artean, zertarako autoa erosi?

—Bai baina...

—«Bai baina», zer? Aspertu, gogaitu egiten da bat egun guzti-guztietan jateko berdina jaten. Angulak eta kabiarrak eta txanpanak ere higuina ematen dute egunero janez gero...

—Baina beti ez zara gazte egongo. Zahar egin zaitezenean..., orduan zer?

—Dirua euki ezkerero, dirubako zahar ezkonduak baino hobeto orduan ere. Eta zahar egin artean edo ahal dudan artean: ondo jan ta ondo ibili, «lo bailau, bailau», gero gerokoak.

Eguberrietan, Gabon zahar egunez (gauez) batez ere, jendez gainezka egoten da Zirritoki. Eta hango soinu, kantu, dantza, edari, barre-algara, esku-zarta, eupada, zirri ta mila kolorezko argi, jantzi ta suge-paperek ez dute azkenik izaten. Hantxe egoten da gure gaurko gazteria ere, gazteria berrizalea.

*«Herri ta herrixka, baserri, kale,
aldatur doaz urterik urte,
baina gaztedi berrizalea
zabarra denik inork ez uste...»*

Olazaharko Koldo ta beronen lagunak ere Zirritokira joan dira lehen.

Larrabeheko Pedro Mariren auto berrian joan dira. Eta hara heldutean, jolastoki inguruko kaleak autoz beterik egon dira. Eta handik ehun metrora dagoen kale estu batean aurkitu dute apartatzeko lekua.

Apartatzean, aurreko autoa jo du Pedro Marik, eta haren barruan bat eginda zegoen bikotea banatu egin da. Koldo ta ez dira konturatu baina, Paulin Enekonekoa izan da mutila; neska..., batek badaki!

Koldo ta autotik jaitsi direneko, nola ta nondik ez dakitela, hamarren bat gizon agertu zaizkie; Don Trifonen zerbitzariak izan dira haiek ere.

—Tar ma la de, cal al de la sa go?

—Dapon Jopu res, caba lalo quin con?

—Dosi musa troso con de la que con?

Ez diete ezer ihardetsi Koldok eta.

Inauteriak ez direla-ta, arpegietako karatulak kentzeko agindu die mutiloi, orduan, haietako batek. Baina Koldok, Pedro Marik, Patxik eta Santik ez dute mogimenturik egin; geldi ta mutu egon dira mozorroak kendu gabe.

Mozorroak nahi ta nahi ez kendu gura izan dizkiete, gero, haiek. Baina bati ere ezin kendu izan diote. Berak nahi izan ezik ez da erraza, izan ere, bati mozorroa kentzea.

Orduan, berehala, esposatu egin dituzte mutilok (emakumerik gabe, jakina), eta auto beltz itsusi batera sartu, ta nonbaitera eramán dituzte, arineketan.

Don Trifonen zerbitzarien autoak alde egin duenean, ihes egin du Enekoneko Paulinek ere, neska bertan behera utzita.

Holako edo halako mozorroz jantzirik ibiltzen gara gehienok baina, inori barre egitea errazena da ta, Koldori ta beronen lagunei barre egiten diete mozorroekin ibiltzen direlako: gaizki esan ere bai batzuek. Baina, hala ere, esamesei jaramonik egin gabe, Koldo ta mozorroz jantzita ateratzen dira nonbaitera doazenean.

—Moda kontuak! —esaten dute batzuek.

—Moda kontuak? Ibili beharra —erantzuten du Koldok.

Zirritokikoek ez dakite zer gertatu zaien Ekidazuko mutiloi. Ez dira konturatu, eta gaztetasunak, musikak eta edariak eragirik, dantzan ari dira, nahiz ta goizaldeko hirurak izan; eta ahal balute, luzatu egingo lukete gaua. Don Gregorio bera ere dantzan dabil hiru-lau neska gangarren erdian.

Koldo, Pedro Mari, Patxi ta Santi ere, honezkero, dantzan ibiliko dira ilunaren eta beldurraren jolastokiren batean.

«Itziarren semea:

hori duk mutila...»

Herio ere dantzan ari da Olazaharko etxe aurrean. Erregekoroi bat du buruan, liburu bat eskuan, eta «Ukabilkarién dantza» egiten ari da, burrukarako prestamenak egiten.

*«Heriotza, bizitzaren
maisu jakintsua,
munduko nagusi zaharra,
errege ahaltzua.»*

Herio pozik dago Olazaharko Juan hil aginean dagoelako. Izan ere, ez du luzarorako bizirik Olazaharko etxejaunak. Koldok behintzat ez du bizirik ikusiko bere aita; hilda ere ez, agian.

Gauean Zirritokira zihoala esan zionean Koldok Juani, atzo arratsaldean, bekokia astun ipini zion honek hari.

—Holako egun batean ez da inor ere etxetik kanpora joaten; ordu horretan gainera.

—Gabon egunez ez da inor ere joaten, aita, baina Gabonzahar egunez beterik egoten da Zirritoki.

—Berdin da. Ganorabakokeriak baino besterik ez da ikasten holako toki ganorabakoetan.

—Zuk zer dakizu, ba, aita?

—Jakin? Jakinda dago hori. Joan behar haundiren bat izan ezik, ez dakit nik zertarako...

—Larrabeheko Pedro Mari, Alekerriko Patxi ta Basabilbasoko Santi, lauok goaz.

—Bai, joan, ibili, ikusi, ekin...

—Hori, ba! Gaurko gazteok o..., eskola haundia, dirua parra-parra, lujua, banketa banketaren gainean eta ez dakit nik zer; baina... —esan zuen albotik Eskolastikak isilik egon ezinda.

—Zu, ama, zagoz isilik, mesedez! —esan zion Juanek.

—Gauak begiak beltz, egunak argi. Gaueko lana, egunez ageri. Gaua lo egiteko da; bestela: ibiltari gauean, logura goizean —berriz Eskolastikak.

—Zuen gazte denboratik hona euri asko egin du, aita.

—Euria ta elurra ere bai baina, gizona beti gizon. Begira, Koldo: Jainkoak egin balitu *herramienta* horiek etxean uzteko bai, orduan bai; baina aldean eraman behar dira, ta...

Benetan ibili arren ere, barregarrikeriaren bat esan gabe ezin egon Juan. Baina orain ez du gizajoak xelebrequeriarik esateko edo egiteko gogorik.

—Anitz xelebrequeria esan ta egin du beronen bizitzan baina... —dio bere artean Don Jose zaharrak, erdi zabalik euki duen sota-na tximurtsua ta ugertsua estutuz.

Juanen ohe adarrean eserita dago Don Jose, eta haren xelebrequeria bat datorkio gogora:

“Ekidazuko eliza barriztatu zenean izan zen. Pulpitua alperreko traste zahar bat zela-ta, kendu egin behar zela-ta, eztabaidaka ibili ondoren, botatzea erabaki zen.

—Bota baino lehen, Juan Errementariak egin dezala azkenengo sermoia pulpitutik —esan zuen, halako batean han zegoen batek.

—Bai, bai! Hori, hori! —erantzun zioten pozik besteek, Juanek barregarrikeriaren bat egingo zuela jakinik.

—Berorrek utziko balit, egin ere igual nik —esan zion, orduan, Juanek Don Jose zaharrari, Finisitari.

Berehala eman zion baimena Finisitak. Nola ez, bada! Eta pulpitura igo ta predikatzen hasi zen Ekidazuko sermolari berria.

—Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Nire entzule bihotz-bihotzekook: *Sikubita, finisita..., finisita*. Nolako bizitza, halako heriotza. Pekatari haundi batzuk zarete zuok, eta damurik ez baduzue, inpernura joango zarete zuok. Ai, zuok pekatariok, pekatari errukarriok! Galduek zarete zuok. Zuok pekatariok, zuok, zuok...”

Herio sartu da Juanen gelara. Aitzinez aitzin du orain, Juanek hura, eta ezagutu ere laster ezagutu du, eta inoiz ez lako ikara haundi bat sartu zaio noiz geldituko duen bihotzera. Baina derri-gorrrak eraginda, gela hertsu txiki batean erasoka darabilten kantu batek bezala, hortzak eta ukabilak estuturik, arpegi eman ta gogor egiten dio Heriori.

Lehenbizi, ohetik jaiki egiten da, eta Heriorengana doa zuzen; eta Jesus ta amen esan orduko kentzen dizkio soingainekoak hari;

errege-koroia ta liburua ere bai. Gero, agudo, dozena erdi ukabilkada ematen dizkio saihets hezurretan, ta behera botatzen du.

Hezur-hots izugarria entzuten da.

Orduan, buztana atzeko hanka bien erdian sarturik ihesari ematen dion txakurra bezala, ohepera sartzten da Herio maltzurra. Juan ere bai.

Ohepean ari dira, burrukan orain, eta altxatu egiten dute ohea, ta dantzan hasten da hau: «Txalupa-dantza» egiten.

Azpiratu du ia Herio Juanek. Baina honek sudur zuloetan sartzten dizkio hari esku ezkerreko behatzak, eta ahoan eskuiko ukabila. Ezin du arnasarik hartu Juanek, ta estu ta larri dago, ito aginean; indarka batean ari da baina, galdu ditu indarrak; nekatuta dago eta dardarazko keinuak egiten ditu; arpegia gorritu ta hazi egin zaio, begiak irten nahirik ditu, sudur zuloetatik odola dariola dago.

Juan azpiratu du, orain, Heriok, eta haren sudur zuloetatik eta ahotik eskuak kendu, ta muturreko haundi bat ematen dio hari.

Eskuak eta hankak izoztu egin zaizkio Juani. Arnasarik gabe dago, hilotz. Hil da Juan Errementaria: Balbeak jo du.

Narraz ateratzen du Heriok Juanen gorpua ohpetik, eta ohe gainera jaurtikitzen du. Eta *kar kar kar* eta *kir kir kir*, dantzan hasten da. Baina berehalaxe uxatzen du Don Josek.

«Ustelkar hau, gordin ta hilkor hau, bizkor bihurtutakoan, berriz, orduan beteko da idatzitako hau: «Heriotza garaipenak irentsi du. Non duk, Herio, hire garaipena? Non, Herio, hire eztena?»»

—Guztiok ditugu geure zertxoak baina, gizon ona izan da Juan benetan. Jainkoak zeruetan euki dezala! —dio bere baitan Enekoneko Pedrok.

—Aita! Aita! —esaten dio deiadarka Amaiak bere aitaren gorpuari, begi eder biak bi iturri dituelarik.

—Gizajoa! —dio Klaudiok.

—Hiltzea nahi ta nahiezkoa dugu ta... —dio auzoko Mariak.

—Ekidazuko gizon xeblebre ta on bat hil zaigu. Agur, Juan, Juan barregarri. Otoitz bat eta gero arte —egiten du Don Jose apaizak.

—Si hubiese tenido más cultura, Juan habría sido un gran hombre. Es una pena —dio Don Julian medikuak.

—Gure aita zeruetan zarana... —errezatzen du Eskolastikak.

Juanek berak zer ote dio? Aingeruekin dantzan ibiliko da seguru asko.

Dantzan ibiliko dira Zirritokin ere oraindino, dudarik gabe. Dantzan sorginak ere Iguriako errotan.

*«Iguriako errotan,
ehundaka sorgin gauean;
Iguriako errotan,
dantza-dantzari kantetan.»*

Dantzan ibiliko dira nonbaiten Koldo, Pedro Mari, Patxi ta Santi. Dantzan dabil Amaiaren sabeleko umea ere.

Dantzan ari da haizea kanpoan, eta leihoetako kristalak ere dantzan jartzen ditu noizean behin.

Zenbat dantza ezberdin!

Nik ez dut dantzarako gogorik. Izan ere, mutilzahartu ezkerro, parkatu, iratxozahartu ezkerro, hebaindu egiten da dantzarako zaletasuna, grina, eta trebetasuna ere bai. Eta ni iratxozahartuta nago aspaldidanik.

Ezkondu nahi izan nuen baina, ez zidaten utzi nire anaiek.

Iratxozahar izateak baditu bere alde onak ere izan, esate baterako: askatasuna. Baina emazte baten adiskidetasuna eta seme-alaben adiskidetasuna ere gauza ederra izango dela uste dut gure maitasun egarria pixka bat asetzeko. Bai? Dena dela, nolako edo halako adiskidetasuna preminazkoa dugu eta bizi-poz haundi bat ematen digu baina, gure izatearen eta nortasunaren muinera jo ezkerro, bakarrik bizi gara adiskideen artean.

Nik ez dut, ba, dantzarako gogorik. Ni idazten ari naiz, idazten eta kantatzen gau ilunaren isiltasunean eta bakardadean.

*«Ai, gaua, zer duzu,
zer duzu isiltasunean?»*

*Triste jartzen duzu bihotza,
iluntzen dizkiguzu begiak bakardadean.
Haizeak negar egiten du,
itsasoa mutu gelditzen da zu etortzean...*

*Ai, gaua, zer duzu,
zer duzu isiltasunean?»*

*Zuk oroiarazten duzu
gu bizi garen mundu hau ere iluna dela.
Beldur, gorroto, gaiztakeria,
ta injustizia triste asko, bai, badirela...*

Ai, gaua...»

IV

Kixmi etorri zenean galdu ginela gu esan ohi da. Eta egia da, hainbat iratxo galdu baitziren orduan. Baina *Kixmirenganatu* ta *kixmitar* egin ginenok ez ginen galdu.

Iskiloetako arma-fabrikak egin zituztenean hil gintuztela ere esan ohi da. Baita basoak garbitu zirenean suntsitu ginela ere.

Dena dela, *kixmitarrok* eta *kixmitar* ez direnak, bizirik gagoz oraindino iratxook. Bizirik gagoz, bai, eta bizirik egongo gara urte askotan oraindino. Ni bizi naizen artean bai behintzat.

Hegaztiak garela esaten dute batzuek. Besteek, suzkoak ditugula gorputzak. Txerri txikien antzekoak ere egingo gaituzte zenbaitzuek. Zuk zer?

Berdin zait, eta nahiz ta gure zertasuna ta nortasuna zein den jakin nahian gelditu zu, gauza bat esango dizut: Ez garela gaizkile. Jendea ikaratzea da gure gaitzik okerrena, eta ikaratiak direnak ikaratzen ditugu batez ere.

Idazten ari naizela esan dizut lehen. Eta esango didazu: «Idazten iratxo bat...? Ez nekien idazten zekitenik». Ez zagoz oker. Hain zuzen ere, analfabetoak izaten dira iratxorik gehienak, ez baitute ikastolarik. Baina ni autodidakta bat naiz.

Egia esan, gaztetan irakatsi zidaten zertxobait; baina gainerakoa bakar-bakarrik ikasi dut.

Fumalari amorratua naiz, nire aita izan zenaren antzera, eta idazteari utzi ta zigarro bat, basamahats aihen bat, erre dut atsedan pixka bat hartzeko ta erne egoteko. Izan ere, ordu askotan

itzarrik egon beharra dut gaur. Zergaitik? Begira: burrukalari iza-
tea, teman ibiltzea, trabesak egitea, geure odolean daramagu guk
iratxook eta, apustu bat egin nuen atzo nire adiskide batekin;
Nobela bat hogeita lau orduan baietz idatzi.

Nire aita zenak sarri esaten zidan hiru gauza egin behar nitue-
la iratxo jator bat izateko: landare bat landatu, liburu bat idatzi
ta seme bat izan. Ba, landare bat baino gehiago landatu ditut (nire
koba zuloaren aitzinean dagozen haritz tantaiak neuk landatuta-
koak dira); baina libururik ez dut idatzi oraindino (laster idatzi-
ko dut bat), eta semerik ere ez dut izan (baina izan nahi nuke).

Ez dut libururik idatzi oso alperra naizelako ta idazten errez-
tasunik ez dudalako. Eta nire alperkeria ta erreztasunik eza nire-
gandik jaurtikitzeko, postura hori egin nuen, bultzagarri izan
zekidan. Ehun basamahats aihen sorta irabazi edo galduko ditut.
Galdu ez, irabazi egingo ditut. Bai horixe!

Zigarroa erretzen nengoelarik, Gezalako nire iratxo laguna,
Urde, etorri zait.

—Baina zoratu egin zaik ala?

—Zer, ba?

—Ordu honetan idazten...?

—Apustu bat egin diat: Nobela bat hogeita lau orduan baietz
idatzi.

—Baina zenbat orrialdetako nobela?

—Ehun ta berrogeita hamar orrialde haundi izan behar ditik
gutxienez.

—Ta...?

—Ba...! Orri batzuk idatzi ditiat.

—Baina ba al dakik nobela bat idazten? Gauza zaila omen
duk hori.

—Hala duk.

—Nortzuk izan dituk maisu?

—Idazle zaharrak eta herria.

—Aurtengo «Txomin Agirre nobela saria» irabazi duenaren
nobela nabarmen hori irakurri duk?

- Lejarreneko Mikelena?
 —Bai.
 —Ez, oraindino ez.
 —Zein duk hire nobela horren gaia?
 —Dana: Ikusten eta entzuten eta sentitzen dudana kontatu.
 —Ba al dakik Olazaharko Juanena?
 —Bai. Oraintxe idatzi diat.
 —Eta Koldorena?
 —Bai.
 —Eta Gezalakoa?
 —Ez; zer gertatu duk han, bada?
 —Har itzak luma ta orriak eta hator azkar Gezalara.
 —Baina nire hegazkina...
 —Neure hegazkinean joango gaituk.

*«Gezala:
 mendiska baten hegala,
 itsasoaren magala.*

*Gezala:
 diruaren ahala,
 herri unibersala.*

*Gezala:
 iratxoan etsai zitala...»*

Behingo batean helduko gara Gezalara Urde ta ni. Hain zuzen ere, hamabost kilometro baino ez dagoz Ekidazutik hara.

—Itsas aldetik sartuko gaituk Gezalara, Urde?

—Bai.

—Mendiren bat jo edo, uretara jauzi edo, ez gaitezela egin, behinik behin.

—Ez.

—Kontuz bisutsarekin.

—Bai.

—Eta zera ere...

—Ez.

Txofer doanean, hitz gutxi egiten du Urdek.

Negu beltza ta gau beltza, dana beltza. Baina argi ona du Urderen hegazkinak. Neureak ere izan du lehentxoago arte baina, bateria gastatu edo, ez du argirik egiten orain.

—Urde!

—Ez hadi ikaratu, iratxo! Ikusten diat mendiska hori.

Gezalaren goienean dagoen mendiskaren gainetik goaz; lainozko txapela du ta ia ez da mendia bera ikusten.

Noizbehinka, elurrezko pinpilinpauza dantzariz betetzen da argia. Beherantz goaz orain, itsasorantz, arin joan ere. Hegazkina beherantz eta gu gorantz goazela dirudi; nire gorputzak gorantz egin nahi du, behintzat. Beldur naiz..., baina Urde gidari trebea da.

Lainozko estalki haundi bat jarri zaio itsasoari ere gaineko alde guztian, eta lehorpedun estadio batean nagoela iruditzen zait (sukartuta dago nire irudimena). Baga-zaldi indartsuak, ahoetatik bitsa dariela, lasterketa bat egiten ari dira. Oraintxe heldu dira batzuk metara baina eraman duten abiadaren abiadaz gelditu ezinik, aurreko haitz irme gogorra jo, ta birrindu, suntsitu egin dira.

Gezalan gagoz.

—Aiuntamentu aurreko plazan geldituko gaituk, Urde, ez?

—Bai.

Oraintsu eraikitako herri bat da Gezala, herri berri liluragarria, paradisu txikitxo bat.

Ekidazuarrek *Zazpiki* esaten diote Gezalari. Hain zuzen ere, zazpi kale luze ta zabal, zazpi plaza eder, zazpi parke apain, zazpi diru-etxe boteretsu, zazpi jolastoki atsegingarri, zazpi kafe-etxe lasai ta zazpi hotel ikusgarri ditu herriaren sabelean. Zazpiki bai baina, haundikien zazpikia da Gezala. Eta, badakizu, txikikien bederatzikiak baino ederragoak, osasuntsugoak eta majoagoak izaten dira haundikién zazpikiak.

Herri-bihotz ingurua, txalet eta apartamentu ederrez loretuta dago. Harrizkoak dira txaletik gehienak, baserri itxurakoak, oso

politik; eskudo harro bat dute beren kopetaren erdian; harri dotore horietan, uste haundiz gordetzen dute gezalatarrek asaben izen ta gomuta.

Gezala neguan Gezala izaten da. Udan, berriz, herri unibersala, turista asko joaten delako hara. Neguan hizkuntza bat entzuten da: espainola. Udan, ostera, anitz: frantsesa, alemana, ingelesa, italianoa, holandesa, espainola... Herri baketsua da Gezala neguan. Udaldian, ordea, hara atsedean hartzera joaten direnek ez dute baketan uzten.

Gaur oso baketsu dago, itxura batean. Kaleetan ez da inor ageri. Aiuntamentu aurreko plaza zabala ere huts-hutsik dago. Laurak eta bost dira hango erlojuan.

Gizon bat dago arkupetan, geldi-geldi ta haserre itxuraz, gabardina zurizka baten barruan. Txakur urdin-nabar haundi itsusi bat ageri da haren ondoan bere mihin luze ta hortz luze ta zorrotzak gorabeheraka dituelarik.

—Jantzi mozorro hau, badaezpada —esaten dit Urdek, eta zezen-txakurraren irudia duen karatula bat ematen dit jazteko.

Urdek berak ere berdintsu bat jazten du.

Beste gizon bat dator. Arkupetan dagoen gizonarengana hurbiltzen da.

—Agertu al da Jopu? —galdetzen dio.

Gezalako kaleak hutsik dagoz, baina argitan. Argitan dagoz etxeetako leiho guztiak ere.

Txakur zaunka-hots izugarria entzuten da, orain, alde guztietatik. Txakurrok basurderen baten atzetik dabiltzala dirudi. Berba-hotsa entzuten da. Zer jazotzen ote da?

Isiltzeko agindu die txakurrei norbaitek. Berehalaxe isildu dira. Deika dihardu, orain, beste norbaitek.

—Jopuuu...u! Jopuuuu...u! Jopuuuuu...u!

—Jopuuu...u! Jopuuuu...u! Jopuuuuu...u! —erantzuten du oihartzunak.

Gezalako jauntxo baten txakurra da Jopu, txakurren erregetxoaren txakurra, Don Trifonen txakurra.

Hondartza luze ta zabalaren goieneko txalet batean bizi da Don Trifon edo *Txarlin* (ekidazuarrek ezarritako gaitzizena). Gezalako bertako andre aberats batekin ezkondu da. Ez dute seme-alabarik. Txakurrak dira haien seme-alaba ordeak.

Ekidazun jaioa da Don Trifon, baina txikitan bere gurasoekin honera etorria. Berrogeita hamar urte inguru da etorri zela. Txakurtxiki asko barik etorri zen; baina txakurraundi asko irabazi zituen bere txakurrekin, eta gaur guztiz aberastuta dago eta zenbat diruren jabe den ere ez daki.

Medikua da Don Trifon. Baina karrera bukatu ta berehalaxe utzi zion medikuntzari, ta txakurrak hezitzen saiatu zen, bere ametsik haundiena egia bihurtarazten.

Beti izan da txakur zalea Don Trifon. Oraindino hamar urte ez zituelarik, bezatu, domestikatu egin zuen arratoi txakur bat: *Lau*. Lauk eraman ta ekartzen zizkion eskola-liburuak; Lauk ekartzen zuen egunero periodikua trenaren estaziotik etxera; errekaduak Lauk egiten zituen. Futboleak jokatzen ere irakatsi zion Don Trifonek Lauri.

Hamar txakur zituen Don Trifonek Gezalara etorri zenean bizitzera. Hamar bakarrik zituen baina, hoguei ere izango zituen berak nahi izan balu. Izan ere, seme bakarra zen Trifontxo eta modu haundikoa bere aita; ta, jakina, semeak hau edo hori eskatu, aitak hau ta hori ta hura eman.

Mediku karrera amaitu zuenean, ehunen bat txakur zituen. Eta handik urte bira, ezkondu zenean, berrehun baino gehiago.

Don Trifonen gogo ta lehiarik haundiena hauxe izan zen: Txakurrei hitz egiten irakastea, berba eginaraztea. Eta urteak joan eta urteak etorri, ekin ta ekin, zerbait lortu zuen.

Lehenengo ta behin, munduko txakur guztiok erosi zituen eta Ekidazun bere gurasoen lurraldeetan eraiki zuen granja ikusgarrian sartu. Gero, hara ekarri zituen munduko albaiteku ta txakur domestikatuzailerik onenak. Eta, behingo batean, mundu guztiko txakur granjarik haundiena ta onena bihurtu zen Ekidazuko granja.

Han egozan munduko txakurrik haundienak eta txikienak, politenak eta itsusienak; erneenak, bizkorrenak, argienak eta kankailenak, moldakaitzenak, baldarrenak; kolore guztietako txakurrak, lodi ta txukun danak. Han zegoen San Bernardo txakurrak, Alaska txakurrak, dalmatak, zezen txakurrak, erbi txakurrak, kanitxeak, artzain txakurrak, arratoi txakurrak, pomeranioak, pekindarrak, eper txakurrak, txalin txakurrak, ur txakurrak, «*boxers*», «*fox*», «*basset*», eta abar eta abar.

Aldi hartan, granja barruan sartuta egoten zen beti Don Trifon. Eta bere (diru, entzute, indar ta esku luzearen) zerbitzari zintzo ta jakintsuen gidaritza ta laguntzaz, bastartu, arremetu egiten zituen txakurrak, naturalki eta artifizialki. Eta nahastu ta elkartu, esperimentu anitz egin ondoren, txakur erraza berri bat sortu zuen: zezen txakurraren antzeko urdinabar koloreko txakur bat.

Lehenbizi, pozaren pozez zer egin ez zekielarik, izena ezarri zion txakur kasta berri hari: *txifa txakurrak* (hitz egin nahirik edo, *txifa!*, *txifa!* egin zuelako lehenengoak jaio zenean). Gero, berehalaxe, domestikatzaileei eraman zien albait arimen domestikatu zezaten. Eta laster ikusi zuten haiek berebiziko txakur kasta zela horretarako. Hain zuzen ere, irakasten zitzaion guztia ikasten zuen eta behingoan gainera. Hitz egiten ez zuen, horregaitino, ikasi; baina ulertu dena egiten zuen.

Beste txakur guztiak saldu edo eman, ta, aurrerantzean, txifa txakurrak sortarazten eta hazten ekin zion Don Trifonek. Eta, urte gutxitan, entzutetsua egin zen mundu guztian.

Don Trifonen irudia (txifa txakur bat besartean zuelarik) mundu guztiko periodiku ta aldizkarietan agertu zen, eta lehenengo orrialdeetan.

—Txoriburu harro bat zela-ta, Txarlinek ez zuela ezer lortuko txakur granjarekin baina, ibili ta ibili, zerbait egin du —esaten zuten harrituta ekidazuarrek.

Handik lasterrera, bazter guztietatik eskatu zizkioten txifa txakur horiek. Haundiagotu egin behar izan zuen granja, zerbi-

tzari gehiago ekarri... Eta hiru-lau urte barruan diruz josita zegoen.

Txifa txakur horietako bat, Jopu, maite-maite du Don Trifonek. Bere seme bat balitz ere ez luke maiteago izango. Bere ondoran erabiltzen du beti, autoan doanean ere bai. Txifa txakurretan apartekoa omen da Jopu: bizkorrena, leialena, ederrena... Behin batean, ehun mila dolar eskaini zizkion Jopugatik Ameriketako atso neskazahar batek. Baina ez zion saldu Don Trifonek. Saldu? Ezta etxe bete urregaitik ere!

Jopu saltzerik ez du nahi baina, Jopu barik dago orain, eta horregaitik ari da Jopuri deika Gezalako kaleetan.

Atzo iluntzean, Jopu «Mercedes» gorrian erdi lo utzi ta estanko batera sartu zen tabakoa eroatera. Bosten bat minutu egingo zituen estankoa; eta bitartean ostu egin zioten bere txakur maitea. Berriz autora sartu zenean, tarjeta bat bakarrik aurkitu zuen Jopuren jarlekuan.

«Don Trifon: Badaramagu Jopu. Zure txakur famatu hau berriz bizirik ikustea nahi baldin baduzu, zatoz bakarrik, inori ezer esan barik, bihar, Urteberri iluntzean, zortzietan, Gezalako hondartzako haitzetara, eta ekarri itzazu hamar milioi pezeta (ez da asko zuretzat) edo horren baloreko txeke bat.

Gure esana zeharo beteko duzulakoan, bihar iluntzera arte, Don Trifon.

A. eta K.»

Burusoila da Don Trifon; baina bere buru biribilaren gainean dituen ile banakak zutik jarri zitzaizkion hori irakurri zuenean. Eta, haserre bizitan, autoko telefonoa hartu ta bere zerbitzariari egin zien dei lehenbizi; gero, bere etxera deitu zuen; ondoren aiuntamentura (han ez zen inor egon); berehalaxe, Ekidazuko granjara. Eta etxera joan zen bere bihotza ta mihina sutan zituelarik.

Goizaldéko lau t'erdia dira baina, ez du afaldu oraindino Don Trifonek. Zerbait hartzeko esan dio bere emazteak, baina alperrik. Jopu aurkitu arte ez du goserik.

Gezalatarrek ere ez dute afaldu, eserita ez, behintzat. Izan ere, atzo gaueko bederatzietatik hasita, Don Trifon, beronen zerbitzariak, herriko aguazilak eta txifa txakur talde haundi bat etxeriketxe dabilta lapurren bila.

Honezkero, etxerik gehienak arakatuko zituzten. Baina ez dute, oraindino, txakur-lapurrik topatu. Ustegabeko lapur txiki ta lege-hausle asko bai. Jakina: eltxoak, euliak eta holako mamorro txikiak harrapatzen ditu armiarma sareak; baina mando euli, listor, erlabio ta holakorik ez.

—Nire Jopu gizajoa! Nire Jopu kupigarria non ote da? Bizirik al da? Ai, ene! Ene errukarria! Ene bada ta ni! —esaten du noiz-behinka negarrez Don Trifonek, etxerik-etxe Jopuren bila izerditan dabilen bitartean.

—Andoni alua! —esaten dute zerbitzari lausengariak.

—Andoni alua, bai! —esan du Don Trifonen emazteak— Andoni zantarra! Andoni gaitztoa! Hura izango zen lapurra... Bera izan da, bai, dudarik gabe. Nora sartu ote da? Egon hemen egongo da nonbaiten. Ekidazuko Koldok deus ere ez dakiela esan omen du baina, gezurra da hori. Andoni ta Koldo biak izango ziren seguru asko.

Olazaharko Koldoren adiskide kutun bat da Andoni, hura baino hiru urte gazteagoa. Gezala eraiki baino lehenagotik hemen bizi zen arrantzale baten semea da. Albaiteru karrera ikasten egin zituen urte batzuk, Don Trifonek ordainduta. Baina aspertu egin zen, eta albaiterutza bertan behera utzi ta ofizinista bezala sartu zen Ekidazuko granjan. Hantxe ezagutu zuen Koldo ta hantxe egin ziren adiskide.

Duelarik bi hilebete, huelga bat egin zuten granjako ofizinistek, Don Trifonek oso gutxi pagatzen zielako. Bostehun langile baino gehiago bildu ziren Don Trifonen despatxuko leiho zabalpean, eta iskanbila izugarria sortu zen.

—Andoni ta Koldo izango ziren nahaste ta zalaparta hau asmatu dutenak. Iraultzaile gogaikarriok...! Zer nahi ote dute orain? —esan zuen bere baitan Don Trifonek.

Eta dirua ta koipekeria bitarteko zirelarik, gizonen eskubidei jaramonik egin gabe, legeak hautsi ta Andoni ta Koldo kanpora bota zituen txakurren erregetxoak.

Kanpora bota zituen; baina ez, horregaitio, besterik gabe. Andoni ta Koldo ez ziren isil-isilik joan. Horixe ez! Inon direnak eta ez direnak esan zizkioten Don Trifoni.

—Nolako gizona zaitugu zu, ba?

—Zer, ba?

—Zer, ba? «Zer, ba?» diozu oraindino? Zagoz isilik, hobe izango duzu ta, gizon gizajoen odola txupatzen zabiltzan esplotadore hori, gizonak baino txakurrak maiteago dituzun endekatu hori!

—Isilik ez bazagoze, kartzelara sartuko zaituet gero!

—Hori bai, horixe bai! Hori da, izan ere, arazoak kentzeko biderik errezena: indarraren arrazoa dutenen jokabidea. Eta zu, Don Trifon, boteretsua zara ta lagun boteretsu anitz dituzu, eta jakina: otsoak otsoari gaitzik ez, ta lapurrak lapurrari laztan. Danok gara berdintsuak, baina batzuk berdintsuagoak.

—Zoazte hemendik kanpora, mesedez!

—Sartuko gaituzu, bai, presondegi ilun batera, arratoi ta momorroekin bizi gaitezen han. Eta zu, lasai-lasai, txifa txakurrentzat bizileku eder ta dotoreak egiten ahaleginduko zara, gizonak baino maiteago dituzu ta...

—Alde hortik!

—Gero, elizan aurrengo egongo zara, santukeriak egiten, Don Trifon katolikoa ta ongilea guztiak ikus dezaten. Apaizei limosna haundiak emango dizkiezu, zure adiskide izan daitezen ta gizonen eskubide ta justizia ta holakorik aipatu ez dezaten beren sermoietan. Antikomunista amorratua izango zara zu, zure diruak beldurrik gabe gordetzeko edo gastatzeko zeuk nahi duzun modura...

—Utikan! Jopu! Bota kanpora hauek! Bota agudo, Jopu...!

—Ez uste, Txarlin, hau hola geldituko denik...

Azkenean, kendu zituen Don Trifonek bere begien bistatik Andoni ta Koldo, eta kartzelara sartu zituen hiru-lau egunerako.

*«Gizona preso daramate.
Zer esan du?
Zer egin du?
Justizia pixka bat
eskatu du.»*

Logura zela-ta, alde egin dit Urdek. Bakarrik nago orain aiuntamentu aurreko plazan. Bakarrik nago, baina Don Trifon ta beretarrak dagoz nire ondoan, atsedean pixka bat hartzen. Puzka ari dira. Ibilaldi haundia egin dute egin ere.

Andoniren aita ere hemen dago, harlosa busti ta hotzaren gainean etzanda, txifa txakur taldearen erdian. Nekatuta dago ta ubelduraz beterik, astindu egin dutelako.

Hamabietan joan dira Andoniren etxera. Izan ere, lapurrek Jopuren jarlekuan utzi duten tarjetako «A. eta K.» gogoratu zaizkio Don Trifoni.

—Bai ba! «A. eta K.» hauek Andoni ta Koldoren inzialak dira, seguru asko. Nola ez ote zait lehenago gogoratu? Goazen Andoniren etxera, eta zuok seirok auto bat hartu ta zoazte Koldoren etxera, Ekidazuko Olazaharrera. Ea, goazen arin.

Andoniren gurasoak eta arreba bakarrik topatu dituzte haren etxean, Andoni bera ez.

Andoni non zegoen galdetu die Don Trifonek haren gurasoei. Ez zekitela erantzun diote. Eta, orduan, etxe guztia arakatu dute Don Trifonek eta.

Nahi izan dutenik aurkitu ez dutenean, estu ta larri erabili dituzte Andoninekoak, haren aita batez ere. Gero, aita lotu ta berekin eraman dute txifa txakurren erdian, ta aurretik erabili dute.

*«Gizona zigorrez jo dute.
Zer esan du?
Zer egin du?
Seme jator bat izan du.»*

Guardasolpean, begiak eta erraiak erreta dituelarik, kafe beroa hartzen ari da Don Trifon. Txifa txakur taldea eta gainerako zerbitzariak, ugazabaren ordenen zain dagoz. Bostak eta bost dira aiuntamentuko erlojuan.

Begiak beheratzen hasi zaizkit eta banoa. Don Trifonek eta ere, bazterrik bazter gezalatarrei loa galerazten ibili barik, ohera joango balira hobe egingo lukete. Aho-zabalka ari dira gehienak. Aharrausi luzea, logura edo gosea.

Autoan ere ez naiz ibili aspaldion ta, han kale hartan dagoen «1500» urdina hartuko dut; edo, bestela, hor denda argitsu horren aurrean dagoen «124» zuria. Berdin zait.

«124» zuriak hertsirik ditu ateak eta leihatilak. «1500» urdinak, ordea, irekirik. Sar nadin barrura. Hau usain gozoa! Irratia Beethoven-en «*Hirugarren sinfonia*» jotzen ari da. Leiho batean dagoen katua, ostera, gitarra jotzen. Don Trifon beheak eta goiak jotzen.

V

Gaua gauezkoentzat esan ohi da. Baina gaua lakorik ez dago autoan ibiltzeko. Ni neu, behinik behin, ederki ibili naiz lehen Gezalan ostutako «1500» urdinean.

Azkar ibili naiz, azkar ibili beharra izan baitut. Ez dut eragozpen haundirik izan bideetan, eta izan ditudanak ere erraz pasatu ditut. Egunezko auto ibaietan igerian etorri beharra izan banu, laster harrapatuko ninduten Don Trifonek eta.

Izan ere, Gezalatik ateratzekoan, ikusi egin naute lapurketa-riek, eta nire atzetik etorri dira, Andoni nintzelakotan edo.

Autobide berrira jo dut eta Botxoarantz joan naiz, joan gara, hobeki esanda.

Nire atzetik etorri direnak, martxa militar bizkor bat jotzen etorri dira tiro eta autoen bozinaz.

Larogean, ehunean, ehun ta hogeian, ehun ta berrogeita hamarrean joan gara... Baina, halako batean, atzetik ezeze aurretik ere argi asko agertu zaizkit. Eta gelditzeko seinaleak egin dizkidate norbaitzuek. Baina, jakina, ni ez naiz gelditu. Azeleradorari sakatu ta aurrera egin dut.

Orduan, aurreko argiak alboratu egin dira ta tiroka hartu naute: Berehalaxe, nire autoa galbahe bihurtu da, baina niri ez didate ikuturik egin. Balekite nor naizen!

Botxoara iristean, kalerik kale ibili gara trafikoko seinaleei kasorik egin gabe. Baina olgetan-benetan, ni konturatu orduko, erdian hartu naute kale gurutze batean, eta nora ezean gelditu

naiz: argiak aurretik, argiak atzetik, argiak ezkerretatik, argiak eskuitatik, argiak alde guztietatik. Zer egin?

Denda batera sartu naiz auto ta guzti. Hango kristal-hotsak ez du azkenik izan, eta «nire» «1500» urdina «600» beltz bihurtu da.

Burdina bihur artetik irten, ta eskaparateko erloju haundi batean sartu naiz. Eta *tik tak* eta *tik tak*, erlojuaren fabrikan egon naiz apur batean. Berehala gelditu da, autoak eman dion mosu estuagaitik. Bost et'erdia izan dira.

Nire autoan (batek badauki norena den) eta erloju-dendan inor ere ikusi ez duenean, kalea akordonatzeko agindu du Don Trifonek. Eta nire bila (Andoniren bila) hasi dira. Horretan ibiliko direla uste dut oraindino ere, Botxoako etxe guztiak arakatu arte. Ez dute arazo makala hartu!

Erlojutik irten, ta Zirritokira joan naiz. Orduantxe atera dira azkenengo errondariak. Mozolu itxura zuten lau mutil izan dira. Esan ere *Mozolu* esaten diote haietako bati, bera aurrean ez dagoenean, jakina. Izengoitia ez dio esan baina, erdi hordituta egon den batek mozolua aipatu dio Mozoluri burlezar.

—Hi, Enrike: Mozolua ikusi duk?

—Heu haiz hi heu mozolurik asko, txatxar buruhaundi hori! —erantzun dio, berehalaxe, Mozoluk.

Baina ez dira haserretu, eta auto batera sartu ta albo-alboka, kaleak betean, umoretsu joan dira mutilok.

*«Asto guztiak ez dira goizetan ohean,
Purrutuneko mutila jeikia denean,
karrika guztia badauka marrumaz aidean;
Amikuzen sortua da Maiatzaren erdian.»*

Emekiro agertu du muturra ilargiak laino beltz baten ostetik. Eta kaleetako ur potxingo guztietara sartu da, eta dardarakada batzuk egiten izan ditu, noizean behin.

Muturra agertu du ilargiak eta Botxoa, hiriburu entzutetsua, egunez ta gauez argitan dagoen hiri zahar berritua, argiagotu egin du bere argi motelez.

Egunez baino ederrago ta politago egon da hiria. Zuhaitzak eta loreak, biluzik eta negarrez, bazter guztietan ageri izan dira. Zuhaitza eta lorea ehundaka, milaka, milioika.

Hiriaren altzotik doan eta datorren ibai barea (arrainen paradisua), ilargiarekin maiteminduta, maitekeriak egiten ari izan da. Eta amurraiak dantzan bere sabelean, baltseoan, ehundaka, milaka, milioika.

Kale zabal, eder, garbi ta txukunak, kolore askotako argiz apainduta egon dira, eta hizkuntza ulergaitz baten mailua eskue-tan zutelarik, mailuka ari izan dira denda berrien izenak.

—*Tirikitauka, Tauka, Tunga, Tenga, Traka, Truka; Troka, Kampsa, Kumpsa, Kimpsa...*

—*Talko, Tilki, Laka; Pertesa, Letesa, Oas, Usa, Urss, Sos...*

—*Danba, Dinba, Bimbo...*

Ia belarriak gortu egin dizkit elkarrizketa danbatsu nekagarri horrek.

Inorako presarik ere ez dut izan eta, poliki poliki, goizeko preskura hartuz, oinez etorri naiz Ekidazura, ibai hegaletik zehar.

Urteberri eguna izan arren, lanean ari izan dira fabrika batzuetan, eta haien tximinietatik zeruratzen izan den kea, beltza ta zikina, laino montorren magalpean ezkututzen izan da. Botxoako denden izenak ezeze, langileak ere mailu-hots etengabean ibili dira.

*«Lanaren menpean,
ekin eta ekin,
ari eta ari,
Matxinen durunda,
beti:
Danba, danba!
Lanaren hotsa,*

*mailu beroa,
ta laguntza
hotza.
Nork du beretzat oroitza?
Langile behartsuaren nekeak
beti
sari motza.
izakera latza...»*

Eztulka ta doministikunka hasi naiz orduan. Hogeigarren gizaldiko gizonak sortu duten ke giro hura kaltegarri izan zait.

Fabrika haiek Gezalan balegoz, kea lurpera joango litzake, dudarik gabe, hango aberatsen birikiak kedarrez bete ez daitezten. Pobrearen oinean beti arantzaren bat.

Atezain bat ikusi dut fabrika baten aurrean. Lasai hartzen izan du arnasa. Izan ere, ketan urteak egin ondoren, immunizatu egiten dira (birikak kedarrez gainezka dituztenean). Zorionekoa hura! Heriotza ere zorionsua izango du, noski! Haren izena, izen berri praktikoa, 5789 izan da. Haundia benetan haundikien jakite eta aurrerapidea!

*«Hau diagu
pobrearen jakitea:
lanegin, lanegin,
lanegin ta hiltzea.»*

Zazpirak izan dira Ekidazura heldu naizenean.

Musean ibili dira bi kanposantuan, hilobi baten gainean eserita. Karten ordeztuak erabili dituzte, eta buru-hezurak tantu orde.

Bi gizon edo bi gorpu-hezur haiek Unamuno ta Lizardi izan dira.

*—«Ordago = ahí está! tú quedas,
voz de una lengua que expira;*

*'órdago', trágico envido
de milenaria agonía...»*

*—«Baina nik, hizkuntza larreakoa,
nahi haunat ere noranahikoa:
jakite hegoak igoa,
soina zahar, berri gogoa,
azal horizta, muin betirakoa.»*

Oso galtzaile txarra da Unamuno (nor ez?), eta galtzen izan duenean, tranpak egiten izan ditu: tantu bat egin, bi kontatu ta hiru jaso.

Halako batean, haserreturik, ukabilkada bat eman dio bere ondoan euki duen kriseilu bati, ta apurtu egin du. Haragirik gabeko sudur gainean euki dituen betaurrekoak ere jausi egin zaizkio. Saguzaharrak ikaratu egin dira.

—Enbido haundia —Unamunok.

—Bi gehiago —Lizardik.

—Lau gehiago —Unamunok.

—Euki —Lizardik.

—Paso txikia —Unamunok.

—Enbido —Lizardik.

—Hiru gehiago —Unamunok.

—Ordago —Lizardik.

—Hiru gehiago —Unamunok.

—Ordago —Lizardik.

—Ez; jaso tantuak —Unamunok—. Pareak bai.

—Baita —Lizardik.

—Hogei —Unamunok.

—Ez dut nahi —Lizardik.

—Bai jokoa —Unamunok.

—Ederra —Lizardik.

—Mahaira —Unamunok.

—Bota —Lizardik.

Hogeita hamaika euki du Unamunok hiru erregerekin, eta eskutik gainera. Lizardik ere karta politak euki ditu: hiru zazpiko ta zaldi bat, hogeita hamaika erreala. Berez, Unamunorenak baino karta hobeak izan dira baina, bost kartara egiten denean («mus ilustratuan») bakarrik balio du hogeita hamaika errealak, bestelan ez.

Han urrunean, Don Trifonen granjan, txifa txakurren zaunkak entzuten izan dira, eta hil kanpaiak elizan.

Agure ta atso batzuk pasatu dira nire ondotik mezatarantz, eta elizara joan naiz ni ere.

VI

Erdi ilunetan dago Ekidazuko eliza, eta jende gutxi meza entzuten.

Don Jose zaharra sermoaginan ari da. Urteberriz sermoi luzea egiten du.

—...behin baino sarriagotan esan dizuet, anai-arreba maiteok, lau muturreko haundi hartzen ditugula gure bizitzan. Lehenengo muturrekoa haurtzaroan hartzen dugu, Erregenez, guri erregaluak ekarri dizkiguten erregeak nortzuk diren jakitean, gure amets gozo ta pozgarriek hegaz egiten dutenean. Bigarren muturrekoa ere (batzuek lehenago, beste batzuek geroago) haurtzaroan hartzen dugu: haurrak nondik eta nola datozen jakitean, begiak zabaltzen hasten garenean. Hirugarrena gaztetan edo sasoikoak garela hartzen dugu, gure bizitzaren sentiduaren kontzientzia izaten dugunean: zertarako nago ni hemen mundu honetan? Nora noa? Eta, azkenik, laugarren muturrekoa heriotza da. Hartu du Olazaharko Juanek laugarren muturreko hau. Baina horregaitik Ekidazun ez da inor bular-joka hasiko. Lehenago izan balitz bai. Lehenago euskaldunak eta fededunak izan ziren ekidazuarrak. Lehenago ekidazuar guztiak joaten ziren mezatarara, mutilzahar banaka batzuk edo izan ezik. Lehen, gaurko gazteek esaten dutenez, gogorkeria asko egongo ziren, siniskeria asko, santukeria asko, faltsokeria asko... Eta orain zer? Orain askekeria asko, maitekeria asko, alperreria asko, gizonkeria asko... Seigarren mandamentua izan zela lehen erlijioa? Eta orain zer? Ba al

dago seigarren mandamenturik? Non dira zentzuna ta neurria? Non, neure entzule bihotz-bihotzekook? Horrela ez dago zereginik, horrela galduak gara. Jaungoikoa bat, eta bera nahikoa. Jaungoikoa ez da aldatu. Eta sinestu edo ez sinestu, berak epaituko gaitu azken egunean. Aitaren / eta Semearen / eta Espiritu Santuaren / izenean / amen.

Trenaren txistu-hotsa entzun da Don Jose zaharrak, sermoia bukatzean, *Aitaren* egin ta esan duenean. Eta Errotaurreko Josepak ere *Aitaren* egin du, baina *Aitaren* berri bat esan du.

—Ene! / Gaur trena / berandu samar / doa / ba!

Joan ere berandu samar doa gaur zazpi t'erdietako trena, zortzirak jo baititu oraintxe puntuan elizako erlojuak.

Estaziora noa, Simonengana, haren berrikeriak entzutera. Gaur berri edo berrikeria asko izango ditu.

Eguzkia indarga ta nagi egoten da neguan, eta lo dago oraindino. Ekidazuko oilarrak dei ta dei dabilzkio, eta laster esnatuko da, laino mantak alde batera bota ondoren.

Ekidazu ilunaren ezerezean egon da orain arte; baina astiro astiro, egun sentiaren argitasun motelez, hasi da agertzen.

Gezalatik Botxoara doan trena pasatzen da Ekidazutik. Gel-ditokia herri-herrian dago, ta oso polita da; txalet bat dirudi.

Lehenago (Don Jose zaharraren antzera hitz egiten hasi ote naiz, bada?), Botxoan lan egiten zutenak, esne ta ortuariekin joaten zirenak, honetan edo horretan Botxoara joaten zirenak, trenez joaten ziren. Baina orain, kamioiak eta kotxeak ugaritu direnez gero, jende gutxi joaten da trenez. Dena dela, badabil oraindino trena.

Simon du izena Ekidazuko estazioko jefeak. Simon Barandiko da izan, baina deitura berri bi ezarri dizkio herriak: *Simon Berritsu* ta *Simon Gezur*: Ederki ezarrita benetan.

Izatez kanpotarra da (ez naiz gogoratzen orain nongoa den); baina urte asko daramatza Ekidazun. Berrogeita bost urte aldera izango ditu berak. Gizon txikia da eta bizkorra, baina txoriburu samarra. Sagu bat lakoxea da bere sudur luzenga ta bibotearekin.

Ezkondua da Simon. Demetria du izena bere emazteak. Botoatarra da hau; txikia eta potolatxoa, eta koipetsuegia.

Gelditokian bertan bizi dira Simon ta Demetria hamabost urte hauetan.

Familiarik ez dute izan; baina neskato bat dute, hirikoa.

Seme-alabarik ez zutela-ta, hainbat urtetan ibili dira bat semetzakotu edo alabatzakotu nahiean. Simonek mutila nahi zuen; Demetriak, ostera, neska bat. Eta hor egon dira urte mordo batean biak bietara beti matrakan. Baina (Mari Migelen etxean no da to, emaztea gizon, oiloa oilar) azkenean andreak irabazi, ta neska bat ekarri zuten Sasikotegitik.

Alabaren izena zela-ta ez zela ere matrakan ibili ziren. Simonek Anastasia zela izen polita esaten zion Demetriari.

—Anastasia?

—Edo Atanasia.

—Isilik zagoz isilik, Simon, zoro hori! Akordatu ere egiten zaizu zuri bakoitzik! Anastasia...? Horixe ez, Jainkoarren!

—Bat zein beste, izena izen.

—Bai, zera da...!

—Zein ipiniko diogu, bada?

—Josefina.

—Josefina?

—Bai, horixe da izenik politena ta.

—Baina nork agintzen du gure etxean, ba?

—Zeuk.

—Nik?

—Bai, baina honetan ez. Honetan andrazkoak izan dira beti nagusi.

—Beste gauza askotan ere bai.

—Tira, tira! Isildu zaitetz. Josefina ipiniko diogu bai, ta kito.

Eta jakina, Simonek eta Demetriak Josefina ipini zioten izena beren alaba ordeari. Gaur *Fini* esaten diote; ekidazuarrek *Txan-kame*.

Ekidazuko berri zabaltzailea da Simon. Berriketa da haren deporte. Eta berriketa asko, egia gutxi. Horrexegaitik esaten diote ekidazuarrek Simon Berritsu edo Simon Gezur. Nik, neure alde-tik, beste gaitzizen batzuk ere egoki-egoki ezarriko nizkioke: *Hitzontzi*, *Nonzebarri*, *Berbalapiko*, *Kontukatilu*, eta abar. Hura da gizonaren berritsua! Andrazkoa izan balitz ere...!

Ekidazuarrek ongi ezagutzen dute Simon, eta badakite Simonen «bai» asko «ez» direna. Badakite Simonek hamalau esaten duenean lau direna, beltza esaten duenean beltzarana dena, pulmunia (edo alborengoa) esaten duenean ez tul edo doministikunena batzuk baino ez direna. Ekidazuko pelotariak hogeita bi ta hogeita bat irabazi omen dutela partidua esaten duenean Simonek, galdu egingo zuten, seguru asko.

—Para deducir la verdad exacta de lo que dice Simón, hay que extraer la raíz cuadrada y, a veces, la cúbica —esaten omen zuten bere eskola-maisuak.

—Hau ta hori ta bestea, eta abar, eta abar eta abar..., sutan erretzeko abarrak dira Simonen abarririk gehienak —esaten zuten Olazaharko Juanek.

—Hori ere gaixoa duk eta...! Egia esateko eginahalak egin arren, gezurra esan behar nahastean beti —esaten du Felix Astok.

Gaur, behinik behin, badarabil berriketa ta gezurra ta abarra Simonek. Badu, izan ere, Urteberri goiz honetan zeri ekin.

—Don Trifoni Jopu ostu diote. Seiretako partean esan du irratia. Telebisioak ere esan du. Periodikuak ere ekarriko du. Bake-tan dagoenari baketan utzi, hori ikusten da mundu honetan gutxi. Berriz ere etorriko da gerrateren bat. Bai; eta, beti bezala, erruga-beak hilgo dira. Holakorik! Haundia da gero! Ba, Don Trifonen autoan erdi lo zegoela harrapatu dute Jopu; kloroformoa eman ei diote honi ta ukabilkada bi Don Trifoni berari, ta konorterik gabe utzi dute... Andoni ta Koldo izan omen dira lapurrok. Egia ote da? Badakizu: esan gauza asko esaten dira ta... Don Trifon ta beronen zerbitzariak Andoniren etxera joan direnean, tiroka hartu omen dituzte eta, tiro-hotsean ekitaldi gogor bat egin ondoren, Andoni-

ren aita atxilotu egin dute. Andoni bera ez dute atxilotu. Igés egin omen du txifa txakur mozorro bat jantzirik. Andoniren aita erori egin dela ere esan dute, ta min hartu duela. Itsasoz igés egin omen du Andonik, Frantziarantz edo...; baina dirua hartu nahi badu, etorriko da gaur iluntzera orduko. Hogeita hamar milioi pezeta eskatu dizkiote Don Trifoni Jopugaitik (neure karteran banitu!). Olazaharko Koldo ere atxilotu egin dute, Zirritokin zirrika zebilelarik. Mozorro ta guzti ere ezagutu egin dute (esan nion nik egun batean irtenegia zela baina...). Bazterrak bete lagun atxilotu omen dituzte; hainbeste ezetz ere entzun dut...; bai, hala esan dio gure Demetriari auzoko Karmelek. Ez dakit, ba, nik: batzuek gauza bat esaten dute, beste batzuek beste bat... Nori sinistu? Hara: Frantzia aldera joan dela Andoni esan dute batzuek lehen hementxe estazioan; oraintxe puntuan entzun dut, osterá, Don Trifonek dioela ez duela Frantziarantz ihes egin Andonik, Botxoarantz baizik; Botxoan ezkutatu dela non edo non; berak ikusi duela, eta bere zerbitzariok ere bai, Gezalatik alde egiten «R10» zuri batean; haren atzetik joan direla Botxoaraino, ta, nola ta nondik ez dakitela, hantxe galdu zaiela telebisio-denda batean... Haatik, orain, Don Trifon eta beronen zerbitzariak Botxoako etxe guztiak arakatzen ari dira. Hemen bertan ere errekestatu dituzte etxe batzuk... Eta badakizue zer gertatu den Olazaharren? Hil egin da Juan. Bihotzekoa zuela aitak eta, hari disgusturik ez emateko esan zien Don Julian medikuak haren seme-alabei baina, disgustuz hil dute. Horixe da azkena! Juan gizajoa! Gizon ona, benetan! Amaia ere gaizki omen dago...; seindun dago ta...; badakizu ezta? Haurgintza minak izango dira, noski. Tomasek esan dit lehentxoago hau; nola Amaia ere txarto dagoen; Etxezaharreko Lontzok ere hainbat kontu esan dizkit Amaia dela-ta. Neskazaharra ta izzorra, hori ere bada lorra. Gure *Otalora* burusoila ere mendira joan da gaur. Olazaharko Juanena Anton Porrak esan dit lehenengoz, lehenengo trenean joan da Botxoara edo ta; Zeanurtxiko Bizkondeari errenta pagatzera joango zen, seguru asko. Zera ere..., bar-katu, zortzi t'erdietako trena baitator.

Nahaste borrhaste, azak eta nahaste; egia ta gezurra nahaste-an, Simonek hitz egiten duenean. Urteberri egunez ez da periodikurik egoten baina, behar ere ez Ekidazun.

Larru zaharra noiz jausiko duen suge baten antzera sartu da trena Ekidazuko gelditokian. Eta haren galga indartsuak irrintza kirrinkari bat egin du gelditzean.

Lagun gutxi dabil gaur trenetan, baina Don Trifonen zerbitzari asko, galde honi ta galde hari.

—Jopu de lan pan tran los quin trencos leis Don Trifon?

—Car por delis trin detus laspos de mel Andoni?

Txistu-hotsa da.

Geldiro geldiro, atzera aurreraka, joaten hasi da trena. Joaten joaten, joanez joanez, joanean joanean, badoa. Badoa, badoa, badoabadoa, badoabadoabadoa... Joan da.

Gosaltzera doa Simon. Neu ere bai; idatzi ta idatzi, gosetu ta egarritu egin naiz ta.

Bart sobra utzi nituen musker biak gozoago egongo dira orain, ta katagorrien esnea ere presko-presko.

VII

Gosaldu ta gero, abeslari ta ameslari, amuarrainak harrapatzen ibili naiz lo kuluxkada batean. Eta on egin dit lo pixka bat egiteak, nekaturik bainengoen.

Bart mahats aihen motxikinez goraino utzitako hautsontziak garbitu, jaiegunetako arropak jantzi (mahats orri bat eta txapel berria), eta Olazaharrera joan naiz lehenbizi.

Eguna zabaldua egon da etxetik atera naizenean, eta poztasun berri bat sortu dit bihotzean urte berriaren lehenengo argi ilunberak.

Bidean nindoalarik, eguzkia agertu da ortze makurtuaren barrenetik. Eta, berehalaxe, koadro inpresionista bat egin dut.

«Urtarrileko eguzki gazte ta lotsorra esnatu da. Eta aharrausi sakon ta luze bat egin ondoren, jaiki, ta, erdi lotan, begiak ireki ezinik, lainozko gela batera sartu da. Arpegia garbitzen ari da, orain, errainuzko ontzi batean; arpegia garbitzen, hamabost urteko neska baten ahalke, begirune ta eratasunez. Oilarrak eta elizako kanpai-dangadak ate joka dabillkioz. Basoak, arboladiak, landak, soroak, etxeak, abereak eta gizonak zain dagoz... Badator, oraintxe dator eguzkia. Bere ile mataza beilegiak sorgin-orratzez lotu, ta badator lurrera eguzkia. Laino artetik, arte murriztu ta ziztrinen barna, zeharka dator; etorri da. Eta maitekiro musukatzen du bere ama lurra, ta kolore berriz jantzi. Hauxe benetan bat-bateko bizitasun ta apaindurizko ikuskizun harrigarria, neguaren loan!»

Etxe bete jende aurkitu dut Olazararren. Jakina: holako orduetan prest jendea zerbait egiten laguntzeko; baita etxe inguruetan eta etxe barruetan ikuska ihardukitzeko ere, oker eta gaizki edo zuzen eta ongi dagoen zerbaitetan begiak pozez edo inbidiz jartzeko.

Zerraldo batean sartu dute Juan. Horitu egin da, ta argizarizko santu bat dirudi. Juanek berak ikusi balu bere gorpua (fraile jantzita), barre purrustada bat egingo zuen, noski.

Eskolastika zaharra ere, makurka makurka, han ibili da, tatarrez baina ibili, batera eta bestera, zorki bat hemendik kendu, han ipini. Igarri egin zion bere semeak Eskolastikari.

—Zu, ama, ni hilda gero ere hemen geldituko zara —esan zion behinola Juanek.

—Bai zera! Esatea ere...! Hazitarako ez da inor gelditzen hemen —erantzun zion amak.

—Ez baina, badakizu Don Julian medikuak zer esaten duen: zaharrak ohean luzaro egoteagaitik, beheruzkoagaitik edo jauskerari txarren bategaitik hiltzen direla. Baina zu...

—Ni ere, honegaitik edo horregaitik, laster hilgo naiz. Madarri heldua erori egiten da.

—Zu urte askotan biziko zara oraindino, eta gero ere hil ez zara egingo.

—Hil ez? Zer egingo naiz, bada?

—Sikatu.

Hain zuzen ere, Eskolastikaren arpegi igar mehe zurbilak hezur ta azal hutsez egina dirudi.

—Koldo non denik edo, ezer ba al dakizue? —galdetu dio Klaudiori.

—Ez.

—Amaia non dago?

—Ohean. Ondo dago ordubera.

Olazararren apur batean egon, ta meza nagusira etorri naiz, eta hementxe nago orain elizpean.

Ekidazuko eliza ez dago herri-herrian, alboko aldean, goiengan baizik, erdi Aroko gaztelu bat bezala. Eta ikustoki zoragarria da elizpe hau. Hemendik ikusten da ahalik hobekien herria.

Ekidazuren bihotza nire oinetan dago, argi ta gorri. Izan ere, euriak garbitu egin ditu teilatuak (telebisio eltxo itsusiak ere garbitu ditu, edertu ez).

Herri txikitxo bat izan arren, bihotz haundia du Ekidazuk: Aiuntamentu berria (herriko etxe zaharra bonba batek desegin zuen); aiuntamentuaren aurreko plaza ederra, zuhaitz asko inguruan ta iturri eder bat erdian duelarik; pilota-leku zahar bat, eskola berriak, hiru-lau tailer, Santi indianoaren txaleta, trenaren gelditokia, hamar taberna (hori bai!), kafetxe bat eta hogeiren bat etxe haundi ta txiki, zahar ta berri, kale batzuen barruan.

Herriaren bihotz baretik erreka bat pasatzen da bihurka, kiribilika, soro ta landa zabalen erditik. Erreka txukun garbia izan zen lehenago, mendi-negarrez, arrainez, zeruz eta zumez betea. Baina, orain, txifa txakurren kolorearen antzeko ur urdinabar zikina darama.

Iturburua dagoen mendipean dago egon ere Don Trifonen granja famatua zigurat bat bezala.

Han, hor, hemen, sakabanaturik, artalde zuri-gorri baten antzera, berrogeita hamar baserri inguru ageri dira neguko berdearen altzoan etzanda. Eta pinudi asko, ifarraldean eta hegoaldean, sortaldean eta sartaldean, pinudi asko alde guztietan; pinudiak: gaurko baserriarren urre-meatzak.

Eta, azkenik, han, menditxo baten gainean, haitz artean, nire etxe txikitxo aitzin zuria, armiarma langileek egindako sare apaindua, mila txori ezberdinen kantu gozoz alegeretua, haize ederrez inguratua...; nire kabi maitea, munduko kabiarik bakesuena, askatasun paradisia... (nire etxea aipatu ezkerro, erromantiko bihurtzen naiz). Nabukodonosor, Kleopatra, Neron, Karlomagno, Espainiako Felipe bigarrena, Frantziako Luis Hamalau-garrena, Napoleon, Errusiako tsar-ak, Txinako enperadoreak eta mandarinak, Bramaputrako sultanak, mauruen emirrak era kali-

fak..., Rothschild, Rockefeller, Onassis, Don Trifon, eta beste haundiki, aberats, ta jauntxo anitz, ni baino guleria gehiagorekin bizi izan ziren eta bizi dira, nire koba zuloa baino jauregi ederrago ta dotoreagoen jaun ta jabe izan ziren edo izango dira, nik baino zerbitzari leial gehiago izan zituzten edo izango dituzte haiek; baina, hala ere, beldur gutxiagorik ta askatasun gehiagorik ez dut uste.

Kantagarria da, benetan, nire etxea.

*«Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditxo baten gainean,
etxe ttipitto aitzin xuri bat,
lau haitz ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturriño bat aldean...?
Han bizi naiz ni pakean.»*

Simon Berritsuk ez ezik, ekidazuarrek ere erabili dute gaur berriketa hemen elizpean meza nagusi aurretik: Olazaharko Juan, Amaia, Koldo, Gezalako Andoni, Don Trifon ta beronen zerbitzariak, hitz-sariketa, eta abar. Hementxe ibili dira esamesaka, geratu barik, kurloi batzuen antzera.

Elizpe hau lehenagoko ekidazuarren batzar-tokia, telebisioa, irratia ta periodikua zela esaten dute baina, gaur ere holako zer-bait izan da meza nagusi aurretxoan.

Gero egingo den *Hitz sinonimoen sariketa* programak zabal-tzen ere ibili dira neska ta mutil batzuk. Nik ere hartu dut bat, Felix Astok erdeinuz behera bota duena (irakurtzen jakin balu ez zuen botako).

Berritu egin dute aurtengo programa.

NEGUKO JAIK EKIDAZUN

Hitz sinonimoen sariketa nagusia

Nola: «Dut, det, dot, düit, ut, et, ot...»

«Hitz, berba, mintzo, ele...»

«Sariketa, txapelketa, lehiaketa...»

Noiz: Urtarrilaren 1ean (Urteberri egunean), eguerdiko hamabietan.

Non: Ekidazuko aiuntamentuko aurreko plazan. Euria bada pelotalekuan.

Nortzuek: Edozeinek hartu dezake parte, gizonezko zein andrazko izan. Lehiaketarien izena aurretik eman behar da, sariketa hasi baino lehen.

Sariak:

Lehenengoa: Txapel bat, 10000 pezeta, eta Don Trifonek emandako kopa.

Bigarrena: 8000 pezeta, eta Ekidazuko aiuntamentuak emandako kopa.

Hirugarrena: 5000 pezeta, eta *Altxorra* diru-etxeak emandako kopa.

Laugarrena: 3000 pezeta, eta *Katalin* kafetxeak emandako kopa.

Bosgarrena: 1000 pezeta, eta Santi indianoak emandako kopa.

Oharra: Botxoatik Ekidazurako trenan hamaiketara da.

Antolatzaileek

Urte oro egiten da sariketa hori, ta ikusgarria izaten da. Eta erbestetik ere jende asko etortzen da hura ikustera.

Eguzkia alai egon da lehentxoago baina, muker dago orain, eta aharrausika ari da laino montor beltzen ostean. Ilundu egin du.

Ekidazuko eliza argitan dago gaur, argi guztiak baitagoz bizturik.

Oso polita da barrutik. Oraingo erara berriztuta dago. Berriztatu zenean, haserre egozan ekidazuarrak «ardi txabola bat zirudielako, hormetako hare harriak agerian zituelarik». Baina orain, hura ikustera erbestetar asko etortzen direla ikusirik, harro ta pozik dagoz beren elizarekin.

Aldarearen oinarria arte-orpo bat da, eta gaztainazko ohol zabal bat gaineko mahaia.

San Migelen irudi koloretsu bat dago aurreko paretan, San Migel goiaingerua baita Ekidazuko zaindaria.

*«Mikel guria,
zaizu gure Herria.»*

«*Aintza*» kantatzen ari dira korukoak. Don Polikarpo dute zuzendari. Gerrate aurretik Ekidazun egondako eskola-maisua da Don Polikarpo. Hemengo alaba batekin ezkondu zen ta, Botxoan bizi arren, maiz egoten da hemen.

Barrenengo Andresen orroak kanpotik ere entzungo dira.

—Horren abotsa eukitzearren, oraintxe bertan emango nituzke bost mila ogerleko —dio bere baitan Torreko Ezekielek haren orroak entzutean.

—Andres Harro izango haiz hi beti...! —Felix Astok.

—Opera bat ere kantatuko luke gure Andresek —Andresen amak.

Korukoak izan ezik, gainerako guztiak jezarrita eta isilik dagoz, eta geldi geldi. «*Aintza*» entzuten dagozala danak dirudi, ikusi batean. Baina ez.

Begira *non* dagozen batzuk edo *zertan* ari diren.

Enekoneko Pedro lo dago, bart lorik egin gabe egon behar izan du ta, Olazaharkoei laguntzeagaitik.

Lo dago, baina itzarrrik ametsetako mundu beldurgarri batean.

«Presondegi ilun batean dago. Txifa txakur mordo bat du bere ondoan. Leiho txiki txiki txikitxo batetik bakarrik sartzen da argia bera dagoen toki itzaltsu, zikin, ta goibel hartara. Leihoan ditu begiak, baina ez du ezer ikusten. Ikusi nahi du, baina ezin ikusi. Begiak astun ditu ta beheratu egiten zaizkio.

Ez du nahi mozorrorik, baina mozorroz jantzita dago. Olazaharko Koldoren mozorroa du. Kendu nahi du burutik, baina ezin.

Halako batean, Don Trifon sartzen da, hilkutxa bat besartean duelarik. Jopu dago hilkutxan, fraile jantzita.

—Zuk ostu ta hil duzu Jopu, ezta? —esaten dio Don Trifonek.

—Ez, nik ez, Don Trifon. Zuk badakizu, Don Trifon, nik i...

—Bai, zeu izan zara.

—Ez, ez, ez, Don Trifon. Ni ez naiz Koldo. Ez dakit nork jantzi nauen honelan. Mozorro hau ez da nirea. Ezin dut kendu burutik. Ni Enekoneko Pedro naiz, Don Trifon, Enekoneko Pedro. Ez al nauzu ezagutzen? Ai! Ai!

Bere etxeko ganbaran zintzilik dagoen eskopetaren kulataz jo du Don Trifonek...»

Don Trifonen eskopetaren kulata Felix Astoren ukondoa izan da.

—Zertan ari haiz, asto hori?

—Lo egon haiz ta...

—Ez nauk lo egon!

—Ez, egon barik...!

Santi Indianoa haserre da Don Trifoni egin diotenagaitik, eta haren arpegi itsusia itsusiagotu egin da. Eta marmarka ari da, bakarriketa mutuan.

—Etxetik ateratzen ere beldur izan daiteke bat. Zer egin ere ez dakite gaurko gazte zorook eta, lotsagaldukook halakook! Asko sartu dituztela kartzelara? Gehiago sartuko balituzte hobe! Bestela biziko gintezke orduan...!

—Astakumearena gertatu zaio Santi indianoari: haundiago ta itsusiago. Ongi jantzirik egon arren, bitxiok eder, baina berori ez

—egiten du berekiko Felix Astok, eta bere sudur zuloetako sasiar-tea garbitzen hasten da esku ezkerreko atzamar txiki haundiaz.

Agarreko Mikel hitz sinonimoen sariketarako entrenatzen ari da. Igaz hogeita hamaikagarren egin zuen, baina aurten irabaziko du sariren bat, gau ta egun dihardu aspaldion horretan eta.

—Txirrita, girgilu, kirkir, kilker, txirritxirri, larraputika, girgix, egotxirri..., txintzar, txitxitera..., txitxi..., txitxi..., beste bat ere badakit, bada...! Gero akordatuko zait. Behartsu, erresta, gabe, ezeuki, premiadun, kankalier, lander, ezergabe, ezdun..., ez..., ez..., ez dut uste gehiago dagoenik. Geldiro, astiro, poliki, baratx, ezarian, takataka..., takataka ala tapatapa ote da? Gero ikusiko dut hiztegian. Takataka, tokotoko, tukutuku..., tupatupa... Atzo berez esaten nituen baina, gaur ez dakit zer gertatzen zaidan.

Txikitoneko Garbiñe, bere hogeit urte beteen edertasunari eutsi ezinik, maiteminduen zeruan dago, itzarririk ametsetan.

—Atzo Botxoan, Arana kalean, ikusi nuen alkandora gorri iluna erosiko diot Deunorori, edo, bestela, niki berde bat, Erregetan erregalatzeko —dio bere artean, ile luze gorrixkei behatz puntekin eraginez.

Ezkerreko aldean duen Edurne bizi-alargunaren iztar eta bularrei begira dago Martzel Isko. Elizan egon arren, bere arloan ari da lanean, hezibako isko baten grina ta gurariz.

—Norik lukeen Aristoteles Onassisen dirua, basozaldien askatasuna, elefante baten bizitza, zezen baten indarra ta oilar baten ahalmena! —pentsatzen du astotzar lizunak.

Don Julian medikuak erdaraz egiten du ametsetan, erdalduna baita. Egia esan hainbeste urte Ekidazun egin ondoren, euskara apur bat ere ikasi du. Hobeki ikasi behar zuela-ta ere ibili zen aldikada batean. Beroaldi horretan gramatika ta hiztegia erosi zituen, ta jo ta su aritu zen euskara ikasten. Baina, nahiz ta aha-legindu, ez zuen ongi ikasi. Anega erdiko zorroak anegarik ezin hartu. Horregaitik, lehenago bezala, orain ere erdaraz egiten du Don Julianek ametsetan.

Inork ez igartzeko modura baina, lo dago. Jakina, hau ere Olazaharren egon da bart gaurik gehiengan, lo askotzarik egin gabe.

Kazari amorratua denez gero, erbitan dabil ametsetan ere.

«Hamalau librako erbi bat ikusi du. Txakurra, Bihotza, urduri dabilkio; haren jirabira ta usmabeharrak haundiak dira. Oraintxe hartu du arrastoa eta sasira abiatu da. Haraxe doa Don Julian ere arineketan... Hor doa erbia... Danba! Danba! Hil du... Baina, berehalaxe, beste sei kazari agertu dira, eta lauk lau hanketatik, bik belarri bietatik, eta Don Julianek buztanetik oraturik, zazpirek eraman nahi dute erbia.

—Ni hil dut erbia. Da nire hau erbi. Nire txakurra, Bihotza, ikusi lehenbizi, ta nik hil naiz. Atzo ere ikusi nintzen, dut, nuen... —esaten die Don Julianek erdara euskaraz.

—Zagoz isilik! Neuk hil dut —bigarren kazariak.

—Zuk ere ez, neuk baino —hirugarrenak.

—Neure txakurrak altxatu du —laugarrenak.

—Neurea da erbia... —bosgarrenak.

—Bai zera! Neuk hil dut. Gainera zu gero etorri zara —seigarrenak.

—Zuena ez da —zazpigarrenak.

Eztabaida gogorra sortu da. Don Julianek ez die ezer ulertzen besteei.

—¡Hablar más despacio, hombre, que cuando empezáis «*txirri burri, tzitzi putzu*» no os entiendo nada!

Burruka gogorra sortu da orain. Don Julian ere ukabilka hasten da batekin. Ukabilkada bat doa, ukabilkada bat dator; ukabilkada bat doa, ukabilkada bat dator, ukabilkada bat dator, dator, dator...»

Suangila talde bat bezala, aldare aurreko harmailetan drogan dabiltzan neskato-mutikoei keinuka ari da Don Jose zaharra, gel-di ta isilik egon daitezten...

Zelaietako Matildereren gogaketak ere interesgarriak dira; baita Don Julianen emaztearenak ere. Baina bukatu dute «*Aintza*»

korukoek. Eta lo egon direnak iratzartu egin ditu isiltasunak, eta irudimenez kanpoan egon direnak barruratu.

Hamaikak eta laurenak dira elizako erlojuan. Goitiko Kasimeraren esku muturreko erlojuan, ostera, laurak eta bost dira. Badaki jakin Kasimerak ez dabilkiona, baina esku muturrean erlojua eramateak ongi ematen duela-ta... Emakumeen kontuak!

Urde sartu da elizara. Nire bila, seguru asko. Bai, ikusi nau, ta nigana dator.

—Gezalatik netorrek.

—Ta? Zer berri dakark, ba?

—Ba, berri berririk ezer ere ez.

—Agertu al duk Jopu?

—Ez, oraindino ez.

—Eta Andoni?

—Inork ere ez zekik ezer. Urtu egin dela zirudik.

—Eta gure Don Trifonek zer ziok?

—Lapurrak eskatutako dirua emateko konforme omen zegok.

—Bai?

—Bai, oraintxe etorri duk Botxoatik, hotzen batek hartuta edo, sudur estuturik. Zera, Andoniren aita ere oso gaizki omen zegok.

—Gizajoa!

—Nola zegok Amaia?

—Zer, ba?

—Ez haiz joan harengana ala?

—Bai, lehen joan nauk. Baina lo egon duk.

—Hi! Ta noiz joango haiz hire ama ikustera? Ba al hekien gaixorik zebilenik?

—Bai.

—Ta hemen Ekidazun zegoenik?

—Bai, bazekiat. Bart izan diren euri ta afruntu, ortzantz eta tximistekin, hemen egon behar gure MARI, eguratseko iskiloak oro bere eskuetan baititik.

—Noiz hoa, bada, harengana?

—Oraintxe joango nauk.

VIII

«*Andra Maria:*
otzon hortz zaharra,
t'ekatzan berria.»

Gure MARI ikustea ez da gauza erraza izaten. Izan ere, nire ama orain dago hemen, gero han, behin Zuberoan, behin Araban... Eta nork jakin horrela gure MARI non dagoen?

Anitz bizileku ditu luraren barneko eremuetan. Gipuzkoan bakarrik ditu hamazazpi. Ez al dakizu zeintzuk diren? Hona hemen: *Garagarza, Kutzeberri, Atxorrotz, Gaiztozulo, Aketegi, Sugaarzulo, Aspildi, Ubei, Murumendi, Marizulo, Txindoki, Azarizulo, Olanoi, Otsabio, Laparko Laizazulo, ta Obantzun.*

Buruz dakizkit ikasiarazi egin zizkidalako haurtzaroen (ni kixmitu baino lehen) gure MARI-k.

Bizkaiko bizilekuak hamasei dira: *Gorbea, Oiz, Mugarra, Aizkorri, Aralar, Aiako Harria, Orimendi, Balzola, Supelaur, Atxali, Sarrimendi, Mariren Koba, Gabaro, Kanterazahar, Otoi ta Damazulo.*

Arabakoak hiru baino ez dira: *Kapildui, Okina, eta Zaldiaran.*

Nafarroan zazpi ditu: *Odebe, Udabe, Beraingo Leze, Mugiro, Akelarre, ta Auza.*

Lapurdin bost: *Arrobibeltz, Lezia, Fahardiko Harri, Mariñilo, eta Mondarrain.*

Zuberoan ere beste bost: *Lexarrigibele, Lezenobi, Beli, Azalegi,* eta *Otxilarre*.

Baxenabarren bat bakarrik du: *Zelharburu*.

Zoragarritzko pinturaz apaindurik ditu bizilekurik ederrenak. Mamut, lehoi, hartz, otso, bisonte, basahuntz, zezen, zaldi, basurde, azeri ta holako piztien irudiak ageri dira pintura horietan. Txoriak ere bai: arrano, txolarte, eper, belabeltz... Arrain batzuk, arbolaren bat, sareak eta giza-eskuak (giza-irudirik ez).

Mozorroz jantzita ibiltzen da beti nire ama. Bere etxe barruetatik dabilenean abere ta piztien mozorroak erabiltzen ditu (aker, ahari, zaldi, bigai, suge, herensuge, putre...). Kanpora ateratzen denerako beste mozorro-jantzi batzuk ditu: zuhaitz, haize burrundara, laino zuri, ilargi, suzko igitai, emakume...

Ez dakit noiz ezkondu edo elkarganatu ziren nire gurasoak, gure MAJU ta gure MARI, izangoko ezerezean bainengoen orduan. Dena dela, bananduta bizi izan ziren beti, ongi konpontzen ez zirelako edo; bueno, beti ez; ongi ere konpondu ziren noizbait, zazpi seme-alaba izan zituzten eta. Ostiraletan, arratseko ordu bietan joaten omen zitzaion nire amari nire aita izan zena (Maju, Sugaar edo Sugoi, hiru izen horiek baitzituen), eta, orduan, izugarrizko ekaitz eta erasoak izaten omen ziren.

Jentila da nire ama, eta, behinola, gu gaztetxoak ginelarik, gurdi batean lotu zuen aitak ama, ta, seme-alabekin batean, elizara eramán zuen bataiatzera. Baina elizara heldu ginenean, sutan jarri zen gure MARI, ta, lokarriak erreta, airean joan zen bere Murumendiko koba zuilora, honela ziharduelarik:

«*Matías Muruko,*
zazpi seme
mundurako;
bat ere ez
zerurako».

Hala ere, seme-alabok orduantxe kixmitu gintuzten. Eta apaiz ere egin zen nire anaia bat.

Behin batean, Lazkanoko Senpere bailaratik zihoalarik gure apaiza, Mikelats (gure anaietariko bat, gaizto samarra) agertu zitzaion.

—Gariak ederrak dagoz; baina badituzte nik gari horiek joko dituzten zaldi galantak —esan zion Mikelatsek.

—Bai nik ere zaldi horiek geldiaraziko dituzten galga indartsuak —erantzun zion apaizak.

—Ikusiko dugu!

—Ba, ikusiko duzu.

Etixeratu zenean, urduri zegoen apaiz zintzoa, eta dei egin zion neskameari.

—Tomasa!

—Zer, jauna?

—Murumendi gaimetik hodeiren bat sortzen ikusten baduzu, abisatu berehala.

—Bai, jauna.

Eta halaxe gertatu zen. Murumendi aldetik sortu zen hodeia. Eta behingo batean, oinetako bat sakadiz zuelarik, konjuroa egin zion gure anaia apaizak, baina alperrik, kaskabarra ta harria ez zen gelditzen eta.

Orduan, bere oinetako bat kendu, eta baratzerara jaurtiki zuen.

—Sartu daitezela hor.

Esan ta egin, apaizaren oinetakoan sartu zen harri guztia, ta lurralde hari ez zion kalterik egin.

Atarian eserita egon da gure MARI ikustalditxo bat egitera joan natzaionean, urregorritzko orrazi batekin ileak orrazten. Gero, ardatzean egin du, nire nobela honen hari mataza ahari baten adarretan harilkatuz, eta ardatz-haria nola biribilkatu ta ezkututzen diren niri erakutsiz.

Atarrabi, nire anaia, ta Hodei ta Eate, nire amaren morroiak ere han egon dira.

Zahar egin da gure MARI. Ez du lehenagoko adore, ahal ta indarririk. Ez dut uste luzarorako izango denik. Baina hiltzea eta hil arte bizi izatea nahi ta nahi ezkoak direnez gero...

—Zer moduz? —esan dit.

—Ongi, ama. Eta hi?

—Kili-kolo, baina bizi gaituk. Badakik, zahar egin gaituk eta..., gaurko gazteek ez diate nahi ni lako zaharririk.

—Tira, tira!

—Nola zegok Amaia?

—Gaizki.

—Gaizki? Zer, ba?

—Aita hil zaion.

—Baina...

—Ez, ez. Ohean zegon, baina ez dinat uste umerik galduko duenik.

—Noiz dik denbora?

—Gaur zion berak.

—Eta hik zer diok?

—Gaur dela.

—Ederki. Aspaldion ez diagu elkar ikusi ta, hator barrura zerbait hartzera ta kopletaldi bat egitera.

—Baina...

—Baina zer?

—Arin joan beharra dinat.

—Nora hoa, bada?

—Hitz sinonimoen sariketara lehenengo; gero Gezalara; hurrengo Botxoara...

—Laster joango haiz.

—Heuk nahi dunana, ama.

Harriturik gelditzen zara nire amari hika hitz egiten diodala-ko? Ba, hika hitz egin behar zaio beti nire amari; haserretu egiten zait, osterantzean.

Gezurrik ere ezin diot esan. Haserretu egingo litzaidake orduan ere, ta zigortu egingo ninduke gainera. Behinola, hoge

musker nituelarik, hamar nituela esan niolako, hamar kendu zizkidan «*ezagaitik*». Hogeita hamar nituela esan banio ere, hamar musker kenduko zizkidan «*baietzagaitik*», ez nituenak banituela esateagaitik. Horregaitik esaten zidan niri, txikitan, maiz esan ere: «*Ezari emana, ezak eramam*».

Sutan igeri, lurpera goaz ama ta ni.

Koba zulora sartzean, izugarrizko zalapartak atera ditu gure MARI-k.

Zahar egin dela baina...

IX

—Hilotz.

—Gorpu, korpitz, zurrun, kas..., kas..., kaski, sarrats..., hilgogor, gopitzil..., gor, gor...

Txilin-hotsa.

—Zazpi.

Hitz sinonimoen sariketa debekatu egin dutela entzun dut bidean baina, gezurra izan da. Egia ere izan zitekeen Olazaharko Juan hil denez gero. Don Trifonek berak ere debekatu zezakeen Jopurenagaitik. Baina hilak hil, biziak aurrera, oraintxe hasi da hitz sinonimoen sariketa.

Ekidazuko aiuntamentuko aurreko plaza gainezka dago jendez. Etorri ere autobusetan etorri da! Hau da jende aintzira! Don Trifonen zerbitzariak ere asko etorri dira, eta han, hor, hemen, sakabanaturik dagoz jende artean.

Epaimahaikoak aiuntamentuko arkupetan dagoz, mahai luze baten ostean eserita. Orain arte urtero izan da «epaimahaiko» Don Trifon baina, gaur ez da ageri Don Trifonik han.

Lehiakariak oholtza baten gainean dagoz, sariketa-antolatzailleek aiuntamentu aurreko harmailetan jarri duten oholtzaren gainean, zutik eta iladan.

Ikusleak oro behean dagoz, eta zutik gehienak.

Gaztaina-erre saltzailleak ere etorri dira. Bazter batean dagoz baina, plaza osora zabaltzen dute gaztaina usain gozoa. Haiekin batean ikusiko dute mutikoez sariketa.

Arabar gazte bat ari da orain lehiaketan. Zuzentzaileak eskaintzen dion poltsa batera sartzen du eskua, ta sobre zuri bat atera.

—«Oste». Badakizu: minutu bat duzu. Nahi duzunean, hasi —esaten dio zuzentzaileak arabarrari.

Mikrofonorantz dardar hurbildu, ta hasi da.

—Oste, alde, mordoska, multzo..., aldra, sail, purrustada..., saldo, aralde..., pilo..., samalda, samalda, sa...

Txilin-hotsa. Txalo batzuk entzuten dira. Txistu batzuk ere bai.

—Hamar —dio zuzentzaileak.

—Hamar —dio, berriz, epaimahaian buru egiten duenak.

Irribarreka dago orain arabarra. Bigarren hitza ateratzen du.

—Bigarren hitza: «*Suangila*». Oso erraza. Hasi.

—Suangila, muskentra, sugalinda, txitxikuandri, suskandela, sugelandare, zirringilo, sumandil, surgandola, txarrangila, subilaingira..., sangongilu, sagundila..., subandila... (beste asko ere badakizkit, ba! Mihinaren puntan ditut baina...), xuskan..., xuskandera...

—Hamabost.

Esku zarta gehiago. Txisturik ez.

—Hirugarren hitza. Hauxe duzu azkenengoa. Hara zein den: «*Desegin*».

—Hautsi, puskatu, ezdeustu, suntsitu..., ezereztu, haustu..., birrindu... Ez dakit gehiago.

—Bai, gizona! Aurrera! Hogei segundo dituzu oraindino.

—Bai baina, alperrik.

—Hamar segundo.

—Das..., des..., dis..., dos...

Txilin-hotsa ta txistuak, biak batean.

—Zazpi. *Desegin* bera ere esan barik utzi duzu.

—Ene! Izan ere...; egia da.

Burua makur-makur egin, ta alde egiten du arabarrak, ahalketurik.

Hurrengo gipuzkoar bat dator, igaz txapeldun gelditu zena. Gazte koloregorri alai bat da. *Hiztegi* esaten diote ekidazuarrek. Oso ona omen da lehiaketa honetan.

Ikusleak agurtuz, gora jasotzen ditu besoak gipuzkoar gazte burutsu horrek. Txaloka hartzen dute haiek, eta txaloren txaloz ez da ezer ere entzuten, txalo-hotsa baizik. Isiltzeko mesedez, eskatzen die zuzentzaileak keinuka.

—Aupa, Hiztegi!

—Aurten ere lehenengo e?

—Lehenbizi, hartu arnasa lasai.

Atera du Hiztegiak sobre zuria. Paper-hotsa bakarrik entzuten da. Arnasarik ere ez du hartzen inork.

—Lehenengo hitza: «*Pinpilinpauxa*».

—Altxabili, aperiko, astatsa, atsoaren arima, astoluma, atxiamatxia, atxinini, axandalo, azapinpirin, bitxilota, eskabi, farfail, gau-ulika, inguma, jainko-belatx, jainko-oilo, jainko-mandatari, lilirita, makara, maripanpalona, maripuxitia, marisorgin, matxita, mitxeleta, mitxirika, oilo-zuri, panpina, pertxilota, pitxilingaria, sorgin-bitxi..., sorgin-oilo, txalumitxi..., txepeleta, txibiltxori, txilipitaina, tximirrita, txintxilinpalo, txintxitola, txipilipeta..., txipirina..., txipiritona, txiruliru, txitxilera, txitxipapa..., ulifarfaila..., atxitamatxi..., atxitamutxita...

Txilin-hotsa, txalo-hotsa, esku-zartaka, esku-zaparta, esku-zafllaka, txaloketa, txaloaldi ta goraketa ikaragarria.

—Hori, hori! Aurra! Hori duk hori!

—Gora gu ta gutarrak!

—Gora!

Danak txaloka ta goraka ari direlarik, mutil gazte bizar luze bat igo da oholtzara.

—Isilik pixka batean, mesedez! —agintzen die guztiei.

Mutil bizartsu ezezagun hura han ikusteaz harriturik eta zer esan behar ote duen jakin nahirik, bat-batean isiltzen dira guztiak eta aho zabalik gelditzen dira.

—Baina, jaun andreok, zertan ari gara hemen? Gure hizkuntzaren aberastasun harrigarriak erakusten? Zertarako? Aberastasun horretan murgildu ta itotzeko?

—Zer diozu zuk? Nor zaitugu zu gurera agintzen etortzeko? Bizarrean duzu zuk ezagun nolakoa zaren..., kanpora hortik! —esaten dio oihuka zahar batek.

Txutxumutxuka hasi da jendea. Epaimahaikoak eta Don Tri fonen zerbitzariak artega dagoz. Baina mikrofonoari heldu ta aurrera jarraitzen du berbaz mutil bizar luzeak.

—Barkatu, baina ez naiz ni hona agintzeko etorri, ezta gezurrik esateko ere, ohar batzuk egiteko baizik, hitz sinonimoen sari-keta hau amaitu baino lehen. Zertarako ditugu, esan dut, gure aberastasun harrigarriak? Begira: gure lehiaketari gipuzkoar honek azkar eta ongi egin du bere lehiaketa, eta txalogarria dugu, benetan; hitz asko esan ditu, asko, bai; izan ere, berrehun hitz ditugu gure hizkuntza zaintsu ta beneragarrian «*pinpilinpauxa*» esateko. Aberastasun itzela! Baina Ekidazuko haurrek berrehun ta batgarrena asmatu dute: «*mariposa*». Zergaitik? Aberastasun gehiegik ito egiten gaituelako. Eta, haatik, barregarri bihurtu zaigu gure hizkuntza, aberastasunaren aberastasunez barregarri, eta tamalgarri.

Txalo-hotsa, eta, berehalaxe, isiltasuna. Sasoiko gizon batek ihardesten dio hizlariari.

—Barregarri bihurtu zaigula gure hizkuntza? Negargarri bai. Barre egitea errezena da. Nire amona ez da inor nire herrian; eskolagabea da, oso zaharra da, ez da gauza ezertarako, txotxolatuta dago... Baina zer? Nik ez diet barrerik egiten nire amonari, eta maite-maite dut neure amona delako eta maitasun eta laguntasun haundi baten premian dagoelako. Barregarri diozu lotsa galduko horrek? Nik ez diet barrerik egiten Afrikako edo Ameriketako beltzei (beltz-beltzak izan arren ere); nik ez diet barrerik egiten gerrate bat galdu dutenei, lurpeko meatzetan lanean ari direnei, azpiraturik eta zapaldurik dagozenei; nik ez diet barrerik egiten, ez, gizagaixo urrikgarriei...

Esku-zarta burrunbada. Mikrofono aurretik alde egiteko agintzen dio zuzentzaileak gazte bizartsuari; baina hau taket bat bezala dago, geldi. Geroago ta urduriago dago jendea. Epaima-haikoengana joan dira Don Trifonen zerbitzari bi.

—Oraintxe egingo dut alde —dio bizartsuak—. Baina zertxobait esan beharra dut oraindino. Hitz sinonimoen sariketa hau (nahiz ta ongarri izan, eta batasunbide bat) nahas-mahas bat da, nahaste-borraste izugarri bat, saltsa-maltsa, triki-traku... Eta honelan: hemen zulo ta han zulo, hemeretzi kaka zulo. Onak on direla, hobeak hobe. Esanak barkatu, ta hurrengoan sakatu.

—Hori, hori! —erantzuten dio oihuka Bianako Printzea deriztosten gazte urduri ta bizkor batek.

—Eta herria zer? Non da gure etorbidea? —galdetzen du andre batek.

—Herria lur jota dago; baina herria da gure itzaropena —ihardesten dio beste andre batek.

—Zer da herria? Nor da herria? Non da herria? —itauntzen du herri-filosofo batek.

—Herria, herria..., herria... —herria zer den eta nor den eta non den esan nahi izan du gazte kokolo batek, argi ta garbi; baina eztarrian geratu zaizkio hitzak.

—Non da gure anaitasuna? Ez dakit... Baina zer uste dugu, bada, egitea zeruko argia barik? —esaten du belaunetarainoko bizarra duen fraile batek.

—Euskerak burua jasotzea Jainkoak nahi du, eta, euskaldun eta fededun, zentzunez jokatu dezagun, bakoitzak bere arloan, bestela gureak egin du —apaiz zahar batek.

—Hori egingo bagendu, goiz argi berri ta pozgarri bat agertuko litzateke gure herrian —beste fraile batek.

—Erromantikokeriekin aspertuta gagoz gu —gazte talde batek.

—Mokokaldirik egitera ez gara gu hona etorri. Hizka-mizka asko egin ditugu orain arte ere, anitz burruka garratz eta mingots, ta orain ere hortan hastekotan..., bagoaz gu. Agur —morrosko talde batek.

—Errealitatea mespreziaztea da hori, gure primitibismo trajikoaren konsekuentzia fatala, parapeto estratejiko inutil bat —beste gazte talde batek.

—Zuek ez dakizue ezer —ikastetxe bateko irakasle batek.

—Eta zeuk?

—Nik badakit badakidana badakidala ezer ere ez dakidala, baina zuek ez dakizue ez dakizuena ez dakizuela ezer ere ez dakizuela.

—Aiko, Sokrates! Ez genekien bizirik zegoenik...

Danak egin nahi dute hitz orain. Epaimahaikoak zutundu egin dira, ta alde egin gura dute. Oholtza gaztez bete da. Hau da nahastea!

—Ya le decía yo a Usted, Madre, que aquí íbamos a tener *follón* —moja batek beste bati.

—¿Pero qué palabrotas dices, hija? —moja amak moja alabari.

—Ezer ulertzen al duk? —Felix Astok Martzel Iskori.

—Mikrofonoaren aurrean egon den aker itxurako gazte hori, ez al da izan Tabernaberriko Karmentxuren nobioa? Baietz uste dut —Josepak Pantxikeri.

—Zer ikusi behar ote dugu...? —gaztaina-saltzaile batek.

Ni isilik nago, ikusten, entzuten eta idazten.

Oraingo abesti berri bat kantatzen hasi da neska-mutil talde bat.

*«Herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
oraingo eztabaida
bizi;
herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
gazteen bultzakada
berri.*

*Hil egiten zaigu,
hil egiten dugu,
hil gure herri;
gure euskara
egin da
mila zati,
euskaldun gazteen
lotsagarri!*

*Bat euskal herriak,
bat euskalkiak,
bat danok beti;
batu dezagun
euskara
ta ikasi,
berritu dezagun
Euskalerra.»*

Nahaspila ta iskanbila izugarria sortu da bitartean. Hemen eztabaidaka, han burrukan; hogeï azpian, hogeï gainean, hauek negarrez, haiek kantatzen; neskak irrintzika, mutilak arrantzaka; andrak garraxika, gizonak orroaka; atsoak aitarenka, agureak onezkoak egiten..., ta haurrak geldi, isilik, harriturik. Ele makur, irain-hitzak, laidozko berbak, nonnahi entzuten dira; nonnahi sastarkeria, zirikeria, zorakeria, zentzungabekeria, gangarkeria, ergelkeria, astakeria..., esan behar ez diren «keria» guztiak. (Babel gogoratu zait). Gure hizkuntza irakiten dago buruetan, bihotzetan, eta mihinetan.

—Aurrera! Alajainkoa!

—Afa!

—Jau!

—Atzera! Alajaina!

—Aufa!

—Uf!

—Bada, bada, bada, bada...!
—Ez da, ez da, ez da, ez da...!
—Ez?
—Ez horixe! Ezelan ere ez!
—Bai?
—Bai horixe! Edozelan!
—Et, et, et...!
—Ep, ep, ep....!
—Op, op, op...!
—Denganinoa! Madarikatua! Barrabasa!
—Jesus, Jaungoiko laztana!
—Zer?
—Ezer ere ez.
—E?
—A!
—Ujuju!
—Aupa!
—Puf!
—Kaka!
—Zoaz popatik hartzera!
—Zer popa ta popa ondoko?
—Zera...!
—Kalabaza errea!
—Txut!
—Ai!
—Oi!
—Ei!
—Arraiopola!
—Aitaren...!
—Tira!
—Utikan!
—Mau mau!
—Bost!
—Ja ja!

—Ondikotz...!

—Ostera...!

—Gero...!

—Pzzzzz...z!

—Tzzzzzzz...z!

—Beeeeeeee...e!

—Purrrrrrr...a!

—Trin cas de tri la tro lli lopus se an dosi can de losde pon des trin pas...

Halako batean, mikrofonora doa gazte bat arineketan. Eta oihuka hasten da.

—Geldi! Geldi, mesedez! Entzun! Entzun, otoi! Isilik! Isilik, arren..., isilik, faborez! Begira: Jopu hil egin omen dute, ta Don Trifonen txakurak amorratu, amikatu, egin omen dira, ta hona omen datoz. Oraintxe etorri da autoan, iheska, haren zerbitzari bat. Besterik gabe, bada, bakoitzak berak jakingo du orain zer egin...

Egia ote da gazte horrek dioena? Dena dela, egiaztat hartu du hemen dagoen jendetzak. Bai, horixe bai. Bat-batean, presaka, lehiaka, tarrapataka, arrapaladan, badoaz, badoaz guztiak (Don Trifonen zerbitzariak ere bai) nonbaitera. Autobusetara, tabernetara, etxeetara, ahal duten lekuetara sartzen dira behingoan. Plaza inguruko zuhaitzetara ere igo dira gazte batzuk. Etxeetako ta autobusetako leiho guztiak buruz bete dira.

Bakar-bakarrik gelditu naiz plazan. Huts-hutsik dago hau orain; huts-hutsik jendez, baina txapel, erloju, oinetako, gaztaina erre ta gordin, programa, belarrietako..., ta horrelakoz beterik. Eliza goienean dagozen ijitoek balekite hau...!

Tiro-hotsa da. Badatoz txakurrok, antza.

—Ikusten al duzu zuk ezer hortik? Ba al datoz txakurrok —galdetzen dio Bartolok Basiliori, beheko leiho batetik gorengo leiho batera.

—Ez dut ezer ikusten, ez. Ez dira ageri. Baina laster agertuko dira tiro-hotsa da ta; zaunka-hotsa ere bai.

Egia dio Basiliok. Bai, zaunka-hotsa da. Txakur kontu hori kontu bat izango zelakoan nengoen ni baina...!

—Au! Au! Au...u!

—Badatoz!

—Bai, badatoz!

—Badatoz...! Badatoz...! Badatoz...!

Oihartzun ibiltari bat bezala, leihorik leiho doa deiadar estu ta larria, ta irakiten dagoen marmara ta iskanbilan itotzen da.

Zaunka-hotsa eta tiro-hotsa entzuten da; baina auto-hotsa ta algara-hotsa ere bai.

—Au! Au! Danba, danba! Kar kar kar! Au! Au! Au! Ja ja ja! Auuuuuu...u! Kir kir kir! Auuuuuuuuu...u!

Auto bi agertzen dira. Arin datoz. Baina autoetan ote datoz, ba, txakurrok? Bai zera! Ez dira txakurrak; neska-mutil batzuk dira, txifa txakurren mozorroz jantzirik. Banengoen, ba, ni...!

Tiroka ta biraoka hartu dituzte ekidazuarrek. Baina aurrera doaz gazte zorook. Eta kalerik kale, arineketan, hiru lau buelta egin ondoren, ihesari ematen diote Botxoarantz.

—Gezurra izan da txifa txakurrena!

—Jakina!

—Holakorik!

—Haundiagorik...!

—Zer garela uste dute, ba? Haurrak?

—Adarra jo digute horiek ederki!

—Aluok halakook!

—Beren aita ta amari barre egiten joan daitezela, gezur jario engainatzaile horiek!

—Ikusten baditut ikusi ikusiko dute...!

—Ez ahal dago agintaririk herri honetan?...!

—Zintzilikatu holakoak!

—Zintzilikatu ez baina...

X

Ordu bietako tren a badao.

Ilundu egin du pixka bat. Negarrez hasiko ote zaigu, bada, berriz ere, eguzkia?

Zigarro bat biztu du Simon Berritsuk. Ez da egon hitz sinoni-moen sariketan. Gezalara joan beharra izan du, hango estazioko jefearekin egotera. Ez daki ezer. Hobeki esanda, oraintxe bertan esan dio Enekoneko Andresak zer jazo den.

—Bai zera? Ez dut ezer jakin, Andresa. Oraintxe etorri naiz etorri ere Gezalatik eta... Gazte batzuk izan direla diozu? Zoro gaztea beti! Gure Finiri ere beti esaten diot nabarmena ez izateko baina, alperrik da... Mantsotuko dira hemendik urte batzuetara, berez, bai horixe! Biaje bat egiteko tren a lakorik ez dagoela esaten dut nik beti baina, gaur aspertu naiz trenean gazte gogaikarri batzuekin. Jesus! Haiek izan dira izatekoak...! Pixkatxo bat ongi dago baina, hainbeste ere... Neskak izan dira gehienak, gainera. Oso nabarmen jantzirik (modara jantzirik ez joatea izango da las-ter moda), kantuka etorri dira. *Pop, camp, folk, in, maxi, mini...*, ez dakit nik zer esaten izan duten, erdiak ere ez baitzikiet ulertzen gaurko gazteei. Buruko mina ematen dit, Andresa, gogoratzeak bakarrik ere. Haiek erabili dute kantuaren kantua...! Zera..., ba al dakizu Botxoakoa? Ez? Lehentxoago esan omen du irratiak, ba! Jakina: orain, telebisioa dagoenetik, inork ere ez du entzuten irrati a ta... Ba, Andoni Botxoan atxilotu dute, baina Jopu ez da agertu oraindino. Ekidazun ere nahaspila edo iskanbila haundia

sortu dela diozu baina, hangoa ere izugarria izan omen da. Zirri-tokiko Don Gregorio ere atxilotu egin dutela entzun dut; baina laster libratuko dutela diote. Koldo ta ere beste nonbaitera eraman dituzte. Nire adiskide batek ikusi ditu daramatzatela..., eta ezin kendu izan omen diote mozorrorik... Itxaron, itxaron, orain-txe joango zara, Andresa. Esan, mesedez, zuen Pedrori fulboleko postura lehengotan dagoela, badaki berak. Ez al zenekien partidu-a telebisatzen dutenik? Neuk ere ikusi nahi nuke baina, bada-kizu, behin ardura bat leporatu ezkerok... Finik ez zuela jokatu-ko esan zuten atzo, baina jokatzeko omen du. Fini esan dut? Barka iezadazu, Andresa. Fini, nire alabaren izena da; Tini esan nahi izan dut. Zerak zera zertu duela ere hor zereko zerean... Agur, Andresa, gero arte.

Egia ote da Botxoakoa? Joan egingo naiz, badaezpada, Botxoara.

Botxoara joatekotan nengoelarik, Urruxa, Urderen arreba etorri zait.

Hiru mahats orri berdez jantzirik, oso majarik etorri da. Konturatu barik, nire mahats orria okertuta euki dut eta, zuzendu egin dut berehalaxe.

—Kaixo, iratxo!

—Urruxa, aspaldiko! Zer moduz?

—Ongi, iratxo. Ta hi?

—Hemen negon, lan ta lan.

—Beti bezala.

—Ez...

—Bazekiat. Urdek esan zidak zertan ari haizen. Hire bila ibili nauk, baina kosta zaidak hi aurkitzea.

—Hemen egon naun. Zer nahi dun, ba?

—Hiri lagundu.

—Zertan?

—Idazten?

—Idazten?

—Bai. Hi eskuz idazten ari haiz baina...

—Baina zer...?

—Hobe duk makinaz idaztea. Argiago, errazago ta arinago idatzi dezakek honelan.

—Ez dinat uste. Badinat idazteko makina bat, eta argiago, bai, idazten dinat harekin, baina errezagoto ta arinago ez; nik ez, behinik behin.

—Baina ez al duk ezagutzen *Ximist*, oraintsu agertutako makina berria?

—Nolakoa dun makina berri hori, ba?

—Berez idazten duena.

—Berez...?

—Bai; hik esan ta harek idatzi.

—Ta non zegon makina zoragarri hori?

—Botxoan.

—Oraintxe bertan nengonan haraxe joatekotan.

—Ba, hator. Neure hegazkin berrian joango gaituk.

—Ea, ba.

Esan ta izan, bagoaz Botxoarantz Urruxa ta ni.

Ostikada batez apurtutako txindurri pilo bat ematen du goitik Ekidazuk. Eta oraindino han dagozan edo oraintxe handik doazan autobusek txindurri arrautzak dirudite. Hemendik irten, han sartu, batera eta bestera dabilta txindurriak. Ez dut jakin nahi nolakoa izan den hango nahastea!

Geroago ta txikiago egiten da Ekidazu. Neska gazte baten jantzi nabarmen bihurtu da. Mosaiko baldosa txiki bat. Laino.

Laino tartetik doa nire ama ere, lau zaldiko gurdy batean. Eate ta Hodei daramatzi bere ondoan, ekaitzak, harri erauntsiak eta euri jasak beren eskuetan dituztelarik. Agur egiten digute, ta trumoi-hots izugarria entzuten da.

Halako batean, aireko erraldoi bat agertzen da gure aurrean burrunbadaka. «*Boeing 727*» bat da, eta tiburoi bat bezala dator gureganantz.

—Kontuz, Urruxa! Joko gaitin...

—Ez hadi ikaratu. Ikusten diat. Ez gaitik joko.

Gora jo du, orduan, Urruxak, eta eguzkitara atera gara. Hau-xe bista zoragarria, benetan: Aitzinean, eguzkia irribarreka; elurra bezalako laino matazak gure oinetan, laino zurizko itsaso bare bat; errektore bat goian, abiada ikaragarrian bere sudur zorrotzaz haize ta soinu-hesia urratzen, ta atzetik darion ke zuriaz mozorroak egiten, gure MARI-k lurpeko jauregietan dituenen antzekoak; eta goi-goian, zabal zabalaren zabalean, inor ageri ez den neurrigabetasunean: hutsaren huts hutsa.

—Liluragarria dun hau, Urruxa.

—Hala duk.

—Baina ezin bizi hemen.

—Ez, egia duk hori ere.

—Ametsezkoa dun hau.

—Bai. Zeruetan edo lurpetan, ametsetan bizi gaituk gu gehienetan.

Berriz ere, laino tartera sartu, eta berehalaxe jaitsi gara Botxoara.

Simon Gezurrek esan duena gezurra izango zen. Bai. Ez dut uste nobedaderik dagoenik Botxoan.

Denda batera eraman nau Urruxak. Dendako ateburuan *Idaz-Mak* irakurri dut. Idazteko makina mordo bat erakutsi dizkit, zein baino zein ederragoak. Eta, azkenez, *Ximist* hura erakutsi dit. Ikusgarria, benetan! Hain zuzen ere, magnetofono batek hitzaldi bat hartzen duen bezala, *Ximist*-ek hartu ta idatzi egiten du, gainera, hitzaldia.

Pozaren pozez, jauzika hasi naiz, eta bi musu eman dizkiot Urruxari.

—Goazen, Urruxa, kopau bat hartzera. Hori baino gehiago ere merezi dun hik baina...

Ximist hartu besartean, ta, denda hartatik irten baino lehen, azkonarraren erpe bat utzi du Urruxak, haren ordeaz, hura egon den lekuan:

Arri-Uri tabernara joan gara kopau bana hartzera. Igel bina jan ditugu, ta *Bilboko ur* kopa bana edan.

—Ba al dakik *Arri-Uri*, izen horrek zer esan nahi duen?

—Jakingo ez dinat, ba! *Harriz egindako uri bat* esan nahi din *Arri-Uri-k*.

—Ez, ba!

—Ez?

—Deitura biren bidez asmatutako ta atondutako izen bat duk hori, taberna honen jabeen deiturekin. *Arrizabalaga Kepa* ta *Uriarte Iñaki* dituk jabe bi horiek. Ulertzen al duk?

—Bai, bai.

Bilboko ura (txanpana esaten diote Ekidazun) beste hiri batzuetakoa baino indartsuagoa omen da (farolak ere argitsuagoak dira). Dena dela, txoromorotu, txolindu egin gaitu. Eta, jakina, ezkonberri batzuk bezala ibili gara *Urruxa* ta ni *Botxoako* kaleetan zehar paseatzen.

Eguberri usaina ematen izan du hiriak. Ordu biak eta hogeitau izan dira Madmonen elizako erlojuan. Eta eliza haren aurreko enparantzan dagoen *Eguberri-Zuhaitza* negarrez egon da, lehen-txoago egin duen euri zaparradagaitik, eta negar malkoak dizdizka jausten izan zaizkio bere azpiko ispilura.

Izar haundi bat agertu zaigu kale ertz batean, bere buztan luze ta guzti. «*Calzados Pepe*» jarri du norbaitek, letra gorritz, izarraren erdi-erdian.

Arno kalea txikiteroz gainezka egon da: Edan eta txiza egin, txiza egin eta edan..., eta bien bitartean: futbola, andrak, jornala, politika, futbola, andrak, jornala, politika, futbola...

Arno kalea ezeze, beste kaleak ere gainezka egon dira autoz eta jendez. Autoa hemendik, autoa handik, norako ote du hainbeste presa jendeak? Jendea hemen, jendea han, jendea, jendea, jendea... Eta herria?

«Hor dago, hor dabil

jendea:

artalde,

uholde

*nortasun gabea.
Hor dago, hor dabil
herria:
gizarte,
elkarte
nortasun zalea;
herria,
zurea,
nirea,
gurea...*

*Berriketak
eta berrikeriak,
esloganak
eta azalkeriak:
jendearen amets
ta gidariak.
Magnetofonoa,
tximino zoroa,
dirudi jendeak.*

*Elkar hizketak
ikastola berriak,
errefranak
ta zaharren egiak:
herriaren maisu
ta gurariak.
Pertsonen gogoa,
nortasun sendoa
nahi du herriak.»*

Ekidazura itzuli orduko ia hiru t'erdia egin zaizkigu. Bazka-lordua.

Basamortu bat bezala egon da herria. Lagun gutxi ageri izan da kanpoan. Haurrak bakarrik, Ekidazuko haurrak: neguko lore-

ak, etorkizunaren egunsentia, bihar-etziko gizon ta andren landareak, mintegia...

Izadia lozorroan egon da, bazkalondoko lo kuluskada egiten, neguaren gelan.

Bat-batean, neguari deika, araoka, atarraldika, hasi da Urruxa.

—Negu! Negu! Negu mingarri ta beldurgarri hori, non hago? Zertan hago? Itzartu hadi. Udaberri hire zain zegok, hire sabel ezkutuan, hik noiz askatuko. Zer diok? Ezetz? Zapaltzaile zantarra: Ba, hik nahi ez arren, neuk askatuko diat Udaberri. Bai. Ikusiko duk laster. Astindu, inarrosi egingo haut, eta sabela lehertu egingo zaik nire bultzadaz. Estu ta larri egongo haiz erditzearen oinazetan, eta hire errai ilunetatik udaberri jaioko duk, gazte ta libre, hazi berriz, lore berriz, ta itxaropen ta poztasun berriz apaindurik.

Bazkaltzeko konbite egin diot Urruxari, baina bere etxera joan da. Ni ere, *Ximist* besartean harturik neure etxerantz joan naiz bazkaltzera.

Simon Berritsu bazkalduta egon da ordurako, hiru t'erdietako trenaren zain, esku artean euki duen txistuaz kurkuluxetan jokatu. Sei-zortzi gizon ta lau-bost andre izan ditu bere inguruan, eta arretaz entzuten izan dute haren bakarriketa.

—Hitz sariketaren antolatzaileak haserre omen dagoz. Arrazoia dute. *Hizkuntzaindira* bidaltzeko karta bat idazten ari omen dira, orain, tabernaren baten. Ekidazuko taberneruak ere haserre dagoz ta kristorenak esan dituzte. Bai ba! Botxoan atxilotu omen dituzte gazte adar-jotzaile ganorabako haiek... Baina haundiena Andonirena ta Jopurena izan da. Ez al duzue ezer entzun? Ba, hau egia da: Andoni ta Jopu hilda agertu dira, biak bai, Gezalako hondartzan. Ez dakite nor izan den hiltzailea..., edo hiltzaileak, bat baino gehiago izango ziren, beharbada, ta. Tiroka hil omen dute Jopu. Andoni ez, Andonik ez omen du tiro seinalerik. Giza-joa! Haren aita ere oso gaizki omen dago, ta ama ta arreba erdi zoraturik... Ez duela ezer jakin nahi ta ohera sartu dela Don Tri-

fon esan dute, ta giltzatu egin duela bere gelako atea. Baina oraindino haundiagoa ere entzun dut. Entzun hau, eta zeuei bakarrik esango dizuet, eta ez dezala, mesedez, beste inork jakin, hara: Olazaharko Amaiak bere sabelean daukan umea Andonirena omen da. Zer deritzozue? Haundia da gero! Ez, ziur-ziur ez dakit baina... Nork daki ziur, ba? Dena dela, Andonik ez du ikusiko Amaiaren semerik. Zer egingo dugu, ba? Mundu hau holaxe da ta... Demetria! Demetriaaaa...a! Gortu egin zara ala? Badator trenna...! Katarrotu egin da ta, gortu ere bai, antza; Fini, osterera, Jainkoari eskerrak, oso ongi dabil; gazte egon ere ta... Arratoi bat harrapatu du, gaur goizean, gure katu beltzak... Behia hil zaio Brauliori... Fulboleko partidua bostetan hasiko da... Irratian entzun dut... Telebisioan ikusi dut... Periodikuan irakurri dut... Jen-deak dio... Urliak... Sandiak... Berendiak...

Badator Simonen hitzak. Badoaz Simonen hitzak.

Badator trena Ekidazurantz. Badoa trena Gezalarantz.

Badator antzarrak laino artetik. Badoaz antzarrak laino artetik.

Aeroplano bat dator mendi oste batetik, aeroplano burrunbari bat. Badoa aeroplanoa mendi osterantz.

Badatorz lainoak. Badoa eguzkia.

Badator denbora. Badoa denbora.

Badator negua. Badoa negua.

Badatorz gazteak. Badoaz zaharrak.

Badatorz... Badoaz...

Dana dator, etorri dator; ni ere banator.

Dana doa, joan doa; ni ere banoa.

XI

Hanka jokoari daragoio telebisioak. Inoizkorik ondoen omen dago Espainiako ekipoa. Laster ikusiko dugu.

Buruhezur elkarteak bostetan egiten izan du (aspaldiko urtetan bai behinik behin) urteroko bilera nagusia. Baina aurten aurreratu egin du, gero fulboleko partidua lasai ikusteko.

Kanposantu ondoko bidegurutze batean bildu dira elkarteki-deak. Batzar gutxi egiten dituzte *Buruhezur* elkartekoek. Honetan molde zaharrekoak dira. Izan ere, molde berrikoak balira, batzar asko egingo lituzkete.

—Gerrikagoitia Serafin.

—Bai!

—Manterola Enrike.

—Aurrera!

—Lopetegi Felisa.

—Hemen nago.

—Egiluz Ziriako.

—Eup!

—Agirrebengoa Maria Elena.

—Bai...

Ekidazuko jakintsu taldea ere batzarrean dago. Atzo ere batzarrean egon zen; bihar ere batzarrean egongo da. Molde berriko elkarte denez gero, batzar asko egiten dituzte jakintsuok. Katalin kafetxeko gela batean dagoz orain. Zigarro kondoz beterik dituzte hautsontziak. Kopak, ordea, hutsik.

- Aurrerapide haundiak egin ditugu aspaldion egin.
- Baina, hala ere, planifikazio on baten premian gagoz.
- Bai, egia da.
- Irakurri al duzue Cunningham-en liburua: *Western Civilization in its Economic Aspects?* Oso interesgarria da. Erraza, gainera, irakurtzeko.
- Ni *Récréations et passe-temps* irakurtzen ari naiz.
- Norena da hori?
- Zerarena: *d'Allemagne*-rena.
- Nik Feldhaus-ena erosi nuen lehengo batean Munich-en.
- Zein?
- Lexicon der Erfindungen und Entdeckungen auf den Gebieten der naturwissenschaften und Technik*. Konsulta liburu ona, benetan.
- Bai, ezagutzen dut. Liburu ederra. Orain dela hamar urte erosi nuen nik hori New Yorkeko liburutegi zahar batean.
- Ongi al dakizu zuk alemanez hitz egiten?
- Ongi hitz egitea ez da erreza. Baina irakurri ta idatzi itxura batean egiten ditut.
- Ikasteko errezena inglesa da.
- Gaur ikusiko ditugu inglesok partiduan.
- Pitxik jokatzan al du?
- Ez dut uste.
- Baietz esan du, ba, telebisioak!
- Esango zuen baina...
- Esan gauza asko esaten dira ta...
- Batarrean dago, bai, Ekidazuko intelektual taldea, batzarrean mundu konpontzen.

«Gure herriko jakintsua,
 intelektuala,
 hitz politen jaun ta jabea,
 beti goitik behera
 begira zaudena,

*baina behin ere lurra
ikuitzen ez duzuna,
gauza onak eta txarrak
ezagutzen dituzuna,
herri maitale paregabea,
tertulia bakoitzean
mundu bat konpontzen duzuna:
zure bultzaren zai dagoen herria
ez ote da aspertuko
zuri begira?»*

Gezalako haundikiak ere batzarrean egongo dira. (Txikikiak ez dute izaten, sarri askotan, batzarretarako astirik). Botxoako haundikiak ere bai. Ekidazuko hitz sinonimoen sariketara etorri diren hizkuntzalari batzuk ere bai, Botxoako barren batean. Baita hitz sariketaren antolatzaileak ere Tabernaberriko jantokian.

Molde zaharrekoak dira baina, txakurrak ere batzarrean dagoz Don Julian medikuaren etxe inguruan, txakur eme bat du harek eta.

Urteberri eguna izan arren, beste asko ere, beste toki askotan, batzarretan egongo dira, dudarik gabe, zertarako edo hartarako, batzarrak egitea premiazkoa, derrigorrezkoa, nahi ta nahi ezkoa baita gaur. Batzar bat ez egiteko ere batzarra egin behar; batzar bati boikota egiteko ere batzarra egin behar.

*«Atzo batzarra,
gaur beste bat;
bihar batzarra
berriz daukat.*

*Batzarra hemen,
batzarra han:
beti nago ni
batzarrean. »*

Batzar gizaldia dugu, izan ere, oraingoa. Batzarra hemen, batzarra hor, batzarra han. Batzarra egin genuen, batzarra egiten gagoz, batzarra egingo dugu. Gaurko batzarra atontzeko bildu ginen atzo. Biharkoa atontzeko bildu gara gaur.

Batzarra batzarraren gainean! Eta, jakina, ez du inork ezer-tarako astirik, batzarrak berak egiteko ere ez. Bai ba! Hainbeste batzarrekin, ezin danetan egon. Gainera, batzar bat nola egiten den ere ez da jakiten azkenean, ahaztu egiten da.

Batzar asko egin dira ta egingo dira Urteberri egun honetan. Baina gaurko batzarrik inportanteenak telebisioaren aitzinean egingo dira, eta telebisioa bera izango dute batzar buru. Zenbat milioiren batzar buru? Batek badaki!

Juan, Andoni, Koldo, Don Trifon, Jopu ta gainerakoak bertan behera utziko dituzte ekidazuarrek ordu pare batean.

Ia bostak dira, eta biztuta dagoz telebisioak etxe guztietan. Ez, etxe guztietan ez. Oxinan eta Zabalán ez dituzte biztu, ez baitute oraindino telebisorik (haundia da!). Olazaharkoek badute izan, baina itzalita dute, eta biztu ere ez dute egingo denboraldi batean beren aita izan zenagaitik.

Hasi dira batzarrak.

—Señoras, señores, ¡muy buenas tardes! —dio telebisioak.

—¡Buenas tardes! —erantzuten dio Don Julian medikuaren emazteak.

—Lehenengo gola Espainiak sartuko balu...! —dio bere baitan Enekoneko Paulinek.

—«*Montecristo*» bat ekarzu —eskatzen dio Santi indianoak bere emazte gazteari.

—«*Montezier*» bat ekarzu —eskatzen dio Martzel Iskok bere emazte zaharrari.

—Tráeme un «*voltigeur*» —Don Julian medikuak emazteari.

—Zagozte isilik, ba! Ezer entzuten ere ez duzue uzten zuok! Egon isilik edo joan kanpora! Ez duzue entzun ala? —deiadarrez Pinuetako Faustinok bere seme-alabei.

—Ilunegi dago hori. Argitu ezazu pixka bat. Ez, ez, hainbeste ez..., hortxe! Hori da ta! Oraintxe bai ikusten da ondo —Ibar-gureneko Serafinek, butaka zabal ta apatz batean erdi etzanda dagoelarik.

—Hasi al da? —Simonek Demetriari gelditokiko telefonotik.

—Ez, oraindino ez, baina laster hasiko da —Demetriak.

—Ene! Pitxik ere jokutzen du —askok.

—¿Qué nos hará hoy España? —galdetzen dio Don Julian medikuari bere alaba gazteenak.

—Canar —erantzuten dio Don Julianek.

—Zer egingo du gaur Espainiak, aita? —galdetzen dio Belar-rinagako Kandidori bere seme gazteenak.

—Galdu —erantzuten dio Kandidok.

Felix Astok ez dio ezer. Mututu egin da, ta urduri, ezinegenez, dago. Txokor bat eta lau zigarro erre ditu segituan. Hobeki esanda, erre ez, jan baizik.

Hamaika ta hamaika, jokalariai aurrez aur dagoz, prest jokutzen hasteko. Haien inguruan dagozanak (ehun mila aldera) txaloka, txistuka, orroaka, irrintzika ari dira.

Hasi da partidua. Ikusleak isildu egin dira berehalaxe. Ederki jokutzen du Espainiak. Bai, hasiera ona eman diote espainatarrek. Erdiko aurrelariak du baloia orain. Ingles ile luze bat doakio arineketan. Baina espainatarrak ezkerretarantz jaurtikitzen du indartsu baloia, inglesa hurbildu baino lehen. Han dago ezkerreko aurrelaria zain, ta ederki hartzen du baloia bere paparrean; ta, berehalaxe, baloia hanka tartean eta inglesen atzelari bat alboan daramatzalarik, arineketan hasten da. Tximista bezala doa aurretantz, fulboleko kanparen ertz-ertzetik. Korner ondora ailegatu, ta gelditu egin da bat-batean. Hiru-lau keinu ikusgarri egiten dizkio atzelariari, ta driblatu egiten du azkenean, eta erdirantz, inglesen porteriaren aurreko alderantz, jaurtiki baloia bere hanka ezkerrez. Bost espainatar eta zortzi ingles dagoz han, porteriaren aurrean. Eta, baloia hartzean, bultzakada bat eman eta lurrera botatzen du ingles batek espainatar bat.

Jendea txistuka hasi da. Baina arbitroak ez omen du ezer ikusi, edo ez-ikusi egin du.

Azkenez, baloia kanpora joan da.

—Penalti izan duk hori! —batek.

—Bai, bai, penalti izan da! —besteek.

—Ez dago deretxorik horretarako —gehienek.

—Penalti! Penalti! Penalti! —guztiek.

—Nor da penalti? —Josepak.

—Me parece que a este «arbitrucho» lo han comprado los ingleses. Lo demás no me explico cómo ha podido hacer la vista gorda. No hay derecho a eso —Don Julianek.

Hasiera ona eman dio, bai, Espainiak. Gero izango dira kontuak.

Neskamea datorchio Don Juliani errekaduren batekin.

—Señor, le llaman por teléfono.

—¿A mí?

—Sí señor.

—¿Has preguntado quién es?

—Sí, señor. Es Nicasio el de Bolu.

—¿Qué quiere Nicasio?

—Dice que su padre se ha puesto malo.

—¡Vaya, hombre! A algunos se les ocurre ponerse enfermos precisamente a la hora del partido...

Gustora ez baina, telefonora doa Don Julian.

Iturriberriko Tomasen behi bat ere oraintxe dago txahala egi-ten. Eta, jakina, haserre da Tomas.

—Sartu al du golik Espainiak? —galdetzen dio emazteari.

—Ez, oraindino ez.

Eguzkiari, ordea, bost ardura dio futbolak. Agurka ibili da oraintxe puntuan laino montor beltz baten ostetik, bere izpi epelekin izadia samurkiro laztanduz.

*«Eguzkia joan da
bere amagana;*

*bihar etorriko da
denbora ona bada.»*

Argi indarra ere joan egin da. Eta ehun mila begiren aurrean (ehun mila esakera bat da) itzali egiten dira telebisioak. Besterik ez da falta izan...!

—Hau ere bada! Aste osoan lanean pozik ibili gero lasai partidu bat ikusteko..., ta kaka, horixe, kaka! Berdin beti. Goizaldeko hiruretan, behar ez denean, ez da joango argirik..., ez, orduan ez, egon seguru. Lotsa galdukook halakook! Esan dut nik, partidua hasi aurretik, bai: partidua osorik ezetz ikusi? Eta esan ta egin. Beti pasatzen da zer edo zer holako orduan... Argia, berriz, etorri egingo ote da gero? Ezetz egingo nuke postura —dio haserrez Felix Astok.

—Itxaron pixka batean, laster etorriko baita berriro argia —dio Pantxikek.

—Hau da itzela! —Martzel Iskok.

—Trumoiagaitik edo kenduko zuten argia —Santi indianoak.

Besterik ezean, transistoreak biztuten dituzte etxerik gehienetan. Ikusi ezin bada partidua, entzun gutxienez.

«...saca de puerta Atzapar. Lanza el balón muy lejos. Lo recoge Tini, que se lo pasa rápidamente a Pitxi, que avanza, dribla a un contrario... Sigue avanzando Pitxi, y sigue driblando contrarios. Se interna en el área de los ingleses. ¡Atención! Peligro para los ingleses. Pitxi sortea a un contrario más, y chuta fuerte... ¡Ay! ¡Fuera! Ha salido fuera el balón rozando el larguero cuando ya en los graderíos se cantaba el gol; es que, ciertamente, el balón llevaba marchamo de gol. ¡Qué gran jugada personal de Pitxi, señores radioyentes! ¡Formidable! ¡Increíble! El jugador número doce aplaude a rabiar. Y Txipi..., perdón, queremos decir Pitxi, levanta su mano derecha en señal de agradecimiento.

Saca de puerta el cancerbero inglés...»

Lehen begiak euki dituzte telebisioan ekidazuarrek. Orain, belarriak transistoreetan. Eta gogo-bihotzak partiduan. Bien

bitartean, erre ta erre, hautsontziak bete ta hustu egiten dira; edan ta edan, kopak bete ta hustu.

Egia haundia gure olerkariak dioena!

*«Hustu gaituzte
tiroz ta fletxaz
likorez,
putaz,
fulbolez,
zezenez,
boseoz,
Urtainez,
likorez,
putaz.
Hustu gaituzte.
Hustu,
usteldu...
Bizioetan.
Prostituzio berria,
kapitalismo berria,
estranjerutik ekarria.
Hustu gaituzte,
hustu
usteldu.
Poetak,
iturriak
isildu ziren
Hil zaigu dana
Eta poetak
uste
du
ezerk ez duela ezer balio.
Hustu gaituzte.»*

Egia haundia da hori; baina ez egia osoa. Hustu gaituzte, baina poeta guztiak ez dituzte hustu. Ez horixe! Badagoz, badagoz, zorionez, oraindino, poeta jator eta bete batzuk, herriaren amets, bizi nahi, bihotz ikara, ta asmoak, zirt edo zart, lau haizetara iragartzeko; herriaren barne lokartua esnatu ta indartzeko. Badagoz, bai, han-hor-hemen, olerkariak, eta etorri haundikoak gainera.

*«Olerkari txit bizkor,
gau hodeitsu ilunean
oinaztarri diztikor.*

*Herriak lo ameskor,
olerkari kantari
goizeko urretxindor.*

*Gogo motel garaian
olerkiaren gatzak
min herri bihotzean.*

*Oi, olerkari sutsu!
zure urre gogoan
maitasunak loratsu.»*

«Urteberri, itsuak ere igerri», eguna luzatu egin da. Baina, hala ere, laster gautuko du.

Mendian behera dator iluna, Ekidazu bere hegapean ezkutzeko.

*«Oi, zein dan ituna
behera behar hau!
Nik ez nahi eguna
bihurtzerik gau.»*

XII

Eup! Arratsaldeon, Iratxo!

—Kaixo, Urde!

—Nola doakik nobela hori?

—Ba, hemen nebilek nobela edo ipuin luze hau idazten.

—Baina eragabeko asmakeriaren bat idazten ez haiz ibiliko, eztuk?

—Ez. Baina, egia esan, mozorrodun nobela bat duk hau, logikagabetasunaren logikaz sortua ta idatzia.

—Nortzuk izango dituk mahaiko hire apustu hori erabakitze-ko?

—*Belarmotz* ta *Muturrapal*, Botxoako iratxo bi, eta *Kutxu* ta *Bilobeltz*, Gezalako iratxoak. Ezagutzen dituk hik hauek.

—Bai. Baina ulertuko al diate nobela nabarmen hori?

—Mozorroak, irudiak, sinboloak irakurtzen dakienarentzat, mozorroen barruan nor edo zer dagoen ikusten ahalegintzen denarentzat, ulerterreza izango dela uste diat. Jakina, hemen ere behinolako txakolin dastatzaileena gertatu litekek.

—Zer?

—Ba, behin batean, baserritar batek baso bana txakolin eman zieran hiru dastatzaile famaturi. «Burdina sunda pixka bat du txalokin honek; burdina zatiren bat izango du barruan upa honek», esan zian batek, tragu bat egin ondoren. «Ez, paper sunda du; paperen bat izango du», esan zian beste batek. «Bai zera! Tinta usaina du txakolin honek», esan zian hirugarrenak. «Dastatzaile

onak zarete, benetan! —esan zieran orduan baserritarrak—. Izan ere, nire auto zaharraren giltzak eta periodiku bat bota ditut lehen upa barrura.» Ulertu duk?

—Bai.

—Ba, nire nobela honegatik ere iritzi asko emango ditiате, noski. «Bakoitza bere zoroak darabil».

—Bai baina, txakolina bera indargabea dela edo upa bera ustelduta dagoela edo esango balute mahaikoek... Orduan zer? Postura galdu?

—Etzekiat...

—Dena dela, hi aurrera jo ta ke. Pozik al hago *Ximist* horrekin?

—Oso pozik, Urruxari esker.

—Urruxa bera ere oso pozik zegok.

—Ta? Zer berri?

—Hitz sinonimoen sariketa gehiago ez egitea erabaki dutela antolatzaileek, denbora eramangarri alai bat izan dena burruka tamalgarri bihurtu delako.

—Ta zer gehiago?

—Espainia galtzen zegok. Bat eta huts. Hasi ongi hasi dituk espainatarrak baina...

—Don Trifonek zer zio?

—Batzarrean egon duk partidu ordura arte, bere zerbitzari haundiki haundikienekin. Bere txaletaren aurreko lorategian lurperatu dik Jopu...

—Baina egia al duk Andoni ta Jopu hilda agertu direna Gezalako hondartzan?

—Ez hekien ala?

—Bai, jakin bai, baina egia zenik ez.

—Hi!

—Zer?

—Amaiarena entzun al duk?

—Amaiarena? Zein?

—Haren sasi-senarra Andoni izan dela zioz Don Trifonek.

—Badakik: azkenengo eztabaida izan zutenik hona (huelga zela-ta ez zela), Andoniren kontra izan ezkeru, edozer gauza esaten dik harek. Baina hik badakik hori gezurra dena, galanta gainera; bai, noski.

—Hi! Zer duk hori...?

—Zer?

—Ixi...!

—Zergaitik?

—Ez al duk entzuten?

—Bai, orain bai. Txakur zaunka-hotsa.

—Baina zaunka-hots nabarmena.

—Bai, benetan.

—Zer gertatzen ote duk?

—Oraintxe jakingu diagu.

—Mozorroz jantzirik aterako al gaituk?

—Bai. Har itzak hor. Armiarma sare horren gainean dituk. Armiarma mozorroak eramango ditiagu...

—«Olgetan hasi, benetan urten», esan ohi zuten antzinako ekidazuarrek. Eta horixe gertatu da gaur.

Izan ere, amorratu egin dira Don Trifonen granjako txifak txakurrak. Oraingoan, zoritxarrez, egia da. (Hitz sinonimoen sariketako adar jotzailerak balekitez...).

Amorratu egin dira txakurrak, eta ihes egin dute granjatik, eta herrirantz datoz.

Lehenengotan, ez diote egin kasorik ekidazuarrek kaleetan zehar arineketa eta arnasoska ibili den barreiatzaileari, beste adar jotzaileraren bat zelakoan.

—E! Zu! E! Zuok...! Entzun! Don Trifonen txakurrak amorratu egin dira ta honantz datoz! Don Trifonen txakurrak amorratu egin dira ta honantz datoz! Badatoz...! Hertsu ateak ta hartu eskopetak...

—Baina nor da orain? —batek.

—Berriz ere eguerdikoak ote dira? —beste batek.

—Ez. Beste bat da hau, ta oinez dator —hirugarren batek.

—Badatoz! Badatoz...! —barreiatzaileak, kalerik kale, oiuhka.

—Zeure amari sartu gezur hori ipurdiko zulotik —nork ez dakit.

—Ez al duzu beste zereginik? Lehen jo digute adarra, txo!
—Patxi Begiokerrek.

—Baina hau da itzela! Egia dela, ba! Hara: Badatoz. Entzun, entzun zaunka-hotsa... —barreiatzaileak iheska doalarik.

—Baina... —danak.

Bizkor datoz txakurrak; ehundaka datoz, ibaiaren hegaletik, pelotoian, txirrindulariak bezala.

Meabeneko Blas zaharra dago ibai hegalean bakar-bakarrrik. Harengana doaz txakurrak. Puskatu egingo dute... Ez. Beren hortz zorrotzak erakusten dizkiote txakurrek Blasi, baina ez diote ezer egiten. Blasen eskui-ezkerretatik pasatzen dira arrapaladan. Harriturik gelditu da Blas.

Zubirantz datoz orain txakurrak, ta han dagozan mutil kozkor batzuk paretaren gainera igo dira estu ta larri. Baina haiei ere ez diete ezer egiten txakurrek.

Herrirantz datoz, zuzen-zuzen. Nora eta norengana ote doaz?

Herriko etxeetako leihoak eskopetaz heterik dagoz. Arimarik ere ez dago kaleetan. Hertsita dagoz ate guztiak. Etxe barruetan dagoz danak, isil-isilik, zain.

Oraintxe sartu dira txakurrak herrira.

—Au! Au!

—Danba! Danba!

Jausi da txakur bat itzulipurdika. Larogei perdigoi sartu dizkiote saihets artetik. Beste bat ere jausi da. Bi, hiru, lau, bost..., hamar..., hogei..., berrogei...

—Au! Au! Au! Au! Au!

—Danba! Danba! Danba! Danba! Danba!

Kaleak tiroz, alaraoz, uhuriz, odolez, eta txakur hilez bete dira. Baina, hilak hil ta biziak bizi, bizirik geratu diren txakurrak (asko ere asko oraindino) aurrera doaz trenaren gelditokiaren

ondotik. Hantxe dago seiretako trena oraindino, geldi-geldi. Simon ere trenaren barruan dago.

—Don Trifonek agindu duela txakurrak soltatzeko esan dute. Esan esan dute baina, egia ote da, ba, hori? Burua galduez gero, edozer gauza egiten da egin. Baina amorraturik dagozan txakurrak soltatzea... Baina nora ote doaz? Ene! Olazaharrerantz doaz, antza. Bai, Olazaharrera doaz, haraxe doaz, bai. Baina zergaitik eta zertarako hara? Konturatu ote dira Olazaharkoak...?

Peka asko ditu Simonek atzazaletan eta maiz agertzen zaio begitxindorra begi batean edo bestean (bietan ere bai batzuetan), baina oraingoan ez du esan gezurrik. Txifa txakur amorratuak Olazaharrera doaz.

Koturatu dira Olazaharkoak eta hertsu egin dituzte berehalaxe ate guztiak. Senitarteko eta auzoetako batzuk ere han dagoz.

Klaudiok, Kelementek, Kosmek eta Kaxintok eskopetak hartzen dituzte etxea defenditzeko. Erdiminak sentitzen hasi dela-ta, ohean egon da Amaia, baina jaiki egin da.

Ailegatu dira txakurrak Olazaharrera. Itzuli-mitzuli ta inguru-minguru dabilta, beren mihin luzeak kanpoan dituztelarik, zerbaiten edo norbaiten arrastoa hartu nahirik.

Noizbehinka, Amaiaren gelako leihopean multzokatzen dira.

—Sar zaite ohera, Amaia, haurra gal ez dezazun —esaten dio Eskolastikak.

—Oraintxe sartuko naiz —erantzuten dio Amaiak bere amonari.

Gautu zuen, eta izugarriago egiten dira txifa txakurren ahautsiak eta ibilketak.

Halako batean, tiroka hasten zaizkie Olazaharko anaiak, eta berehalaxe jausten dira hamarren bat txakur. Gero, beste hamar..., hoge... Baina hoge txakur hil ta beste hoge agertzen dira, berrogei hil ta beste berrogei agertzen dira. Estu ta larri dagoz Olazaharkoak.

Ehunzango bat bezala, auto ilada bat dator Olazaharrerantz. Ekidazuarrak dira, ta Olazaharko familiari laguntzera datoz. Arin

heldu dira autook. Eta heldu ta bat-batean, tiroka hasten dira eki-dazuar laguntzaileok, beren autoetatik jaitsi barik. Orduan, buru eman ta gogor egiten diete txifa txakurrek. Eta autoetako leihoak hertsi egin behar.

Zutik, aurreko zango biekin autoak jotzen ari dira orain txakurrak, beren hortz beldurgarriak erakutsiz ta urruma ta orroa izugarriak eginez. Baina batera ta bestera ibiltzen hasi dira autoak, txakurrak zutitu ez daitezzen. Eta, kontuz-kontuz, leihatilak pixkatxo bat bakarrik ireki, eskopeten kainua ateratzeko, ta tiroka hasten dira berriz autoetakoak.

Kamioi haundi bat ere etorri da, ekidazuarrez beterik.

Bizkor, Olazaharko txakur bizkorra, bere txabolatxoan dago, sakon, buztana zangopetan sarturik, dar-dar, txiza dariola... Zaunkalaria da Bizkor, zaunkalaria katu bat edo arratoi bat ikusten duenean; baina gizonen eta txakurren aurrean oso beldurtia da. «Txakur ahausilaria ez da haginkaria». Isilik dago orain Bizkor, ta ez du zaunkarik egiteko adorerik, ezta gutxiagorik ere. Ahal balu lurpean ezkutatuko litzateke.

Zaunka ta tiro, tiro ta zaunka, zaunkaren zaunkaz eta tiroaren tiroz, ia gorturik dagoz danak.

Hainbat txakur dagoz oraindino bizirik, eta guztiz amorraturik. Baina laster garbituko dituzte, laster bukatuko da burrukaldi bakan hau.

Simonek ere Olazaharrera joan nahi izan du, hangoei laguntzera. Baina ez dio utzi Demetriak. Trena geldi dago oraindino trenbidean. Simon ere trenean dago oraindino, badaezpada; baina ez geldi, ez isilik. Simon beti Simon.

—Badakit nik zergaitik joango ziren txifa txakurrak Olazaharrera. Zergaitik? Ba, Amaiaren haurra (laster jaioko omen da) Andonirena delako. Eta jakina: txifa txakurrak horregaitik joan dira harengana. Bai, Jopu Andonik hil duela uste dute; ta Andoni hilda agertu denez gero, Andoniri berari ezin ezer egin, eta... Ez al zenekiten Andoni hil denik? Bai, Gezalako hondartzan agertu da hilda. Ba, esaten ibili natzaizuena, Andoni hil denez gero edo,

hobeki esanda, Andoni hil dutenez gero, ta Amaiak egingo duen umea Andonirena denez gero, ta Jopu Andonik hil duelako edo Andonigaitik hil dutelako... Barkatu, galdu egin naiz. A, bai! Ba, horrexegaitik joan dira txifa txakurrak Olazaharrera, bengantzaz Amaiaren haurtxoa hiltzera. Bai, horrexegaitik joan dira hara. Lehen Juanena ta orain hau, hau ere bada ezbeharra! Zu, Mari Asun! Ze ordutan da bihar Juanen entierua? Seiretan? Dendari-neko Damianek sei t'erdietan izango dela esan dit, ba...! Santuerdineko Primik, ordea, zazpiretan izango dela esan du. Enekoneko Pedrok esan diola-ta. Zuk seiretan, Damianek sei t'erdietan, eta Primik zazpiretan... Zeinek du arrazoia? Zeinek dio egia? Hirurok? Noiz ikasiko ote dugu gauzak behar diren modura esaten? Hau da elkar ulertu ezina...! Ixi! Ez da txakur zaunkarik entzuten orain. Hil ote dituzte danak?

Danak ez dituzte hil oraindino baina, gehienak bai. Oraintxe bertan amaituko da Olazaharko burrukaldia. Zortzi edo bederatzi txakur bakarrik dagoz bizirik. Zazpi, sei, bost..., lau, hiru..., bi..., bat..., bat ere ez. Bukatu da burrukaldia. Isildu da tiro-hotsa, isildu da zaunka-hotsa. Ez, zaunka-hotsa ez da isildu, Bizkor hasi baita orain zaunka. Orain...?

Txifa txakurrak lo dagoz, lo betiko, odoletan, izerditan, lurrunetan. Eskopetak ere, sutan eta ketan oraindino, lo dagoz. Atsedendaldi luze bat merezi dute ongi portatu baitira.

Amaia ohera sartu da berriz.

—Zer dela-ta etorri ote dira txifa txakurrok gurera? —galdetzen dio Eskolastikari.

—Zure sabelean dagoen umetxoa hiltzera.

—Bai?

—Bai.

—Ai!

—Zer?

—Min.

—Non?

—Ai!

—Hor?

—Bai.

—Ba...

—Ez, joan da.

Beste lau auto etorri dira. Aparkatzeko lekurik ere ez da egongo laster Olazaharko etxe aurrean.

Hogeiren bat gizon jaisten dira autoetatik, ta galdezka hasten dira.

—An de reverrin tranpronti delucurraos?

—Enquide sadeosla?

—An vades desquela uinda dequisno delovisetino is pron des-tris?

Deus ere ez diete ihardesten ekidazuarrek. Mututu egin dira.

Berriz ere, beste hiru-lau auto datoz bozina-hotsean. Gelditzeko esaten diete ekidazuar batzuek keinuka, aparkatzeko lekurik ez dagoela-ta. Baina aurrera jarraitzen dute autook inori jaramonik egin gabe.

«Mercedes» bat dator aurrenengo. Don Trifonena? Gelditu da, eta berehalaxe Don Trifon jaisten da bertatik. Eta, lehenengo ta behin, bere txakurrengana doa, ta deika hasten zaie.

—Lausengu! Luki! Koipe! Gorri! Azeri! Txurikapinto! Bat! Bi! Hiru...!

Baina txakurrek ez diete ezer erantzuten. Eta, orduan, bihotz mina, samintasuna ta arrabia dantzan hasi zaizkio Don Trifoni. Izerdi larria du bekokian, eta irakiten negar-malko bi bere suzko begietan.

—Lau! Txiki! Otso...! Hilda danak...? Baina nork hil ditu nire txakurrak? Nork...? Ixilik zagozte? E...? Nork hil ditu? Inork ere ez? Berez hil ote dira, ba? Baina gorputzak zulatuta dituzte, ta odolatan dagoz. Zergaitik? Berez...? Ez, ez horixe. Zeuok izan zarete, zantarrok, zeuok! Zeuok hil dituzue, bai, ezin nauzue ni ikusi ta...! Ongi ezagutzen dut nik zuen aiherkunde gaiztoa, zuen gorroto bizia, zuen azpi lana, zuen amorru ezkutua, zuen... Bai, begitan hartu nauzue, bai. Baina, dena dela, hau ez da honela gel-

dituko, ez. Hondatu nauzuenez gero, neuk ere hondatu egingo zaituet. Oraintxe ikusiko duzue... Carlas trascas..., tres les pedes..., con tron pontron loscos..., mutupiti tipitumu...

Bat-batean, bere senetik irtenda, erdi zoraturik, errebolber bat ateratzen du Don Trifonek kolkotik. Eta arnasarik gabe gelditzen dira danak hura ikustean. Pausu batzuk ematen ditu, gero, ekidazuarrenanantz, errebolberra esku eskuian duelarik.

—Orain zer...? Baina zer dela-ta zagozte dardar? Zeren beldur zarete, ba? Zer diozue orain? Nork hil ditu txakurrak? Ea, esan! Esan agudo! Bestela, badakizue zer hartuko duzuen: tiro bana, lehen nire txakurrei bota dizkiezuen tiroen ordez. Mututu egin al zarete? Mutuago ere laster jarriko zaituztet neuk..., faltsook halakook...! Tros tris pon! Isilik zagozte...? Pon tris tros! Isilik...?

Geldiro-geldiro, atzetik doakio Hormaetxeko Serafin, hari errebolberra eskuetatik kentzeko. Serafini begira dagoz orain danak.

—Res de la bras tras, Don Trifón! —esaten dio, orduan oihuka Don Trifoni bere zerbitzari batek.

Baina Don Trifonek ez du ezer entzuten. Hala ere, konturatu egin da, igarri egin du atzetik norbait datorkiona, ta buelta hartu ta bat-batean tiro bat ematen dio Serafini. Orduan, ekidazuarrak, amorraturik hauek ere, Don Trifonengana doaz. Tiroka hartzen ditu honek, eta inork eskua ezarri baino lehen, bere burua hiltzen du giltzetan tiro bat hartu ondoren. Eta hankaz gora jausten da bere txakur hilen gainera. Zazpirak eta hogeita bost dira haren esku muturreko erloju ederrean.

Ordua aurrera doa.

XIII

*«Gauaren aginduz, horra sua itzali.
Hitzok bota dizka Egun joanari:
«Ai, Eguntto txoro!, ez ezagun ama,
lehen huts sakonean Bakar nindukana...?»*

Bihar arratsaldeko elizkizuna ta hitzaldia gertutzen ari da Don Jose zaharra, kandela argitan.

Berak eman dio untzinoa Don Trifoni.

—Hil eta gero zertarako? —esan die Don Trifonen zerbitzariari.

—Bai, Don Jose. Etorri bedi, mesedez. Zer esango du, osterantzean, haren emazteak? Eta zer esango du jendeak? Etorri bedi arin, Don Jose, mesedez, Jainkoarren!

Gustora ez baina, joan egin da azkenik Don Jose zaharra, eta eman egin dio untzinoa Don Trifoni, Don Trifonen gorpuari.

—Bihotz zabala ta esku zabala izan da, benetan, Don Trifon. Goian bego! Hau baino katolikoagorik non? Elizatsuagorik non? Zein? Batek badaki zenbat kofradiatan egon den sartuta...! Nik neuk behintzat kofradia guztietako izen zerrendetan ikusi dut honen izena: San Pedrorenean eta Kepa Deunarenean, San Joserenean, San Antoniorenean, Santa Ritarenean, San Migelenean eta Mikel Deunarenean..., eta beste askotan —esan du bere artean, negarrez, zizpuruka, Don Trifonen gorpuaren ondoan egon den zerbitzari zintzo batek.

—Bere pozik haundiena izan diren txakurrak hilda ikusi dituenean, zoratu egin da gizajoa! Eta, jakina, gero ez du jakin zer egiten izan duen ere. Bestela, ez zuen Don Trifonek bere bururik hilgo. Bai, zera! —esan du bere baitan, negarrez, zizpuruka, beste zerbitzari zintzo batek.

—Apaizekin ere ongi konpontzen izan da, eta sarritan joaten izan dira honenera Gezalako apaizak kafe ta koinak ona hartzera ta txokor ederrak erretzera, lehenagoko gauzen gainean elkarrizketa bare ta gozo bat eginez bien bitartean. Jainkoaren ordezkokoak direla-ta, ongi, errespetoz, tratatzen izan ditu apaizak. Urrezko kaliza eder bat eman zuen igaz Gezalako elizarako, ta ehun mila pezeta gainera, eliza aurreko lorategia konpondu ta apaintzeko. Hainbat eta hainbat fabore egindako gizona izan da, bai, benetan, gure Don Trifon gizajoa! Jainkoak zeruetan euki dezala! —esan du berekiko, negarrez, zizpuruka, hirugarren zerbitzari zintzo batek.

—Nola ote dago Doña Leona, Don Trifonen emaztea? Koitadaxoa! Alargun gelditu da goizerik gauera, arrantzaleen emaztean antzera. Don Trifon eta Doña Leona Gezalako ongileak izan dira baina, bakarrik gelditu da orain Doña Leona, Doña Leona otzana. Bera da Gezalako Karidade Ekintza elkartearen sortzaile ta buru ta bihotz. Ikusiko bazendute ikusi, nolako maitasun ta samurtasun ta onginahiez atontzen dituen Doña Leonak pobrentzako Eguberri afariak eta haien ume jaioparrientzako sehaskak! Pobreen haurrei afari merienda bat ematen die bere urtebetetze egunean, eta negar egiten du bihotz zarrastaz «guztien ama ona» ta holakoak entzuten dituenean —esan die negarrez, zizpuruka, Don Trifonen eta Doña Leonaren Gezalako zerbitzari zintzo batek Don Trifon eta Doña Leonaren Ekidazuko zerbitzari zintzo batzuei.

Don Jose zaharrak, ordea, ez dio alabantzazko lorerik bota Don Trifoni; ezta Doña Leonari ere. Haserreturik egon da.

—Elizarako diru asko ematen izan du baina, bere langileei zer ematen izan die? «Dignus est enim operarius mercede sua».

¡Antes es la obligacion que la devoción, Don Trifón! Lehenengo zuzentasuna, ta gero eskuzabaltasuna. Zerua ez da diruz erosten, eta hemen zerua ta han zerua, ez da joko segurua.

Errezuak egiten ari da orain errezu-liburu berri batekin.

*«Etxea Jaunak egiten ez badu,
alperrik nekatzen dira etxegileak.*

*Herria Jaunak zaintzen ez badu,
herrizainak alperrik dagoz zuhur.*

*Alperrik zaizue goizetik jaikitzea,
berandu lotara joatea...»*

Don Jose gaztea ere... Parkatu, lehenago egon zen, baina orain ez dago Don Jose gazterik Ekidazun. Jose gazteak bai, asko dagoz; baina Don Joserik ez.

Ekidazuko sasi-apaizak meza beltz bat prestatzen ari dira Txitxirri baserriko ikuiluan. Etxekoandrea, sei gizon eta beste hiru emakume dira prestamenok egiten ari direnak.

Ongi afaldu dute, ta orain «*vermouth*» eta ardoa edaten ari dira, biak nahastean.

Bero dago ikuiluan, oso bero. Hala ere, sua egin dute arte adar igarrekín, ikuilua hobeki berotzeko.

Batzar buru egiten duen gizonak biluzik jartzeko agintzen die batzarkideei. Eta, esan ta egin, biluz-biluzik geratu dira danak, eta horman dagozan iltze batzuetan eskegitzen dituzte soinekoak eta oinetakoak.

Izerditan dagoz guztiak eta gorri-gorri. Txerrikumeak dirudite. Amarik gabeko txerrikumeak.

Kanpora atera da bat preskura hartzera. Beste bat ere bai... Banan banan, danak doaz kanpora. Hutsik geratu da txerrikorta.

Kanpotik ibilalditxo bat egin ondoren, sartu egin da, berriro, lehenengo atera dena. Bigarren atera dena ere bai. Besteak ere bai.

Kanpora doaz, ostera ere. Baina zertan ari ote dira irten ta sartu, sartu ta irten? Sartu egin dira atzera. Itxi egin dute albatea.

Badakit, oraintxe dakit zertan ibili diren: abere guztiak beza-la, arremetzeko prestamenak egiten ari izan dira, zoroen tximino-keriak eginez.

Galdara haundi bat dakar orain etxeoandreak. Saldaz bete-rik dakar. Eta arte ilinti gorien gainean jartzen du.

Bitartean, sabaira igo da gizon bat, eta katakume hazitotxo bat harrapatu du. Berehalaxe, galdarara botatzen du bizi-bizirik. Tapa ipintzen dio galdarari etxeoandreak, eta bat-batean itotzen dira galdaran katakumearen miauak.

Aldare gisako mahai bat egiten ari da beste gizon bat. Lukainka bat ekarri du emakume batek. Hizketan ari dira, baina nik ez diet ezer ulertzen.

Prestamenok egin ondoren, sasi salmoak kantatzen hasi dira, sasi meza ematen hasteko.

Gizonezkoa da sasi apaiza, gizonezko bizartsu bat. Eskuak zabalik ditu, eta suge baten antzeko soka zati bat du dingilizka ezkerreko esku muturretik. Liburu zahar bat irakurtzen ari da.

*«Gloria Patri et filio,
gure katuak txilio,
in sekula sekulorum, amen,
katurik ez dago hemen.
Doministikun, kirieleison
lapiko batean lau andre
eta sei gizon.»*

Katua egosi da. Eta katu salda hartzera doaz orain, koilara haundi batzuekin. Bero-bero dago salda hori, ta putz egiten diote ahora sartu baino lehen. Cozo dago, antza, gozatsu hartzen baitute.

Katu salda hartu ta gero, aldarera doa sasi meza emailea.
—*Jesus! Oremus!*

—*Txakurraren putzak hartu egizuz.*

—*Amen!*

—*Zu hor ta gu hemen.*

Lukainka hartzen du orduan sasi meza emaileak eta hamar zati egin aihotz batekin. Eta kantatzen hasten da.

—*Sursun korda!*

—*Txorizo korda!*

Eta kristauen mezatako sagararen parodia bat egiten du, kiskin kaskun, erdi latin erdi euskara, mintzatuz.

Gero, dantzan hasten dira guztiak lukainka «sagaratuaren» inguruan, lotsagabekeria haundiak eginez ta birao izugarriak esanez. Horretan ekitalditxo bat egin, ta kantatzen hasten da berriz ere sasi apaiza.

—*Pater noster!*

—*Opila laster!*

Lukainka zati bana ematen die berehalaxe bere lagunei, latinezko hitz batzuk esanez.

Ikaragarritzko barre algarak egiten dituzte lukainka jatean, eta biraoak esan ta lotsa gutxiko keinuak egiten ari dira behin eta berriro.

Harriturik gelditu naiz. Ekidazun ez zegoela holakorik uste nuen baina..., lekuan lekuan maloa, gurean haundiagoa.

*«Jirabira ta jirabira,
sei gizon ta lau andre
etorri ziren
Txitxirrira.*

*Jirabira ta jirabira,
arrakaldu egin da
Jansenioren
andapara.*

*Jirabira ta jirabira,
ikaragarria da*

*gaztediaren
poz algara.»*

Berbaroa ta pausu-hotsa da kanpoan. Nor ote dator Txitxirri-
ra?

Don Trifonen zerbitzari batzuk dira. Zertan ote datoz hona?

—Pon de ra pa pan, pan pa ra de pon!

—Pan pa ra de pon, pon de ra pa pan!

—Pin pon!

Ikuiluko atea zabalik egon da, ta handik sartu dira Don Trifonen zerbitzariok, eta atxilotu egin dituzte hemen meza beltza ematen egon direnak.

Enekoneko Pedro ere atxilotu egin dute Don Trifonen zerbitzariak. Baina ez benetan, ametsetan baizik.

Goizetik joan da ohera gaur Pedro, guztiz nekaturik egon delako. Hain zuzen ere, bart lorik egin gabe egon da Olazaharkoei laguntzearren, ta goizean elizan egin du egin lo pixka bat baina, han egin duenagaitik... Lo dago Pedro, baina estu ta larri dabil ametsetan. Benetako ametsetan? Benetan egiten du, behinik behin, ametsetan. Baina benetan benetakoa?

«Atxilotu egin dute Pedro Don Trifonen zerbitzariak, eta Eki-dazuko plazara eraman dute. Hilikutxa baten barruan dago, fraile jantzirik. Handik irteteko ahaleginak egiten ditu, baina ezin.

—Ni ez naiz Juan errementaria! Ni Enekoneko Pedro naiz...! Ez al nauzue ezagutzen? Nik zuek ezagutzen zaituztet. Enekoneko Pedro naiz... —dio oihuka.

—Hasi dezagun hitz sariketa —dio zerbitzari haundi batek.

—Lehenengo hitza: «Itsu-itsuka». Hasi —dio zuzentzaileak.

—Itsu-itsuka..., epetx ala pexka, itsukapeluka, sagar ustelka, itsu mandoka, zomorro mozorro, tatarataka, solomosu, zapata txikitxuetan, kukulu gordeko, batupareaka, erroz erroz, txoria-martoloka, zarzarren..., buleketan..., zapoka, matamaloka..., katukaldeka, laba labaka..., taloketan... Gehiago ere badakizkit baina...

—Ederki —dio zuzentzaileak.

—Ederki —dio Don Trifonek.

Izan ere, han dago Don Trifon, epaimahaian, betaurreko beltz batzuekin, txokor eder bat erretzen. Baina ez al da hil Don Trifon? Ala beste Don Trifonen bat da hau?

Hilkutxatik atera egiten dute Pedro, ta mozorro bat jazen diote. Ta itsutua eta makurtua dagoelarik, Don Trifonen zerbitzariak bizkarrean jotzen dute, ta berehalaxe hauen bila hasten da Pedro. Baina ez du ezer ikusten eta ezin inor harrapatu.

—Itsu kapela! Non duk andrea? —galdetzen dio Don Trifonek.

—Sasian galdu —ihardesten dio Pedrok.

—Bila bestea —esaten dio, orduan, Don Trifonek.

Sorki zahar bat bezala darabilte Pedro Don Trifonek, beronen zerbitzariak eta txifa txakurrek. Eta haserretu egiten da. Eta, halako batean, mozorroa kendu, bere kolkotik errebolber bat atera, ta hil egiten du Don Trifon. Hankaz gora jausi da Gezalako jauntxoa bere txifa txakurren gainera. Baina hau miraria: Don Trifon hil eta beste Don Trifon bat agertzen zaio Pedrori berehalaxe. Bigarren Don Trifon ere hil egiten du, baina hirugarren bat agertzen da. Eta hil eta biztu, biztu eta hil, errebolberra balarik gabe gelditu zaio. Eta Don Trifon bizirik, txifa txakurrak ere bizirik..., eta han urrutian beste Don Trifon batzuk agertu dira, Don Trifon zuriak, urdinabarrak, horiak, beltzak, beltzaranak... Oihuka ari dira.

—Eup! Eup! Bota, bota tiroak. Ez gaituzu hilgo gu sekula ere. Hilezkoak gara gu lurbira osoan, *Fenix* hegazia bezala. Ja, ja, ja! Eup! Eup!

—Fenix? Oker egongo dira. Felix izango da, Felix izango da, Felix Asto ere Felix da ta —esaten du berekiko Pedrok.

Arbitro jantzirik agertu da orain Don Trifon bat. Eta Pedro baloitzat harturik, fulbolea jokatzen hasi dira zerbitzariak eta txakurrak. Hankapetan darabilte Pedro.

—Ai! Ai ene! —esaten du mindurik gizajoak.

—Pedro! Pedro...! —deika ari zaio baten bat nonbaitetik...»

Emaztea etorri zaio logelara. Itzartu egin da.

—Zer? —galdetzen dio Pedrok emazteari.

—Don Trifonen zerbitzariak dagoz hemen.

—Zer nahi dute, bada?

—Ez dakit...

Pedroren logelara sartu dira zerbitzariok arrapaladan, eta galdera batzuk egiten dizkiote hari.

—Laya de vaya, Amaia?

—Aya saya?

—Amaia!

—Vaya de laya, Amaia?

—Yaya.

Amaia aipatu dute. Zer gertatu ote da orain? Noan agudo Olazaharrera.

Ekidazuarrrik ez da ageri kanpoan. Don Trifonen zerbitzariak bai, nonnahi.

Ilunetan dago Olazahar. Ilunetan kanpotik eta barrutik. Ez al dago inor etxean? Inor ere ez...? Inor bai: Juan, bakar-bakarrik, bakardade ilun isil izugarrian. Baina non dira besteak? Non ote da Amaia? Atxilotu egin ote dute hura ere? Ala haurgintza minetan egon delako..., eraman egin ote dute klinikaren batera edo? Eskolastikarrik ere ez dago hemen... Goizean gure MARI-k ondo zaintzeko Amaia esan dit baina, oraintxe egin duk egitekoa! Norantz joango naiz orain? Simonengana...? Ea ezer dakien harek... Inork jakitekotan bai...!

Haserre da Simon. Demetriarekin haserretu da, honek Finiri jantzi berri garesti bat erosi nahi diolako. Aita, ama, ta alaba, afaltzen ari dira, eta isil-isilik dagoz hirurak. Isilik Simon...? Bai. Baina luzaro ez da egongo, hamarretako trena baitator.

—Gure Mirentxu ikusi al duzu, Simon? —galdetzen dio Iruriko Doroteok.

—Ez, Doroteo. Baina Karmentxuri entzun diot esaten bere lagun bati etxera joan dela. Bai, oraintxe lehentxoago izan da ta,

oraingo etxean izango duzu zure alaba, seguru asko. Beldurretan gagoz gaur danok egon ere, ta egotekoa da... Don Trifonen gorpua Gezalara eraman dute hilkutxa eder batean. Bihar izango dira entierria ta elizkizuna, arratsaldeko seiretan edo. Jende asko joango da, asko bai, entzute haundiko gizona izan baita Don Trifon... Txifa txakurren gorpua granjara eraman dituzte kamioietan. Erre egingo dituztela uste dut nik... Telebisiokoak ere etorri dira. Ez al zenekien? Bai, gauez etorri dira, eta ez da argirik egon... Beste batzuetan arin etortzen izan da baina, gaur ez dakit noiz etorriko den. Trenaren argi indarra apartekoa da. Eskerrak horri, bestela... Ba, telebisiokoak etorri direnean ez da argirik egon; baina foko haundi batzuk ekarri dituzte (pilak edo izango zituzten barruan, ez dakit nik) eta argitan jarri dute Olazahar. Gure Demetriak ezer esan ez balit, han izango nintzen ni ere, eta agertuko nintzen telebisioan... Baina, badakizu, noizean behin emakumeei ere jaramon egin behar izaten zaie ta... Penagarria izan da, benetan! Hala ere, ikusi beharko dugu telebisioa gero. Hamabietan ematen omen dute Olazaharkoa... Itxaron, itxaron, mesedez, apur batean Doroteo, oraintxe joango zara ta. Ba al dakizu Amaiaarena? Ez? Ezer ere ez...? Haundia da! Jakina, zu etxezaletxo zara ta... Tabernak eta jostalekuak izaten dira onak holako barriak jakiteko. Ba, begira, Doroteo: Amaia gaitik ari dira orain etxerik etxe Don Trifonen zerbitzariak, eta horrexegaitik atxilotu dituzte hainbeste ta hainbeste. Amaia bera ere atxilotu egin dutela esan dute baina, gezurra izan da. Erdi minetan zegoela ikusirik, ez dute eraman. Baina Olazaharren gelditu da Don Trifonen zerbitzari mordo bat Amaia «zaintzen». Baina alde egin du handik Amaiak. Bai. Halako batean, nola eta nondik ez dakitela ihes egin die Amaiak. Eta Eskolastikak ere bai, zaharra izan arren. Suzko hegazkinen batean joan omen dira, behinolako Elias igarlearen antzera... Bazoaz, Doroteo? Parkatu... Gabon, ba; eta bihar arte Jainkoak gura badu... Doroteo! Hona beste apur batean. Ahaztu egin zait esatea. Koldok ere ihes egin omen du presondegitik, eta lehentxoago ikusi omen dutela esan dute, bere etxe-

rantz doalarik. Libre utzi dutela ere entzun dut baina... Gabon, Doroteo, bai, hemen dator trena ere ta.

Hau da itzela! Nora joango naiz orain Amaiaren bila? Nonbaitera bai behintzat.

*«Nonbaitetik abiatu nintzen
eta nonbaitera noa.
Nondik nora
bideak daki
bideak bainarama.»*

XIV

*«0, Pello, Pello,
logale nik eta
jinen niza oherat?
Irun ezan eta
gero, gero, gero,
irun ezan eta
gero, gero, bai...»*

Kanta kantari, loari deika ari izan da, lehentxoago, Errotaurreko Matxalen, besartean euki duen seinak lo egin zezan.

Hainbeste ordutan lorik egin gabe, begiak erreta ditut nik ere. Eztarria ere bai, hainbeste mahats aihen erre ondoren.

Santi indianoaren txaletaren ondoan nago. Oraintxe bertan pasatu dira nire ondotik Don Trifonen zerbitzari talde bi. Ekidazuko etxerik gehienak arakatu dituzte. Baina ez da ageri Amaiarik, ez Eskolastikarik. Zeharo nekatuta joan dira zerbitzariok herriko plazarantz.

Ibili banabil ibili ni ere Amaiaren bila baina, ia aspertu egin naiz. Nora sartu ote da? Haundia da ez inon agertzea! Urde ta Urruxa ere ez dira ageri, niri laguntzeko...

Ilun dago, ta hotz, eta bolaka ari dira laino artean Hodei ta Eate. Izan ere, marrantatu egin da gure MARI; bular-estua du, ta eztulka ari da, eta Hodei ta Eate haren eztulekin jostatzen ari dira.

Behingo batean etorriko zela argia esan du Josepak arratsaldean baina, argirik ez da etorri oraindino, eta ilunetan dago Eki-dazu. Eta ekidazuarrrik erdiak kandela argi motelen inguruan behaztopaka dabilta. Lotan dagoz beste erdiak, lozorroan.

*«Herria lozorroan,
lozorroan dakusgu;
erdiak eta gehiago
lotan,
erdiak eta gehiago...
Ai! Guk gutxiok ezin,
inolaz ezin dugu,
erdizka besterik
asko,
gauza asko esan.*

*Eta bide behera
erroiak eta erroiak
ta ezten gaiztozko sugeak,
ezten zorrotzez;
gorrotozko anitz etsai
ta piztiak zirika
albo ta saihetsez.*

*O, hau bai gauaren gautada iluna!
Hau bidegite kementsu ta astuna!
Ai! Bazenki bidegite honetan
zenbatzu arantza ta zenbatzu oztopo,
zenbatzu izerdi ta odol ta malko,
zenbatzu irain jasan behar diran,
eguneroko ekinaldi estuetan!
Bazenki gure odol tanto,
gure izerdi, malkoetatik,
zenbatzu lili ta larrosa lurrintsu,*

*bazenki zenbatzu lore sortzen diran!
Bazenki gau ilunaren ondorengo
argi nabar ta goiz argiak
zein egun jorantsu bihurtzen diran!
Bazenki itxaro hegoak,
ahalegin bizi kutunetan,
noraino sustartu, sakontzen,
noraino zabaltzen, diran...!
Ai! Hori bazenki, bazenki
bizi emate hori zein ederra dan,
bidelagun on bat zinake,
bai, gure kalbario maitean.»*

Zergatik ez dakit baina, ez da sartu Don Trifonen zerbitzari-rik Santi indianoaren txaletera. Baina, hala ere, beldurretan dago Santi, ta ateak eta leihoak ongi hertsitu ditu, badaezpada. Beldur bat da abereetan, ta asko gizonetan.

Hozbera da Santi, ta ur berozko poltsa bat ipini dio ohe barre-
nean bere emazteak.

Biharko periodikuak gogoan dituelarik sartu da ohera Santi. Hain zuzen ere, periodikuak dira haren eguneroko kultura itu-
rriak, haren irakasleak.

Argi ta garbi etorriko dira gaurko gorabeherak biharko perio-
dikueta —esan du bere baitan.

Don Julian medikuaren etxera ere ez omen dira sartu Don Tri-
fonen zerbitzariak.

Ohean dago Don Julian, bere emaztearekin. Transistorea bela-
rrian duelarik dago, *Paris*-ek zer dioen entzuten. Munduko gorabe-
herak jakiteagaitik entzuten du Paris. Bakezalea da Don Julian, ta
ez da ezertan sartzen. Zuretik ezpala, nolakoa aita, halakoa semea,
aitatara eman du, bere aita bezalakoa baita: kapitalista liberala.
Modua daukanak, jan dezala oiloa; ez daukanak, artoa. Baina
behartsuek oiloa dutenean, beti ostirala, haragi-uzte eguna. Dena
dela, aberatsa, inpernuko legatza; pobrea, zeruko lorea.

Joan omen dira Felix Astoren etxera Don Trifonen zerbitzariak. Baina Felix Astok ez du beldurrik, eta ez du hertsu giltzapetan aterik.

—Nor etorriko da, ba, hona, nigana? Eta etorrita ere, zer? Zer egingo didate, bada?

Astoen zeruan dago orain Felix Asto, lo. Iratzean dagoen txerri mazal bat dirudi ohean, bere bekain ta belarri haundiekin. Zurru ta purru ari da. Nola ote ditu eskuak eta oinak? Izan ere, eskuak poltsikoetan eta oinak ohean garbitzen dituela esaten du astotzarrak halakoak! Gero «txerri zikinok» esango die ijitoei!

*«Txistuka dago trena.
Txistu-hotsa tristea da gauean.
Ikusten zaitut bakar,
bazterrera utzia,
trenbideko ertzean,
jendepean...»*

Joan doa ala etorri dator trena? Hamaiketakoa ala hamaika t'erdietakoa ote da?

Gelditokiko erlojua gelditu egin da, Olazaharko Juanen bihotzaren antzera. Baina erlojua gelditu arren, munduko erloju guztiak gelditu arren, denbora aurrera doa. Noizetik noizera, arteka marteka, denbora aurrera doa, aurrera beti erreka bateko ura bezala. Lehen, orain, gero, atzo, gaur, bihar, iaz, aurten, datorren urtean... Inoiz ere ez da gelditzen. Aurrera doa beti denbora hegalaria oraintxeka.

Atzorik hona, egun bat gutxiago. Ala egun bat gehiago? Egun luzea batzuentzat; laburra beste batzuentzat. Gaua-eguna-gaua, haientzat; eguna-gaua-eguna, hauentzat.

Anitz arpegi dituen denbora aurrera doa, beti berdin ta ezberdin. Denbora, aldia, garaia, astia, gunea, denboraldia... Baina zer da denbora? Denbora doa ala neu naiz noana...?

Ilunetan dago Ekidazu baina, su haundi bat ageri da eliza goiengan, kanposantuaren ondoan. San Juan eguneko sua iruditzen zait. Baina ez. Ijitoen jauregiko argi bizia da. Bai, ijitoak ere baditugu Ekidazun gaur. Ijitoak, motzailak, kitanuak, kitoak, buhameak, edonongoak eta inongoak...

*«Buhameek badakite
trikun trakun egiten;
trikun trakun egiten eta
oilaskoen ebasten:
lupaire lupaireton
lupair lupair lupaireton.*

*Buhameek badakite
oilaskoak ebasten,
oilaskoak ebats eta
sasipean gordetzen:
lupaireton lupaireton,
lupair lupair lupaireton.»*

Edonoiz etortzen dira ijitoak Ekidazura. Eta ernatu, bizkortu egiten dute herria, etortzen diren bakoitzean. Haiak dagoen artean, baserritarrek ongi zaintzen dituzte oilaskoak.

—Etorri zaizkigu, herriz ere, besteok! Erne ibili beharra egongo da; bestelan..., laster egingo dute banketea hauek gure hegaztiakin.

—Kordel luze bat eukiten omen dute andrazkoek beren gonapean, artagarau bat puntan duelarik. Eta oilasko baten ondotik pasatzean..., jausten utzi kordelari, ta rapa!, atrapatu egiten dute oilaskoa. Jakina, aurrean artagaraua ikusten duenean, iruntsi egiten du berehalaxe oilaskoak eta..., arrain bat bezala atrapatzen dute.

—Bai. Lapurretarako trebeak dituzu. Beste zeregin haundirik ere ez dute ta, alpertzarrok! Lanean ikusi nahi nituzke nik horiek, lanean!

—Kaminerutzarako izango lirake berebizikoak horiek. Horre-
xetarako bai.

—Bai. Baina sorbaldako hezurra okerturik eukiko lukete, ai-
tzurra beti sorbaldan erabiliko luketelako.

—Jan ere, berriz, edozein txerrikeria jaten dute, zikin saske-
lok! Ta on egiten die gainera! Hori da haundiena! Kontuizu: ez
dira sei hilebete izango, albaiteruak esanda, lurperatu egin
genuen, gure etxe atzeko zelaian, berez hil zitzaigun behi bat. Ba,
zer egin zutela uste duzu ijitook?

—Lurpetik atera ere igual horiek, kapaz dira hori ta gehiago
egiteko ere ta...

—Bai, horixe egin zuten. Hiru egun garrenean lurpetik atera,
ta jan, ugertsu higuigarriok!

—Gaizki ibiliko ziren egunotan, euri asko egin du ta. Izotzak
ez ditu hainbeste ikaratzen, baina euriak bai, itoginik gabeko
aterperik ez baitute sekula eukiten.

Ekidazuarren esamesak iraingarriak dira ijitoentzat. Baina ez
dituzte entzuten ijitoek, eta pozik egoten dira hauek haien artean.

Zaldi eta asto eta mandoen ileak moztu ta saskiak edo otzar-
ak egin: hauxe izaten da gehienetan gizonezkoen lana (lan ere
egiten baitute noizean behin ijitoek); tratalaritzan ere oso tre-
beak omen dira. Andrazkoak eta haurrak etxerik etxe ibiltzen
dira eskean. Diru gutxi pilakatzen dute, baina jateko hondakin
asko.

*«Eskale naiz,
eskale;
aterik ate nabil,
beti aterik ate.
Nere izenarekin dituzte
umeak ikaratzen:
«Larruzahar» deitzen naute.
Inork ez nau maite,
baina inork ez dit agintzen.»*

Felix Astorenera ez dira joaten eskean. Izan ere, harenera joanez gero, laster botatzen ditu bere ingurutik.

—Urdaï pixka bat...? Baita zera ere! Neuretzat ere ez da txarra urdaia. Leku onera zatozte urdaï bila. Ea, ea, kanpora hementdik, txerri zikinok!

Gaur ez dira eskean ibili. Beren karroetan edo suaren ondoan egon dira egun guztian. Hain zuzen ere, nonbaiten ostutako edo norbaitek emandako txerri beltz txiki bat izan dute gaur jateko.

Goizetik joaten dira ohera. (Nahi baduzu luzaroan bizi, txoriekin ohera, oiloekin jagi). Baina gaur ez dira joan oraindino ohera. (Txoririk ere ez da ia ikusten neguan eta...). Haiengana joan ote da Amaia? Joan ote dira hara ere Don Trifonen zerbitzariak? Baina zertarako horiengana? Hor dagoz ijitook, suaren bueltan, baina ez dut uste Amaiarik dagoenik hor; Don Trifonen zerbitzaririk ere ez. Bai zera!

Kedarra baino beltzagoak dira danak, eta ikusi ere ez dira ondo egiten. Oinuts dagoz gehienak. Gizon, andre, haur, eta txakur, su inguruan dago ijiteria. Haurrak batez ere, nonnahi ageri dira: sabelean, besartean, altzoan, bizkarrean, alboan, karroetan... Hemen dago umearen umea! Haur-etxe bat balitz ere..., eta etorriko direnak gainera, horretan oso langileak baititugu ijitook. Oso langileak dira horretan, bai, eta ongi betetzen dituzte berezko legeak artifizialkeria ta haragikeriarik gabe, bizi-alarguntza edo poligamia edo dibortziorik gabe. Ijitook ez dute umerik ekartzzen, etorri egiten zaizkie.

Lehenago batean ezkondu ziren hauetako bi. Ezkontza miragarria, benetan! Taldeko zaharrenak ezkondu zituen. Eguerdia zen. Ijito taldearen erdian zegozen ezkonberriok, garbirik eta zuriarik jantzirik. Arropa zuriaren ondoan, edertu egin ziren haien arpegi. beltzaranak. Ijito zaharra zuten aitzinean, gizon zahar zimeldu bat. Eta kantu bat abestu ondoren, alkandorak kentzeko agindu zien honek (antzina biluztu egiten omen ziren). Alkandorra biak hartu, ta mila zati egin zituen ijito zaharrak. Gero, zulo bat egin zuen lurrean aitzur batez, eta alkandora zatiak nahastu

ondoren, lurperatu egin zituen hauek, ezkonberriei holako zerbait esanez:

—Zuen bi alkandora horiek leheneratu arte ezin zaitezkete banandu.

Kantaldi ta dantzaldi labur bat egin zuten guztiek berehalaxe, ta gero bazkaria. Bazkalondoan, arrats erdian, karro batera sartu ziren ezkonberriok beren elkar maitasuna gorpuztera, berezko legea betetzera, Jainkoaren esana egitera: «Hazi ta ugaritu zaitezte...» Bien bitartean, jaten, edaten, kantatzen, eta dantzan ekin zion ijito taldeak. Iluntzean atera ziren ezkonberriok karrotik, gazte, eder ta pozik, eta jaten, edaten, kantatzen eta dantzan jarraitu zuten besteekin batean.

*«Buhameek badakite
zaldunaren egiten;
bai eta ere hango haurrek
gatelu txarrean edaten.
Trunlapeiro, trunlapeiro,
trunlapeiro, peiro, peiro,
gatelu txarrean edaten.»*

Iratxoen artean ere ikusi ditut holako ezkontzak; baina horren politik eta ikusgarririk sekula ere ez.

Izadiaren jaun eta jabe dira ijitoak. Eta hauen artean dana da danena, emazteak eta senarrak izan ezik. Hemen ez dago nire ta zurerik, gurea baino.

Gure antzera, iratxoon antzera, munduko beste mundu batean bizi dira ijitoak. Benetako munduan? Ameskeriazko munduan? Lehenagoko munduan? Gizonen munduan?

*«Izan bai edo izan ez,
ijitoen
karroan lez.
Izateak balio lezake,*

*ez izateak ere bai.
Galdu nuen bidea,
galdu nuen kabia,
orain ni noa galtzera.
Izarra isilka kantari,
nork ez isilka garraxi?
Zein ez dijoa bidean
ijito karroarekin
parean?»*

Bai, hala da, egia da. Ijito karroarekin parean goaz. Baina hala ere, hala ere bai, ehun ta mila bidar, hala ere ijitoak munduko beste mundu batean bizi dira, beren uger ta zikinkeria ta lohi ta guzti. Baina ez uste nire munduan bizi direnik. Ez, nire munduan ere ez dira bizi, beste mundu batean baino... Ijito izan nahi nuke orain. Amaiaren eta nobela honen ardurarik gabe egongo nintzateke orduan. Bestelan! Ijito izan nahi nuke, bai. Zuk ere bai...? Ez...? Ba, entzun. Gogaikarri izango natzaizu beharbada, adorerik gabe, gogaildurik, lur jota gelditu naiz ta, entzun eta ikusi ditudanak entzun eta ikusi ondoren. Entzun, ba.

Ijitoek ez dute telebisorik. Sua, ipuinak, eta elkarrizketak dira haien telebisioa.

Ijitoek ez dute erlojurik, ez autorik, ez trenik, ez aeroplanorik. Izadia da haien erloju hutsezina; beren oinak eta astoak eta zaldiak eta karroak dira haien autoak eta trenak eta aeroplanoak.

Ijitoek ez dute elektrodomestikorik, ez butaka ta ohe ederrik. Ez dute usain gozorik, ez «*whisky*» ta Montecristorik. Oraingo teknika ta zibilizazioak ekarri dituen beste gauza txalogarri ta mese-degarri asko ere ez. Euskal abizen ederrik ere ez dute. Beste gauza asko ere ez dituzte.

Ijitoek ez dakite idazten eta irakurtzen. Ez dakite non egon ziren (gaur ez baitagoz) Nagasaki ta Hiroshima. Ez dakite non dagozen Vietnam eta Burundi, Irlanda eta Israel. Harlem ere ez.

Ijitoek ez dakite nortzuk diren Kosigin ta Nixon ta Mao Tse-tung. Buda eta Mahoma eta Kant eta Marx ere ez. Ez dakite nortzuk diren Iribar eta Pele eta Merckx. Ez dakite gizonak ilargira joan direnik ere. Ez dituzte egundaino entzun «*welttanschauung*», «*engagement*», «*standard*», *alienazio*, *estrukturalismoa*, «*long play*», *demokrazia*, *euskarantoa*... ta horrelako hitzik. Ez dakite ijitoek nortzuk diren Don Trifon, Gezalako haundikiak, eta gainerako haundikiak. Ez dakite zertzuk diren Madmonen eliza, Zirritoki, eta abar. Beste gauza asko ere ez dakizkite: nola atzo Don Trifoni Jopu ostu zioten, nola Koldo atxilotu zuten, nola Juan errementaria hil zen, nola hil diren Andoni ta Jopu, nola hil den Don Trifon, nola ihes egin duen nonbaitera Amaiak...

Dena dela, hala ere, ijitoek badituzte eta badakizkite mundu honetakoek ez dituzten eta zer diren ez dakizkiten ondasun batzuk. Zeintzuk? Hara, adibidez batzuk: Askatasuna (zorioneko askatasuna), buruko garbitasuna (kanpotik lohi, barrutik garbi), elkar maitasuna (nahiz ta haserretu batzuetan), amodio belarrak, haize eder osasuntsua, mozorrorik gabe ibiltzeko aukera, eta abar.

Txarto, gaizki bizi dira ijitoak. Baina ekidazuarren (eta nire) munduan baino libreago ta pozago bizi dira.

*«Zenbat gizon ezagutu
dudan nire egunetan!
Hura hotza ta laiotza
guztien bihotzetan!*

*Urrea gure errege,
gurikeria lege,
ta horiek libre egingo
gaituztela guk uste!*

*Ahaztu zaigu maitasuna,
nahastu gure azpikeriz.*

*Ahaztu zaigu maitasuna,
ai, ai, ai, ai! zertan gabilz?*

*Maitasunik ezean,
esan, zertarako bizi?
Gaur gizonak barre egitean
ez du barruan pozik».*

Ekidazuarren munduko beste mundu batean bizi dira ijitoak, «ijito zikinak». Eta ijioten munduko beste mundu batean bizi dira ekidazuarrak. Berdin da, eta ez da, berdintasun ezberdinak baitira.

Ezagutu ezagutzen dute ekidazuarrek ijitoen mundu hori, edo ijitoen munduaren gisako mundua. Jakin badakite ekidazuarrek Jainko bat dena; eta zuzentasuna, maitasuna, egia, askatasuna, eta beste «tasun» asko direna.

Badakite ekidazuarrek kantu politak eta errefranak eta ipuinak direna; eguzkia, itsasoa, mendiak, txoriak, loreak eta haize ederra direna.

Badakite... Badakite, bai, baina ez dituzte aintzat eta ontzat hartzen. Ez dute horretarako astirik, ez gogorik. Lanez, arduraz, jolasez, kezka, gezurrez, beldurrez, haragiz, janariz, edariz, autoz, telebisioz, izparringiz, aldizkariz, kez, kalez, kalmantez, drogaz, anuntzioz, gogorkeriaz, norberekeriaz, txakurkeriaz, eta beste «keria» askoz zamaturik bizi dira.

*«Ni, neu
izan nahirik.
Zu, zeu
izan nahirik.
Gu, geu
izan ezinik.»*

Beterik bizi dira, eta hutsik. Ezinegonez, arineketan, kokorroturik, gaixoturik, erotuta, itota... Bizi ezinik bizi dira, gizontasuna

ta andretasuna galtzeko arriskuan, elkar ikusi ezinik, elkar joka, elkar jaten, elkar hiltzen... Ekidazuar errukarriak! Ene errukarria! Ai ene!

Nork du errua edo nortzuk? Ba ote da honezkero ihesbiderik altzairuzko sare izugarri honetatik irteteko...? Bestelan, «madarikatua bedi jaio nintzen eguna! Ez bedi bedeinkatua amak egin ninduen eguna! Madarikatua bedi «seme bat jaio zaizu» esanez nire aitari poz haundi bat eman ziona! Izan bedi halakoa Jaunak damurik gabe abarrikatu dituen hirien antzekoa! Garraxiak goizean eta orrobiak eguerdian adi bitza, amasabelean hil ez ninduelako! Orduan nire ama hilobi izan zitekeen, beti betiko haurduntza batean... Zergaitik, bada, irten nintzen amasabeletik? Nire egunak igarotzen ahalkez ikusi ta nahigabea ta atsekabea ezagutzeko ote...?»

Barkaiezadazu, baina asaskaldi on baten premia haundian egon naiz.

Egunez aterri egon da baina, euria da orain. Gizonezko, andrazko ta umezko, danak batean eta nahastean, karroetara sartu dira ijitoak, eta ohean dagoz orain, danak batean eta nahastean, txorikumak abian bezala. Txakurrak karropetan dagoz, eta euritan zaldiak eta astoak. Sua itzali egin da.

Zarra-zarra da euria, eta euri tanta saltularien hotsa bakarrik entzuten da: hots aldakaitza, konpasezkoa, metalezkoa, alditsua, berdina ta ezberdina, betiko hots ezaguna.

Ijitoen karroetako lona gainean tarrapatata egiten dute tantek, eta itoginak txalaparta jotzen du.

Gorosti orrietan, ordea, (Donostian Donosti, gorostian gorosti) idazten ari dira euri tantak, eta mandatu bat bidaltzen diote Morse-ren hizkuntzan nonbaiten dagoen norbaiti.

Hots berri bat jaio da: errekatxoen hotsa. Eta behin negarrez, behin barrez, kanta kantari kantore, ijitoen belarriak eta bihotzak nekarazten ari da.

Badator ura, ijitoen etsai gaiztoa. Badoa ura, bere bidean doa, mila urte igarota ere ura bere bidean: itsasotik lainoetara, lainoetara.

tatik lurrera, lurretik itsasora, itsasotik... Etengabeko joan-eto-
ria.

Haizea atera du. Eta sorgin haizeak, intzirika eta zurrunbilo-
ka, bere besartean hartzen ditu euri pinpilinpauzak, eta ijitoen
karroetara sartzen ditu.

Jaiki egin da ijito bat, eta bere jauregiko teilatua konpontze-
ra doa. Baina alperrik. Konpontzen ahalegindu arren lehen baino
txarrago uzten du teilatua.

—Lehen baino ur gehiago sartzen duk orain —esaten dio
emazteak.

—Ta zer egitea nahi dun, bada?

—Ez zekiat, ba... Lehen bezala utzi, gutxienez.

—Hator, konpondu ezan heuk!

—Nik ez zekiat konpontzen.

Euri asko egiten duenean, elizpera joaten dira ijitoak, eta
haraxe joan beharko dute gaur ere. Bestela...

*«Palazio eder bat
haitzaren gainean.
Ez da haizerik sartzen, maitea,
ez dabilenean;
ez da euririk sartzen, maitea,
aterri denean.»*

Trumoiaren hots zurrunga luze burrunbari bat entzuten da
orain. Argitan jartzen dute tximistek Ekidazu. Haizeak ere garra-
xi penagarriak egiten ditu. Euria zoratu egin da, ta dantza zoro
barregarriak egiten ari da. Itsasoaren orroak ere entzuten dira.
Ortzea noiz eroriko dago. Dar-dar Ekidazu osoa. Izugarria, bene-
tan, bat-bateko ekaitz hau!

—Zer da hau? —galdetzen du ijito batek.

—Lurrikararen bat? —galdetzen du beste batek.

—Ekaitza. Ekaitza da. Goazen elizpera arin —ijito zaharrak.

Ortzea erori egin da. Lehertu egin da ekaitza. Eta ekaitzaren
haize ta ur zoroek dana hondatzen dute.

Lainoak, telebisio antenak, tximiniak, teilak, kristalak, orbelak, eta hegaberak eta antzarrak, hegaz egiten dute haize erauntsi haserre amorratuaren kolkoan. Etxeek eta zuhaitzek ere hegaz egin nahi dute.

Euria uholde bihurtu da, eta harriak, lurrak, oholak, egurrak, zotzak, lastoak, paperak, arrainak, ijitoen karroak, astoak, eta ijitoek igeri egiten dute uholde haserre amorratuaren kolkoan. Etxeek eta zuhaitzek ere igeri egin nahi dute...

Bizkortu egin da, antza, gure MARI. Ekaitz izugarri hau hola, bat-batean, sortzeko..., sendatu edo egin behar. Baina zergaitik ote da haserre? Ekidazuarrakaitik? Ekidazuarrak diruzale alper ta ezjakin batzuk direla esan dit, gaur goizean, esan; eta errua ez dutela besteok bakarrik, baizik eta ekidazuarrek berek ere badutela.

—Baina, ama —ihardetsi diot, ekidazuarren alde eginez—, hik badakin zer gertatu den hemen ta zergaitik...

—Bai, bazekiat dana. Baina akiakula, aitzaki, eztabaida ta negarrez, ez duk deus ere lortzen. Egin egin behar duk hemen, egin. Izatea izanez zaindu ezkeru, ez duk inoiz ere ezer usteltzen, eta usteltzen edo endekatzen ez den herria beti izango duk herri, nahiz ta aurean erabili.

—Baina ez igorri ekaitzik, ama.

—Eguraldi ona ekaitzean ernaritzen duk, eta udaberria neguan. Ekaitza ez duk iraunkorra.

*«Ekaitzak, ekaitzak
hostoak daramazki,
zuhaitzak larruturik
negarra, negarra,
heriotza usaina
inguruan utzirik.*

*Gure basoko zuhaitz lehorrek
oraindik irauten dute.*

*Lurraren babesak emango die
itxaropenezko bizitza.*

*Ekaitza, ekaitza!
Zure indarra
ez da iraunkorra.
Udaberria etorriko da;
berarekin loreak.*

*Bizitza berri bat etorriko da;
lehortuko dira malkoak.
Haize leunak laztanduko ditu
gure aurpegi penatuak...»*

Udaberria laster etorriko da baina, ekaitzaren bihotzean nago orain taupadaka, alda-maldaka, albo-alboka, zabuka, kulumkan, zalantzan, Amaiarik gabe oraindino. Non ote da? Ba al dakizu zuk non dagoen? Bai, zu ere Ekidazun egon zara gaur... Ikusi al duzu? Hilda jaio da haurra ala bizirik? Zazpikia al da? Ez? Ume eder bat? Bai...?

Dena dela, geroke geroaren geroak esango dit.

Ohera noa orain lo pixka bat egitera.

Gaueko hamabiak dira elizako erlojuan.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. C.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

21. GRIMM ANAIEN BERROGEITA
HAMAR UME IPUIIN
Ipolito Larrakoetxea "Legaldi"
Sarrera, oharra eta moldaketa:
Miren Atutxa
22. BERBALAJAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. BERBALAJAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. EUSKALDUNAK MADRILEN
Jose Basterretxea "Oskillaso"
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. EUSKAREA NIRE BIZITZAN
Karmelo Etxenagusia
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. NI KAZETA-EGILEA NAIZ.
ARTIKULU, BERRI, ISTORIO
Jean Hiriart-Urruti
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. HAURGINTZA MINETAN
Mikel Zarate
Sarrera: Jesus Etxezarraga



LABAYRU IKASTEGIA

bbk



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE
CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salordetza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



LEZAMAKO UDALA

ISBN 84-89816-40-9



9 788489 816404